# Goienkaria

2006ko maiatzaren 5a > Egubakoitza > VI. urtea > 242. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Etxetresnen sektorea gogorra da, baina Fagor ez dago krisian"



**Txema Gisasola**
Fagor Etxetresnak
> 08-09

**G2a** **II. Debagoieneko Trikitixa Eguna zapatuan**> 35

**DEBAGOIENA**
**Argi eta gas kontsumoa aztertuko du Energiaren Erakundeak** > 06

**ESKORIATZA**
**Herriko musika taldeen CDa aurkeztuko da Gazte Egunean** > 26

**ELGETA**
**Patxi Basauri alkateak 'Debarri' saioan esandako hitzak** > 29

**BERGARA** > JAIAK

## Aurten ere, zezen-plaza barik

Zezenzaleak taldekoek, haserre, ez dute zezen-ikuskizun gehiagorik proposatuko > 20

**HEZKUNTZA** > PARTZUERGOKO HAURRESKOLAK

# Bi haurreskola publiko berri izango dira datorren ikasturtean

**BI HERRITAN** Bergaran eta Eskoriatzan datorren ikasturtean zehar zabalduko dituzte haurreskolak

**IZENEMATEA** Aurre-matrikulazioa egiteko aukera dago ibarreko haurreskola guztietan hilaren 12ra arte

**ERANTZUN ONA** EAEko haurreskoletako plazen ia %80 beteta daude: ibarrean, 107 plazatik 86 daude hartuta > 02-03

## Mugarri Alkesak Seiko Finalean du EBAra igotzeko aukera

Denboraldi ezin biribilagoa jokatu eta gero, asteburuan izango du Mugarri Alkesak EBA kategoriara igotzeko aukera. Horretarako bi partidu irabazi beharko dituzte; hasteko, bihar (18:00) Zaragozako Unibertsitatea hartu beharko dute mendean. Partidu hori irabazten badute domekan izango dute hurrengo hitzordua (10:00) Galiziako txapeldunaren kontra. Iruñean jokatuko dituzte partidu horiek, eta autobusak jarri dituzte hara joateko. > 32



**LASAIAGO** Seiko Finalerako sailkatzeko azken partiduan urduri ibili ziren taldekideak; orain ez dute presiorik, baina oso motibatuta daude. XABIER URTZELAI

**ARETXABALETA** > UDALA

## EAJko bi, Gobernuko kide berriak

Mikel Uribetxeberria eta Iñaki Saez de Azkunagak dihardute Aralarko zinegotzien ordez > 25

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 10
**Gutunak** > 11
**Herriak** > 13-31
**Kirola** > 32-33
**Kultura** > 37
**Sailkatuak** > 38
**Eskelak** > 39
**Denbora-pasa** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Komunikazioa** > 44
**Non-zer** > 46-47


## Automobilen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 16 orriko gehigarria autoei buruz, dena koloretan.





iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR
%25 DESKONTUA
SUKALDE ALTZARIETAN
Apirilaren 15etik ekainaren 15era

**ZERBITZUAK** > PARTZUERGOKO HAURRESKOLETAN AURRE-MATRIKULA EGIN DAITEKE

# Partzuergoko sei haurreskola izango dira gurean datorren ikasturtean

**MATRIKULAZIOA** Partzuergoko haurreskoletan aurre-matrikulazio epea zabalik dago maiatzaren 12ra bitartean, eskolan edo udaletxean

**BERRIAK** Bergarak eta Eskoriatzak datorren urtean zabalduko dute haurreskola, eta Oñatin, Arrasaten, Elgetan eta Antzuolan badago



PSIKOMOTRIZITATEA Umeek ariketa egiteko, psikomotrizitate gela (koltxonetak, e.a.) izaten du

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Haurreskola partzuergoko haurtzaindegiek zabalik dute aurrematrikulazio epea maiatzaren 12ra arte, eta datorren ikasturtean, bi haurreskola gehiagok zabalduko dituzte ateak Debagoienean: Bergarakoak eta Eskoriatzakoak. Horrenbestez, ibarreko bederatzi herrietatik seik izango dute partzuergoko haurreskola bana, eta beste bat, Aramaio, berea edukitzeko bidean dago, izan ere, eraikinerako proiektua gertu dute eta enpresa bat aurkeztu da lehiaketara. Aramaio ere badago partzuergoan, eta eskola laster egiten hastea espero dute.

Ikasturtea uztailean bukatuko da. Ibarreko hiru eskolak, Oñatikoak, Arrasatekoak eta Antzuolakoak, bigarren ikasturtea dute oraingoa; Elgetakoak lehenengoa beteko du. Haurreskolak partzuergoko eskolak ia beteta egon dira: guztira 107 umerendako lekua dago, eta 86 ume dabiltza ikasturte honetan. Helburua da arrakasta horri eustea eta gero eta familia gehiagori zerbitzu hori eskaintzea, Bergarako eta Eskoriatzako haurreskolen bitartez.

**Oso erantzun ona dute haurreskola publikook; izan ere, aurten 86 ume dabiltza ibarreko lau haurreskoletan**

**Eskoriatzan zein Bergaran, haurtzaindegi publikoa eskatzen dute guraso askok, eta haurreskola da horretarako aukera**

Aurre-matrikula egin nahi duten gurasoek haurreskoletara jo behar dute; Bergarako eta Eskoriatzako kasuan, lehenengo urtea denez, udaletxean egin beharko da.

Denek tarifa berbera dute: bost orduko egonaldia, 135 euro hilean; zortzikoa, 180; aukeran dago eguneko zein tartetan egin egonaldia. Denetan antzeko zerbitzuak dituzte: ikasgela, psikomotrizitate baliabideak (koltxonetak…), logelak, sukaldea, umeak aldatzeko behar dena…

**HAURRESKOLA BERRIAK**

Eskoriatzako zein Bergarako haurreskolak datorren ikasturtean zabalduko dira, eta oraindik hainbat ezaugarri zehazteko dituzte.

Hala, Eskoriatzako haurreskolako lanak egiten ari dira egunotan. Interesa hasieratik zegoen, Eusko Jaurlaritzak Haurreskolen araua onartu zuenetik, alegia; baina lekua topatzeak luze jo zuen. Azkenean, Gaztainaduin egongo da, frontoi inguruan. Gainerako aurreikuspenak dira lau ikasgela izango dituela, baina hasieran bakarra zabalduko dutela. Falta diren ezaugarriak ez dira zehaztu partzuergoa arduratzen delako zuzenean horietaz guztietaz.

Bergaran ere antzeko arazoa izan dute, lekua aurkitzearena, hain zuzen. Horrez gain, ikastetxe publikoko Agorrosin Guraso Elkarteak eta Udalak hilabete askotan jardun dute elkarrizketan, azkenean partzuergoari eskaera egin eta proiektua aurrera atera den arte. Haurreskola horrek lau ikasgela izango ditu eta 55 umerendako lekua.

Bai Bergaran, bai Eskoriatzan, gurasoen eskaera handiak

MATRIKULAZIOA

### Urte osoan, hiru matrikulazio epe

Partzuergoko haurreskoletan matrikula egiteko epea zabalik dago maiatzaren 12ra bitartean. Hala ere, ikasturtean zehar beste bi epe zabaltzen dituzte, irailean eta urtarrilean, 0-1 tartea ez delako betetzen. Hala, irailean izena eman daiteke oraindik lekua duten haurreskoletan; eta urtarrilean berriro ere, umea martxoan has dadin. Kontuan izan behar da haurreskolan sartzeko baldintza bakarra dela umeak 16 aste beteta edukitzea.

ION LEIHOAK
P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA
• LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK • ZOLUAK
K21 KALITATEA


20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35** Faxa: **943 77 31 20**
01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**
**Posta elektronikoa: ion.a.@euskalnet.net • www.ventaion.com**



te haurreskolek. Argazkian, Oñatiko haurreskolako umeak eta hezitzaile bat gela horretan. L.K.

**Nagore Narbaiza** > Hezkuntza teknikaria - Bergara

## "Guraso elkarteak ekimen eta parte-hartze handia izan ditu proiektuan"

**L.K.** > BERGARA

**Bergarako Udal Hezkuntza teknikaria da Nagore Narbaiza. Hura ibili da Haurreskola partzuergoarekin elkarlanean Udalaren izenean.**



L.K.

**Zelakoa izango da Bergarako haurreskola?**

Aurreikuspenekin gabiltza, gero-ra finkatuko dira; oraingoz, lau ikasgela eta psikomotrizitate gela bat aurreikusten dira.

**Zeintzuk dira Bergarako haurreskolaren helburuak?**

Agorrosin guraso elkarteak ekimen eta parte-hartze handiak izan ditu. Euren eskaera zen hezkuntza proiektu integrala edukitzea sare publikoan, haurreskolako umeei aukera emateko gero herri eskolan matrikulatzeko.

**Luze jo du asmoa sortu zenetik gauzatu den arte?**

Bai, oso prozesu luzea izan da. Orain hiru urte izan zen haurreskola egiteko lehenengo asmoa, baina leku egokia aurkitzea zen arazoa. Azkenean, Martinez de Irala ikastetxean egongo da. Orain, Aranzadi ikastolak darabil eraikin hori, baina haurreskolarendako lekua libre geratuko da laster.

**Ibarreko beste haurreskolak bisitatu dituzue?**

Bai, Arrasaten, Oñatin eta Antzuolan egon gara. Zenbait gauza kontuan hartu ditugu, hala ere, lekuak eta aurrekontuak erabakiko dute.

ekarri du bi herriak partzuergoan sartzea. Bergarako Agorrosin Guraso Elkarteak arkitektoaren zirriborroak ikusi ditu, hobekuntzak proposatu ditu... "Eskola publikoaren aldekoak garenez, Bergaran haurtzaindegi publikoa egotea ezinbestekoa iruditzen zaigu", diote elkarte horretako ordezkariek. Eskoriatzan ere "eskaera handia" zegoela baieztatzen digu alkateak.

**HOBETZEN JOAN DEN ZERBITZUA**

Haurreskolak dira, oraindik orain, 0-2 tarteko umeak eskola sare publikoan sartzeko modu bakarra.

Udalek partzuergoan sartzeko eskaera egin eta gero, bere ardura da eraikin egoki bat prestatzea, instalazioak –sukaldea, komunak...– ipintzea eta mantenua eramatea. Beste lan guztiak –kudeaketa, finantzaketa, materiala ipintzea, langileak kontratatzea...– partzuergoak darama zuzenean. Horrez gain, partzuergoaren eskumena da ere lekuak adjudikatzea: hala, leku baino eskaera gehiago baldin badago, errenta baxuenei edo seme-alaba gehiago dituzten familiei ematen zaie lehentasuna.

Haurreskolak partzuergoko lehen 32 eskolak 2003ko abenduan zabaldu ziren, eta zifrek erakusten dute formula horren arrakasta: gaur egun, 114 eskola dituzte, eta datorren ikasturtean 20 ireki-ko dira, tartean Debagoieneko biak, eta laster Aramaiokoa. Guztira, EAEko 2.425 ume dabiltza haurreskoletan, hau da, eskaintzen diren plazen ia %80. Partzuergoko gerentearen, Maite Larrañagaren esanetan, "Jaurlaritzak finkatu zuen urtero mila plaza berri eskaintzea, eta orain arte bete egin da; datorren ikasturterako helburua da 4.000 plazara iristea, eta oraingoz, martxa onean gabiltza".

Debagoieneko hezitzaileen esanetan, orain arteko esperientzia oso ona da, bai umeekin, bai gurasoekin ere, eta denek azpimarratzen dute aita-amekin oso tratu ona dutela eta umeak ere gustura egoten direla.

Baldintzak hobetuz joan dira erabiltzaileendako zein langileendako. Hala, joan den abenduan, komenioa lortu zuten hezitzaileek; ordezkapen sindikala ere badute, eta hala, euren lan baldintzak hobetu egin dira. Bestalde, lokalak gero eta gehiago zaintzen dira, eta segurtasun eta bizigarritasun baldintzak ipintzen zaizkie.

**ARETXABALETAN, UDALAK**

Partzuergoko haurreskolez gain, beste umezaintza udal zerbitzu modalitate batzuk daude. Hala, Aretxabaletako haurtzaindegia udalak eramaten du, eta Pausoka enpresari esleitua dago. Han, 3 urtera bitarteko umeak hartzen dituzte. Aurten, adin tarte horretako 84 ume dauzkate.

## Ibarreko haurreskolak, herriz herri

| | LEKUAK | UMEAK ORAIN | GELAK | ORDUTEGIA | HEZITZAILEAK | TELEFONOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arrasate | 55 | 55 | 5 | 07:30-18:30 | 10 | 943 79 76 86 |
| Oñati | 21 | 14 | 2 | 07:30-18:30 | 2 | 943 71 64 05 |
| Elgeta | 10 | 6 | 1 | 08:30-18:30 | 2 | 675 70 70 15 |
| Antzuola | 21 | 11 | 2 (1 zabalik) | 07:30-18:00 | 3 | 943 78 60 15 |

Aramaio eskola egiten ari da; Aretxabaletan Pausoka haurreskola dago, Udalak kudeatuta, eta ez dago partzuergoan.





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA
5767 zenbakira
SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZa
smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA
Himnoak
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU
Herrikoia
Bagare I BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena I KODEA
1,2,3,4...Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu...Ansar I ANSAR
Hartu...Argentinarra I ARGEN
Hartu...Mexikarra I MEXIKO
Hartu...Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
LAU1 MUSKARIA AIZKORAK
NUKLEAR KALABERA1 EGUZKILORE3
SORGIN POPATIK KAPUTX

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

2001ean abiarazi zuten Mendeberri hezkuntza sistema Mondragon Unibertsitatean

Unibertsitateko zikloa "arrakastarekin" bukatu duela ikusita erabaki dute Heziketa Zikloetara ekartzea

**HEZKUNTZA** > MENDEBERRI

# Mendeberri aplikatzen hasiko dira ETEOko heziketa zikloetan

**UBANE MADERA** > OÑATI

Mendeberri hezkuntza sistemaren oinarria da ikasleei irakastea praktikaren bidez zenbait gaitasun lantzen. Bereziki lantzen dituzte komunikazioa, lidertza, talde-lana eta arazoen ebazpena. Lehen esandako moduan, 2001ean abiarazi zuten hori MUn eta ziklo hori bete eta sistemak ondo funtzionatzen duela ikusita erabaki dute orain ETEOko heziketa zikloetan ere aplikatzea. Hain justu ere, datorren ikasturtean hasiko dira Mendeberri aplikatzen, irailean, beraz. Hala adierazi digu ETEOko heziketa zikloen koordinatzaile Silbia Sarasolak. Hark zera gaineratu digu: "Eredu hori aurrera ateratzeko, garrantzi handia dute euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzen erabilerak, informazio-teknologiek edo gaitasun profesionalen garapenak".

Lanbide Heziketako ikasketak gaurkotu eta enpresen premia berrietara egokitzeko ETEO azken urteotan egiten dabilen ahaleginarekin bat egiten du Mendeberri aplikatzeko asmoak.

**100 LANKIDETZA HITZARMEN**

Izan ere, Silbia Sarasolak esan digun moduan, "kalitatezko prestakuntza eta gure heziketa-eskaintza egokitzeko premia lanmerkatuak eskatzen duen arabera uztartu nahi dugu". Hala, Heziketa Ziklo horien oinarrietako bat enpresek osatzen dute, bereziki MCCk: "ETEO bera enpresa kooperatiboa da, eta horregatik MCCko kiden laguntasuna jasotzen du. Baina ez hori bakarrik. Kooperatibekin ez ezik, eskualdeko beste enpresa batzuekin ere harreman onak dauzkagu. Gaur egun, ehun lankidetza hitzarmenetik gora ditugu sinatuta inguruko enpresekin".

**EMAKUMEAK GIDARITZAN**

Bestalde, heziketa zikloak albo batera utzita, ETEOtik jakinarazi digute eguenean, maiatzaren 11n, mahai-ingurua egingo dutela. Berba egingo dute kooperatiben zuzendaritza postuetan eta gobernu karguetan dauden emakumeen gainean. Hizlariak izango dira: Mirari Zilaurren (Lana kooperatibako lehendakaria); Nerea Atxotegi (Dikar kooperatibako pertsonal-burua eta Eroskiko lehendakaria) eta Adelaida Maidagan (CIMeko zuzendaria).

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak, halako etorkizuna



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

| lehen zikloa | Arrasate ikasmaila | Goierri ikasmaila |
|---|---|---|
| - Mekanikan Industri Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1., 2. eta 3. |
| - Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1. |
| - Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1. |
| - Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1. |
| - Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1. |
| - Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1. |
| - Telematikan Ingeniaritza Teknikoa | 1., 2. eta 3. | 1. |
| **bigarren zikloa** | | |
| - Industri Ingeniaritza | 4. eta 5. | - |
| - Industri Antolakuntzan Ingeniaritza | 1. eta 2. | - |
| - Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza | 1. eta 2. | - |
| - Informatikan Ingeniaritza | 4. eta 5. | - |
| - Telekomunikazioetan Ingeniaritza | 4. eta 5. | - |

ate irekiak:
ARRASATE:
> maiatzak 25, 2.zikloa
> ekainak 10, Biteri Ikastetxe Nagusia
GOIERRI:
> maiatzak 11

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

| lehen zikloa | Oñati ikasmaila | Bidasoa ikasmaila |
|---|---|---|
| - Zuzendari Idazkaritza | 1., 2. eta 3. | |
| - Enpresa Zientziatan Diplomatura. Ibilbideak: - Nazioarteko Merkataritza - Enpresa Logistika eta Garraioa | | 1., 2. eta 3. |
| **ziklo luzea** | | |
| - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbideak: - Finantza Zuzendaritza - Merkataritza Zuzendaritza - Erakundeen Kudeaketa | 1., 2., 3., 4. eta 5. | |
| **bigarren zikloa** | | |
| - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbideak: - Finantza Zuzendaritza - Merkataritza Zuzendaritza - Erakundeen Kudeaketa | 3., 4. eta 5. | |
| - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbidea: - Enpresa Proiektuen Garapena | | 1. eta 2. |

ate irekiak:
OÑATI:
maiatzak 25
BIDASOA:
maiatzak 18
maiatzak 24, 2.zikloa

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA — Eskoriatza

lehen zikloa
- Irakaslea. Haur Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea. Hezkuntza Berezia Espezialitatea
- Irakaslea. Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea
- Irakaslea. Heziketa Fisikoa Espezialitatea
- Irakaslea. Entzumena eta Mintzaira Espezialitatea (2. diplomatura soilik)
- Irakaslea. Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura soilik)

ziklo luzea
- Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura

bigarren zikloa
- Psikopedagogian Lizentziatura. Ibilbideak:
  - Hizkuntzen Psikopedagogia. *On line eta aldika bertaratzekoa*
  - Esku-Hartze Psikopedagogia. *On line eta aldika bertaratzekoa*
- Giza Zientziak Lizentziatura. Ibilbideak:
  - Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari Aplikatuta

ate irekiak:
maiatzak 18

inskripzio epea zabalik

943 71 21 85 www.mondragon.edu

**EKONOMIA** > KUTXA BERRIA ARRASATEN

## Caja de Ahorros de Navarrak bulegoa irekiko du Arrasaten

Garibai etorbidean ipiniko dute bulegoa; Gipuzkoan 10 bulego zabalduko dituzte

**U.M.** > ARRASATE

Apirilaren 20an hasi zen Caja de Ahorros de Navarra bere negozioa Euskal Autonomia Erkidegoan zabaltzeko egitasmoarekin. 2005-2008 bitartean egingo du hori. Nafarroako kutxa horren asmoa da 50 bulego zabaltzea. Horretarako 60 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute. 12 bulego 2006an zabalduko dituzte.

Dagoeneko 23 bulego eskuratu ditu CANk gure erkidegoan.

**GIPUZKOAKOAK**

Probintziaka banatuta, Gipuzkoan zabalduko dute bulego gehien: 10: Donostian sei eta gainerakoak Arrasaten, Errenterian, Hondarribian eta Tolosan.




> HERRI URRATSA

### Maiatzaren 10era arteko epea zabaldu dute Herri Urratsera joateko autobusetarako txartelak erosteko

Maiatzaren 14an ospatuko dute Herri Urrats, Senperen. Hala, Debagunetik, Debagoieneko euskara elkarteen elkargotik, autobusak antolatu dituzte festa horretara joateko. Autobusak aterako dira Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergaratik. Prezioa da zazpi euro euskara elkarteko bazkideendako eta hamar euro gainerakoendako. Txartelak eskuratzeko jo beharra dago esandako herrietako euskara elkarteetara. Informazio gehiago nahi izanez gero: 943 76 36 61.

Musika eta kultura ekitaldiak dira oinarri Senpereko festan. Besteak beste, aurten, Canta u Populu Corsu taldea ekarriko dute Korsikatik eta Kili Kolo zirkua izango da.

> KOOPERATIBAK

## MCCk kontzertua eskainiko du gizartea eskertzeko

Gaur, maiatzak 5, izango da kontzertua, 20:00etan, Bilboko Euskalduna jauregian. MCCk 50 urte hauetan erakunde publiko, enpresa eta finantza erakunde, kultura eta hezkuntza elkarte, komunikabide, bezero, hornitzaile eta oro har gizartetik jaso duen babesa eskertu nahi du kontzertu horrekin; eta guztien ordezkariak espero dituzte Bilbon. Donostiako Orfeoiak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak jardungo dute.

> AUTOBIDEA

## Aralarrek eskatu du AP-1eko lanak ikuskatzeko baimena

Aralarrek proposatu dio Gipuzkoako Batzar Nagusien Bide Azpiegituretarako batzordeari AP-1 autobideko lanak ikuskatzera joateko. Arlaban-Eskoriatza zatian lanek eragindako liskarrak argitze aldera egin nahi dute bisita, Eskoriatzako Udaleko, Bidegiko eta kaltetuen batzordeko ordezkariek lagunduta. Debagoieneko Aralarrek esan du denen iritzia behar dela, denon diruarekin eraikiko den autobide eredugarria izateko.

> LANUZTEAK

## Ordubeteko lanuzteak egiten hasi dira Aita Mennin asteon

Arrasateko Aita Menni Ospitale Psikiatrikoko zuzendaritza eta langileak lan hitzarmena negoziatu ezinean dabiltza. Zuzendaritzak ospitaleko lanaren gogortasuna kontuan izan dezan nahi dute langileek. Horrela, lanaldi murrizketa eskatu dute, baita soldata igoera ere. Gatazkak iraun artean, lanuzteak egingo dituzte egunero, 14:30etik 15:30era. Hain zuzen ere, martitzenean egin zuten lehen lanuztea.

> GARRAIOA

## Ibilgailu astunei asteburuetan ibiltzeko debekua arindu diete

Herrizaingo Sailak asteburuetan eta jaiegunetan ibilgailu astunek zirkulatzeko duten debekua pixka bat arintzea proposatu die Foru Aldundiei. Horretarako, igarobideak irekiko dituzte aldi berako, baina Frantziarekiko loturetan debekuari eutsiko diote. Bestalde, ibilgailu astunen zirkulazioa debekatuko dute oporretako irteera eta itzulera operazioetan, asteburuetan edo zubietan ordu eta errepide zehatzetan.

**HUHEZI** > HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK, 30 URTE

# HUHEZIk 30 urte bete ditu, dekano berria aukeratzeko prozesuan dabilela

Aukeraketa prozesua bukatzear dago, eta maiatzean jakingo da zein den dekano berria

Ospakizun berezien ordez, eguneroko jardunean gogoratuko dira 30 urteak




**TITULAZIOAK** HUHEZIk 15 titulazio eskaintzen ditu; iaz geroztik, Psikopedagogia ere bai. Irudian, titulu banaketa. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 30 urte bete ditu, eta urteurren hori bat dator dekano berriaren aukeraketa prozesuarekin. Hala, dekano berria dutela ospatuko du fakultateak urtemuga borobil hori.

Horrez gain, ordea, ez dute ospakizun berezirik egingo, HUHEZIko Humanitate-Enpresa lizentziako zuzendariak, Juanjo Otañok, dioskun bezala: "Ekintza berezirik ez dugu egingo. Ikasturtearekin normal jarraituko dugu, eguneroko jarduna egiten".

Otañoren esanetan, HUHEZIren historiak berez ematen du nahiko testigantza, eta urte horietan sortutako aukerek: besteak beste, eskaintzen diren 15 titulazioak, lau masterrak eta lau aditu tituluak; Literatura Astea, *Jakingarriak* aldizkaria, oraintsu urteurrena ere izan duena; Mendeberri kurtsoak, eta urtean zehar egoten diren beste ikastaro eta formazio aukerak.

Eskaintza horietako bat maiatzaren 9an, martitzena, izango da; izan ere, egun horretan, Ignasi Vila psikologo katalanak bi hitzaldi egingo ditu HUHEZIn, *Etorkinak eskolan eta hezkuntza kalitatea* izenburuarekin. Europako psikolinguistarik ezagunenetakoa da, eta aditu ospetsua elebitasunaren inguruan.

**MUGARRIAK**

HUHEZI fakultatea Irakasle Eskola moduan sortu zen 1976. urtean Eskoriatzan, eta bere helburua zen euskarazko irakaskuntza irakaslez hornitzea. 1978. urtean eman zion Hezkuntza Ministerioak onarpen ofiziala.

Handik aurrera, hainbat mugarri garrantzitsu izan ditu: adibidez, 1979an lehen irakasle promozioa irten zen, 39 diplomadun; 1985ean, ikasleen birgaitze programa hasi zen, eta *Jakingarriak* aldizkaria sortu zen; 1990ean, funtzionarioendako euskara ikastaroak antolatu zituen; 1996an, Hezkuntza Berezia espezialitatea sortu zen…

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen 1997an, MUren barnean; 2000n, Psikopedagogia lizentzia sortu zen; 2003an, Mendeberri proiektua; eta iaz, Ikus-entzunezko komunikazio ikasketa sortu zen.

FAGOR

FAGOR ARRASATE KOOP. E.

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**
**DEIALDIA**

**DATA:** 2006ko maiatzaren 12an, ostiralean.
**ORDUA:** 15:00etan lehenengo deialdian eta 15:30ean bigarrenean.
**TOKIA:** Gesalibarko Aita Menni Gaixotegiaren batzar aretoan, Arrasaten.

**EGUNEKO AZTERGAIAK**
1 – Aktak onartzeari buruzko informe eta erabakia.
2 – Memoria irakurtzea eta onartzea.
  2.1 – 2005eko gestioari buruzko akordioa.
  2.2 – 2006ko Gestio Plana onartzea.
3 – Xafla deformazioko sektore taldekapenari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4 – 2005eko kontu eta balantzeak aztertzea.
5 – 2005eko emaitzen banaketa.
6 – Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7 – Kooperatibaren Estatutu Sozialaren 5. artikulua aldatzea.
8 – Kooperatibaren Barne Erregelamenduaren 37-lau artikulua aldatzea.
9 – Kooperatibaren Barne Erregelamenduaren 68-sei artikulua aplikatzea.
10 – Entitateen gaiak:
  10.1 – MCC.
  10.2 – Lan Kide Aurrezkia.
  10.3 – Lagun-Aro.
11 – Gamei SA erosteko proposamena.
12 – Mondragon Industriarako Automatizazioa, Koop. Elk. dibisio berriaren osaketa.
13 – Kontseilu Soziala berritzea.
14 – Fagorreko Batzar Orokorrerako ordezkariak hautatzea.
15 – Eskariak eta itaunak..

Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

Arrasate, 2006ko maiatza
Fagor Arrasateko lehendakaria

ULMA

ULMA Manutención, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I A

Eguna: 2006ko maiatzaren 12a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: Oñatiko Santa Ana Antzokia

GAI ZERRENDA
1. AURREKO AKTAK ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2005EKO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2006KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2005EKO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. AUDITORETZA ERAKUNDEA IZENDATZEA
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEKO FONDOEN (H.K.S.F) ERABILERA
7. EKONOMIA ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
8. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK
9. ESTATUTU SOZIALETAKO 31-Bi n), 56-Bi ETA 64-Bi d) ARTIKULUAK ALDATZEA ETA LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA GEHITZEA
10. MENDEKO EKARPEN FINANTZARIOEN JAULKIPENA
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINTZA BATZORDEKO KIDE BAT BERRITZEA
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
14. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2006ko maiatza

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko aldaketen testua eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

**KONTSUMOA** > ENERGIAREN ARRAZOIZKO KONTSUMOAREN ALDE

# Bergarako hiru eraikinen kontsumoa aztertuko du Energiaren Erakundeak

Mizpirualdeko, kiroldegiko eta udaletxeko argi eta gas kontsumoa aztertuko dute, txikitzeko

Europako proiektu baten sartzen da esperientzia eta Gipuzkoako herri bakarra da Bergara

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergarako hiru udal eraikinen energia kontsumoaren jarraipena egingo du Energiaren Euskal Erakundeak. Mizpirualde zaharren egoitza, kiroldegia eta udaletxea dira hiru eraikinak eta horietan kontsumitzen den argia eta gasa kontrolatuko du epe batez aipatutako erakundeak. Energia arrazoiz kontsumitzea da helburua.

EnerIn Town izeneko Europako proiektu bat da hori eta Euskal Autonomia Erkidegoan lau herritan aplikatuko dute: Bizkaiko bitan, Arabako baten eta Gipuzkoako beste baten, Bergaran, hain justu ere.

**EEE-K ETA UDALAK AKORDIOA**

Energiaren Euskal Erakundearekin batera burutuko dute proiektua. Bergarako Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak sinatu dute dagoeneko akordioa eta helburua da energia zentzuz, arrazoiz, kontsumitzea. Horretarako, kontrolatu eta aztertu egingo dute lehenengo hiru eraikin horien argi eta gas erabilera eta gero, kontsumoa nola txikitu ikusiko dute, eta beharra ikusiz gero, energia gutxiago kontsumitzeko bideak hartuko dituzte elkarrekin.

**DATUAK INTERNET BIDEZ**

Igor Oiarbide Bergarako Udaleko Ingurumen zinegotziak esan digun moduan, "kontsumoaren datuak jasotzeko bi kontadore digital jarriko dituzte aipatu erakinetan, bat argi kontsumoarendako eta bestea gas kontsumoarendako . Aparailu horiek minutu oro jakingo dute zenbat energia ari den kontsumitzen eraikin bakoitza eta datu horiek Energiaren Euskal Erakundera bidaliko dituzte zuzenean, Internet bidez". "Kontadoreez gain, softwareak ere jarriko dituzte eta horiek egingo dituzten grafikoetan ere agertuko dira kontsumoaren gorabeherak", jarraitu du Oiarbidek.

Oraindik zehaztu ez duten epe jakin batez egingo dute energiaren kontrol hori. Epea pasa ostean, "datuak aztertuko ditugu eta plan bat jarriko dugu martxan energiaren arrazoizko erabilera bultzatzeko", zehaztu du Igor Oiarbidek.

**ENERGIA KUDEATZAILEA**

Europako proiektu horren azpiegituraren gastuak Energiaren Euskal Erakundeak ordainduko ditu, Oiarbideren esanetan. Udalak, berriz, proiektua aurrera eramateko konpromisoa hartu du. Horrekin batera, energia kudeatzaile bat jarriko du proiektuarekin lan egiteko. Kudeatzaile horrek 20 orduko ikastaroa egingo du, azpiegiturak ezagutzeko eta datuen bilketa nola jarraitu eta zaindu ikasteko.

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDE**

Bergarako Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak beste akordio batzuk ere sinatu dituzte energiari lotuta: eraikin batzuetan eguzki plakak jartzeko hitzarmena eta gaueko argi kontsumoa aztertzea, adibidez. Energia berriztagarriekin kontzientzia handia duelako aukeratu du Energiaren Euskal Erakundeak Bergara proiektu hori aurrera eramateko. 2010. urterako, energia eskaeraren %12, gutxienez, energia berriztagarriek eskaintzea da erakundeen helburua.




OXEL ARRIETA

**Hilabeteotako auto ilarak arindu dira Epele-Kaskonategi zabaldu zenetik**

Epele-Kaskonategi errepide zatia zabaldu dute, eta Arrasatera joateko azken hilabeteotan goizero sortzen ziren auto ilarak arindu egin dira. Eta Epeleko biribilgune inguruan sortzen ziren auto ilarak ere gutxitu dira. Lau bide ditu Epele-Kaskonategi errepide zati horrek, bi noranzko bakoitzean. Joan den astean, esaterako, ordubete behar izan zuten Oñatitik Arrasatera joateko goizeko lehen orduan, eta aste honetan hamabost minutuan iritsi dira. Azken lanak egiten dihardute Epeleko biribilgunean eta datorren astean inauguratuko dute zati berria.

**HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA**
Urtebete bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO EFEKTIBOA SENDOTZEKO
- IMMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3, 2-3. atea
EGUNAK
Maiatzak 17, 24, 31 eta ekainak 7 eta 14.
ORDUA
10:30etik 12:00etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTROAN
943 77 08 05



Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

ITVRRIETA
Sagardotegia – Erretegia



- Sagardotegiko menu bereziak
- Karta
- Kazuelatxoak

Ostegunetik igandera zabalik
(gainerako egunetan aurrez deituta)
Arraga auzoa
605 70 64 51 / 945 44 53 85

BERGARA PIEL
Denboraldi bukaerako likidazioak
%50 erainoko deskontuak
Espoloia 6 Bergara

## gure artekoak

**ARITU** > Aretxabaletako Basabe poligonoan du egoitza Aritu kooperatibak. Informatika eta mekanika alorretan jarduten dute hamar lagunek lan tresnarik aurreratuenekin.

Josu Unamuno

# "Gastronomia elkarteendako programa garatu dugu"

**I. AGIRREAZALDEGI** > ARETXABALETA

**Aurrez beste enpresa batean jardundako hainbat langilek sortu zuten 1994an Aritu kooperatiba. Ordenagailu bidezko delineazio proiektuekin hasi eta gaur egun ingeniaritza mekanikoa eta informatika dira euren jardun nagusiak.**


Arituko langile batzuk Aretxabaletako bulegoan. Josu Unamuno, zutik. I.A.

**Zer eskaintzen diezue zuen bezeroei?**

Ingeniaritza mekanikoari dagokionez, proiektuak egiten ditugu hiru dimentsiotako softwareak erabiliz; automoziorako batez ere. Informatikan, berriz, aplikazio bereziak egiten ditugu bezeroaren neurrira.

**Zein dira zuen bezeroak?**

Inguruko kooperatibekin egiten dugu lan, batez ere. Gehienbat Internet bidezko aplikazioak egiten ditugu. Horrek ahalbidetzen du munduko edozein tokitatik aplikazio hori erabiltzea. Mekanika arloan zerbitzuak eskaintzen ditugu automoziorako eta aeronautikarako.

**Elkarteendako programaren bat ere garatu duzue, ezta?**

Bai, Elkargest programa elkarte gastronomikoak gestionatzeko programa da; erabiltzeko erraza. Bazkideek egindako kontsumoa ordenagailuan apuntatzen da zuzenean. Azkenaldian ukimen-pantaila erabiltzen dugu. Guztira, 65 elkartetan ipini dugu; ibarreko herririk gehienetan, EAEn eta Nafarroan. Antzerako programaren bat badago, baina gazteleraz bakarrik. Hala ere, gertatu zaigu elkarteren batek hori aukeratzea, merkeagoa delako.

**Etorkizunerako asmorik?**

Enpresa haztea eta negozio arlo gehiago zabaltzea. Produktuak baino gehiago zerbitzuak eskaintzen ditugunez, bezeroekiko arretari garrantzia ematen jarraitu nahi dugu.

FITXA TEKNIKOA

**> LANGILEAK**
Kooperatiban hamar langilek dihardute; horietatik zortzi bazkideak dira.

**> INTERNET**
*www.aritu.com* helbidean aurki daiteke enpresaren gaineko informazioa.

**> ELKARGEST**
Elkarte gastronomikoak kudeatzeko programa garatu eta 65 elkartetan ipini dute, bakoitzaren funtzionamendura egokituta.

## etxeko leihotik


**Julen Iriondo** > GOITBko albistegietako arduraduna

# Soraluzekoen parranda hobe, Elgoibarkoa baino

Ume ginela egin genuen promesa: "Erretzen duena koadrilatik kanpora!". Noski, denborarekin gauzak aldatu egiten dira: 16-17 urterekin –edo lehenago– zigarrorik probatu ez duena bihurtzen da arraro. Aurrena probatu, eta gero kasu askotan gainetik kendu nahi baina ezinezko zama bilakatu. Autobidean sartuta ere horixe gertatzen da: kontrako norabidea hartuta ezin berehala bueltа hartu, eta litekeena urrun egotea hurrengo irteera.

Agian, aurreko batean Elgoibarko kaleetan parrandan ikusi genituen gazte horietako batzuek ez dute itzulbiderik erraz aurkituko euren zentzugabeko joanean. Ziur naiz zapaturo han biltzen diren askok korronteari, modari segika bihurtu dutela hura euren parranda eredu perfektua.

**"Autobidean bezala: kontrako norabidea hartuz gero, ezin gero buelta hartu"**

Gertatu ohi da, gainera, eredu batzuk hobesteaz gain, beste batzuk gutxiestea. Zigarrorik probatu ez duena moduan arraro bihurtzen da baita ere diskoteka-doinuak baino erromeria nahiago duen gaztea. Honegatik, eskertzekoak dira betiko parranda ereduak mantentzeko ahaleginean egiten diren ekimenak; Bergarako *Munibe plazara dantzara!*, esaterako.

**> Pena eman zidan**
**Elgoibarko kaleetan hainbat neska-mutiko ikusteak egoera eskasean; pena, uste dudalako kasu askotan zurrunbiloak harrapatutakoak izango zirela, nora daramatzan jakin gabe.**

**> Poza eman zidan**
**aurreko zapatuan Oñatin, Dantzari Eguna ospatu ostean, goizaldeko ordu txikietan ere Soraluzeko gazteak tabernen kanpoaldean soinu-jotzen eta dantzan ikusteak, giro alaian.**

## begi-bistan



**Tximeleta mendian (Txindoki)**
**2006/04/30**

**Argazkia:** Josu Juaristi.
**Testua:** Irati Agirreazaldegi.

Zubia eta eguraldi ona aprobetxatuz Txindokira egin du irakurle horrek txangoa; eta honako argazkia atera du. Bidea konpontzen ari badira ere, bazterretan aurkitzen da gauza politik.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Alberto Urretxo**
MUSIKARIA

Tronboi-jotzaile arrasatearrak Juan Carlos Perezen *Hiriko historioak* lan berrian hartu du parte. Urretxo Bilbao Orkestra Sinfonikoko kide da. Perez jazz, soul eta free generoetara gerturatu da azken lanean, haize-instrumentuen laguntza erabilita.



**Izaskun Moiua**
EMAKUNDEKO ZUZENDARIA

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako NARO Gunea aurkeztuko dute maiatzaren 8an. Ekitaldiak hilaren 8tik 26ra bitartean egingo dituzte. EAEko 17 herri eta hiritan. Ekimenok aurkeztuko ditu Izaskun Moiua Emakundeko zuzendari oñatiarrak.



**Markel Irizar**
TXIRRINDULARIA

Maiatzaren 6an hasiko da Seraing herrian Italiako Giroa. Han egongo da Euskaltel-Euskadi taldeko Markel Irizar oñatiarra, Roberto Laiseka, David Lopez, Iker Flores, Koldo Fernandez de Larrea, Beñat Albizuri, Iban Mayoz, Andoni Aranaga eta Antton Luengorekin.

10.500 langile ditu eta horietatik 3.400 dira bazkideak. Egoera horri buelta ematea ere aurreikusi dute Fagor Etxetresnek, 2006-2009 urte bitarterako egin duten plan estrategikoaren barruan. Errentagarritasuna, berrikuntza eta enplegu iraunkorrak dira plan estrategiko horren oinarriak.

**Jabier Gantxegi** > Fagor Etxetresnetako presidentea
**Txema Gisasola**> Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusia

# "Etxetresnen sektorea gogorra da, baina Fagor ez dago krisian"




OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**Brandt enpresa erosteak aldaketa ugari ekarri ditu Fagor Etxetresnetara. Iazko datuak aurrekoak baino okerragoak dira. Batak bestea ekarri duela da askoren susmoa, eta hori argitu dute, besteak beste, presidenteak eta zuzendari nagusiak.**

**Fagor Etxetresnak krisian daudela entzuten da. Egia da?**

Txema Gisasola (T.G.): Krisialdirik ez dago. Gure sektoreko ekoizleak inbertitzen ari dira azken hiru urte hauetan irabazten dutenaren bikoitza. Horrek esan gura du etxetresnen sektorean birmoldaketa gertatzen ari dela Europan, baita banatzaileetan. Ekoizleen kontzentrazioa ere badago. Horrek guztiak produktuen prezioak jaisten ditu eta margen gordina txikitu. Horixe gertatu da 2005ean, baina 10 urtean izan den lehen urte pattala izan da. Enpresa ikusita, negozio aldetik, gu ez gaude krisian, baina egia da sektorea gogorra dela. Agian sektorea bera da krisi txikian dagoena, ez gu soilik.

Jabier Gantxegi (J.G.): Sektore oso gogorra da, oso lehiakorra. Petrolioak, burdinak, nikelak eta kobreak gora egin dute 2005ean, eta etxetresnen salmenten prezioak behera. Hori dela eta, Brandt erostea erabaki genuen joan den urtean, ikusi genuelako enpresaren tamaina inportantea zela lehiakortasuna irabazteko.

**Brandt erosteak izan du zerikusirik krisian?**

T.G.: Ez, ez du zerikusirik 2005eko emaitzekin; Brandt-ek ekarri ditu Fagor Etxetresnetara aurreikusitakoa baino lau milioi euro gehiago. Duela 9 hilabete erosi genuen eta ez dugu inolako sustorik hartu.

J.G.: Brandt erosi, integratu eta plana aurrera eramatea mugimendu handia izan da eta normala da jendea jakin-minez egotea, urduri.

**Zergatik egon dira iaz baino irabazi gutxiago?**

T.G.: Produktuen prezioak jaitsi egin dira eta margen gordina 60 milioi euro gutxiago izan da. Barruko kudeaketan gauza batzuk hobetu egin ditugu, eta eskerrak, bestela, oso urte txarra izango zen-eta.

J.G.: Garbigailu bat 360 euro edo 365 euro ordaindu ez da horrenbesterako eroslearendako, baina guretako, salmenten prezioaren puntu bat 20 milioi euro dira. Adibidez, gure produktu hotzen salmenten prezioak %4 egin zuen behera 2005ean, eta materialek %8 gora. Gure sektorean kostuak gora doaz, baina prezio horiek ezin ditugu merkatuan jarri.

**Egia da lan gutxiago dagoela? Ze arlotan? Zenbat? Zergatik?**

J.G.: Egia da. Bi arrazoi daude: batetik, gorabeherak egoten dira urtean zehar. Adibidez, produktu hotzetan behera egiten dute lanpostuek neguan eta gora udaberrian eta udan. Beste sektoreetan, stocka izan daiteke arrazoia. Orain ere berdin gertatu da produktu hotzetako lanpostuetan. Bestetik, errentagarritasunik ez zuten produktu batzuk ez egitea erabaki dugu. 250 lanpostu inguru izango ziren guztira.

**Arriskuan daude lanpostu gehiago?**

J.G.: Iaz birmoldaketak egin genituen ontzi garbigailuetan eta labeetan eta oraintxe ari gara fase berriko lehen garbigailuak, zortzi kilokoak, egiten eta merkaturatzen. Hiru produktu horietan lanpostuek gora egingo duten esperantza dut nik. Bestalde, gure plan estrategiko berrian ikusten da etxetresnetan lanpostu batzuk galduko ditugula, baina aktibitate berriekin beste lanpostu batzuk sortuko ditugula.

T.G.: Egin beharrekoa eginda dago Euskal Herrian, Arrasaten. Hemendik aurrera, gehitu egingo dira lanpostu zuzenak. Batetik, produkzioak ordenatu behar ditugu eta bestetik sinergiak. Aktibitate berrietan 413 pertsona inguru egongo dira gutxi gorabehera 2009an eta orain 126 inguru daude.

**Produktu berriak egiteko sortuko dira lanpostu horiek?**

J.G.: Produktu eta negozio berrietan, etxetresnetatik kanpo horietako batzuk.

**Mongelosen tokia hartu du orain Gisasolak. Gauzak konpontzeko izan da aldaketa?**

J.G.: Oraingo plan estrategikoak oinarria du Brandt etxearen erosketan. Mongelos izan da erosketaren eta ondorengo planaren diseinuaren buru. Gisasola ere hasieratik egon da proiektu horretan eta Mongelosek bezain ondo ezagutzen du. Taldea,

**JABIER GANTXEGI**

LANPOSTUAK
**"Egia da gutxitu egin direla, baina aktibitate berriekin lanpostuak gehituko ditugu"**

BRANDT
**"Brandt erosi genuen tamaina inportantea zuelako, lehiakortasuna irabazteko"**

ETORKIZUNA
**"Kooperatibistak izatea abantaila da eta jabe sentitzen bagara, etorkizuna dugu"**

**TXEMA GISASOLA**

KRISIA
**"10 urtean izan den lehen urte pattala izan da 2005a; gure negozioa ez dago krisian"**

MONGELOS
**"Asko ezagutzen dut, elkarrekin egin dugu lan eta oso estratega eta kudeatzaile ona da"**

DESLOKALIZAZIOA
**"Inbertsioak egin eta enpresa bat erosi dugu; deslokalizazioaren bidea ez dugu jarraitu"**

ekipoa, ez dugu batere aldatu eta pertsona egokiena Txema zela ikusi genuen. Pertsonek etapak betetzen dituzte eta MCC barruan normalak dira horrelako mugimenduak; Catania eta Gomez Acedo ere Mongelos bezalaxe joan ziren.

**Zer iritzi jaso duzue langileengandik egoerari buruz?**

J.G.: Brandt erosi genuenetik aldatu egin dira gauzak, lan gehiago dago eta egituran moldaketa batzuk egon dira. Egonezina, itxaropena, sortu ditu horrek guztiak, baina egoera berrira moldatu behar dugu. Irakite prozesuan gaude orain, baina finkatzen joango gara poliki-poliki.

T.G.: Aldaketa prozesuan gaude. Pertsonala bikoiztu egin da orain, fakturazioa bikoiztu dugu, merkatua bikoiztu dugu eta baita produkzioa ere. Baina informazioa ez da hemengoa eta Frantziakoa batzea, konplexuagoa da askoz. Formazioa ere behar da eta kopuruak ere oso garrantzitsuak dira aldaketa honekin. Denok egokitu behar dugu aldaketara eta egokitze prozesua urte txarrari lotuz gero, antsietatea sor daiteke. Brandt-en tamainagatik, digestio latza izango da, baina momentu honetan behar ez duguna horixe da, antsietatea.

**Arduratuta daudenei, zer esango zenieke?**

T.G.: Lasai egoteko. Konpetentzia handia da, merkatua zaila, sektorea gogorra, baina nork bere lanpostutik lagun dezake helburua lortzen, errentagarritasuna lortzen, alegia, enpleguak sortzeko.

J.G.: Kooperatibista izatea abantaila lehiakorra dela uste dut eta bazkide guztiok jabe sentitzen bagara eta ados jartzen bagara, badugu etorkizuna.

**Espainiako lider dira Fagor Etxetresnak, baina lehiakideak oso gertu ditu. Deslokalizazioa da oztopoa?**

T.G.: Gure lehiakideek arma indartsu moduan ari dira erabiltzen deslokalizazioa. Baina epe motzeko abantaila da hori. Guk ezin dugu bide hori jarraitu, uste dugulako ez dela bide zuzena eta, bestetik, ezin dugulako, konpromisoa dugulako gure bazkideekin enplegua mantentzeko. Iaz 15 milioi euro inbertitu genituen labeetan, beste horrenbeste garbigailuetan eta duela bi 18 milioi euro ontzi garbigailuetan. Inbertitzeak eta beste enpresa bat erosteak ez du zentzurik deslokalizazioarekin. Guk, orokorrean, ez dugu jarrera hori. Egia da Polonian, Marokon eta Txinan ere baditugula enpresak, baina merkatua erostera joan ginen Polonia eta Marokora, ez eskulana merkatzeko helburuarekin.

**Zeintzuk dira plan estrategikoaren oinarriak?**

T.G.: 2006-2009 urte bitarteko plan estrategiko horrek zazpi aktibitate berri izango ditu eta hiru arlo nagusi: arlo orokorra, zein bide hartu behar dugun : espezialistak izan behar dugu eta gama altuko produktuak egin. Beste biak dira plan industriala eta sinergiak.



OIHANA ELORTZA

**Txema Gisasola** > Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusia

# "Enpresa handia delako seguru daude asko, baina segurtasuna lanak dakar"

**O.E.** > ARRASATE

**Zumarragan jaio zen eta Seguran bizi da. Psikologia Industriala ikasi zuen EHUn. 44 urte ditu eta 20 daramatza Fagorren. Fagor Etxetresnak taldea osatzen lagundu zuen. Hango zuzendari nagusi izateaz gain, MCCko etxetresnen saileko presidenteorde ere bada.**

**Zuk izango duzu plan estrategiko berriaren ardura. Zeri diozu beldurra?**

2005ean pasatu dena berriro pasatzeari diot beldurra: guk aukerarik ez izatea gure kostuak merkatuan jartzeko, gure produktuen prezioa jaistea. Horixe ez gertatzea izango da nire ardura nagusia. Badaude aukerak hori gertatzeko, baina badugu baliabideak eta pertsonak, eta ez alde ez kontrako haizerik jotzen ez badu, lortuko dugu.

**Zein izango da helburu nagusia?**

Errentagarritasuna. Helburua da lanpostuak mantendu eta, ahal bada, sortu, eta hori gertatzeko errentagarritasuna lortu behar dugu.

**Eta hori lortzeko, zein da Fagorren indarra eta zein ahultasuna?**

Gauza onak ditugu; teknologia, adibidez. Baina nik esango nuke pertsonak direla Fagorren indarra. Ahultasuna, berriz, susmoa dut jendearen segurtasuna dela ahultasun nagusia. Eskualde honetan, batez ere, jendeak uste du enpresa handia dela Fagor eta inoiz ez dela ezer pasatuko, seguru sentitzen da. Euskal Herrian eta Espainian handiak gara, baina munduan? Segurtasuna irabazi egin behar dugu, lan egin behar da horretarako. Argi ibili behar dugu guztiok.

**Zergatik egiten duzu apustu berrikuntzaren alde?**

Enplegu iraunkorrak sortzeko irteera bakarra berrikuntza delako. Balio erantsi handiagoko produktuak egingo ditugu berrikuntzaren alde eginez gero.

**Ze egitura dute Fagor Etxetresnek?**

Une honetan hiru etxe-merkatu ditu: Espainian eta Portugalen, Iberian, Fagor merkaturatzen dugu eta handik beste toki batzuetara banatzen dugu; Frantzian Brandt etxea dugu eta handik beste merkatu batzuetara eramaten dugu; Polonian eta beste merkatu batzuetan, Mastercook daukagu.

**Zenbat etxetresna merkaturatzen dituzue egunean?**

Urtean zortzi milioi aparailu. Munduan zehar 16 lantegi ditugu, 12 marka komertzial, 17 filial komertzial eta 10.500 langile, eta horietatik 3.400 bazkideak dira. Europako bosgarrenak gara eta liderrak gara Europako bost merkatu nagusietako bitan. Sektore honetan onenetakoek salmenten gaineko %3 irabazten dute; beste sektore batzuek. %10, adibidez. Margen txikia dugu eta oker txikienak ere kalte handiak ekar ditzake. Hankak lurrean izan behar ditugu, baina baikorrak izan behar dugu.

**Nola jarraitu duzu Pablo Mongelosen ibilbidea?**

Asko ezagutzen dut eta oso ona da estratega eta kudeatzaile moduan.

**"Ez dut beldurrik, baina 2005ean gertatu dena berriro ez gertatzea izango da nire ardura nagusia"**

**"Berrikuntza da enplegu iraunkorrak sortzeko irteera; helburua da errentagarritasuna"**

**"12 marka komertzial ditugu eta urtean zortzi milioi etxetresna merkaturatzen ditugu"**



O.E.



zabalik

Rufina Olasagasti

# Ameriketako Estatu Batuetatik iraultza

Atzenduta dago "iraultza" hitza gure artean, baina egun Euskal Herrian gizarte harreman berri batzuk asmatzeko bizi dugun egoera gogoan hartuz, interesgarria deritzat joan den astean hil zen Jean-François Revel-ek 1970.enean argitaratutako *Ni Marx ni Jesus* liburuan idatzia gogoratzeari. Ameriketako Estatu Batuetatik zabalduko zela iraultza mundu guztira, edo bestela inon ez zela lortuko uste zuen berak. Garai hartan ezaguna zen, polemika handia sortu zuelako planteamendu horrekin, eta baita lehia bizian zeudelako sistema kapitalista eta sistema sozialista.

Iraultza horren helburua izan behar zen: askatasun kulturalaz eta pertsonalaz jokatuz, berdintasun ekonomiko eta soziala onartzea mundu osoan, eta guztien artean osatutako antolaketa politikoaren bidez segurtasuna bermatzea. Komunitate bat bezala irudikatzen zuen mundu osoa, eta suntsipenetik libratzeko modu bakarra zeritzan.

**"Berak sumatutako zantzuak ez dira gailendu, eta zabalduz doa inperialismoa"**

**"Gauza izango gara elkarbizitzarako beste eredu bat asmatzeko?"**

Ondorio honetara iristeko, kontuan hartu zituen honako 5 baldintzak, derrigorrez bete beharrekoak bere ustez, iraultza batek suposatzen duen aldaketa sakona lortzeko: injustizia eta bidegabekeriaren gaitzespena; eraginkortasunik ezaren gaitzespena, baliabideak injustizia areagotzera bideratuak daudelako; aginte politikoaren kritika, herritarrek parte hartzeko dituzten aukeren arabera; kulturaren gaitzespena, batzuen agintea eta besteen mendekotasuna onartzera daraman heinean; lehengo zibilizazioaren kritika eta gizabanakoaren askatasunaren aldarrikapena.

AEBetan berak sumatutako zantzuak ez dira gailendu, eta zabalduz eta indartuz doa inperialismoa. Gurean, itxaropenez betetako aldaketa garaia bizi dugu. Gauza izango ote gara elkarbizitzarako beste eredu bat asmatzeko?

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

ERRENTA AITORPENA: AUTO-LIKIDAZIOAK

**Errenta aitorpena egiten ari banaiz, zelan jakin dezaket aldez aurretik auto-likidazio proposamenik bidali didaten? Lan guztia hartu eta gero etxean jaso behar badut...**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun departamenduak, Bergaran daukan bulegoan eman digute erantzuna: Errenta aitorpen mekanizatua egiteko epea hasi zen apirilaren 24an, baina auto-likidazio proposamenak bidaltzen dira lehenago, modu honetan kanpaina hasi baino lehenago jakin dezan jendeak mekanizatua egin behar duen edo ez.

Gipuzkoa ogasunaren datuen arabera, aurten aurkeztuko dira 352.000 aitorpen eta horietatik 111.000 izango dira auto-likidazioen onarpenak. Beste 107.000 izango dira aitorpen mekanizatuak; beste 100.000 aholkularitza zerbitzuek telematika erabiliz bidalitakoak; 15.000 diskete bidez bidalitakoak; 13.000 Internet erabiliz bidalitakoak, eta beste 6.000 paperean aurkeztuak.

ERRENTA EUSKARAZ

**Errenta aitorpena euskaraz egin nahi duenak zer egin behar du?**

Errenta aitorpena euskaraz edo gazteleraz egin nahi daiteke. Norberak aukeratzen du nola egin nahi duen. Kontua da errenta aitorpena egiteko modu asko dagoela: Internetez, aholkularien bidez, Bergarako Ogasun bulegoan… Errenta aitorpena egiterakoan, norberak erakutsi behar du modu batera edo bestera egiteko jarrera, hau da, norberak esan behar du euskaraz egin nahi duela, hala egin nahi badu, behinik behin. Arrasateko euskalgintzako taldeek kanpaina egiten dihardute jendea animatzeko aitorpena euskaraz egitera eta horretarako egon dira aholkularitza etxeekin, banketxe zein aurrezki kutxekin…, haiek ere bidea erraz dezaten.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

LA SEXTA

**Euskaltelen kable bidez ezin daiteke La Sexta ikusi?**

Aurreko astean esaten genizuen zeintzuk ziren geurean La Sexta ikusteko moduak, denak ere seinale digitalaren bidez eta inoiz ez modu analogikoan. Esaten genizuen La Sexta ikusteko modua zela Canal Satetilte Digitalera abonatuta egonda edo Lurreko Telebista Digitalaren dekodifikagailuaren bidez (Arrasaten edo Aretxabaletan bizi direnek). Baina, oraintsu Euskaltelek kable bidezko telebistaren eskaintzan sartu du La Sexta katea.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

## Ibarretxe, Duncan Dhu-ko bateria-jole

Xabier Mendiguren Elizegi
www.eibar.org/blogak/mendiguren

Duncan Dhu-ren historia oroitzen al duzue? Hiru lagun ziren, orain dela hogeitaka urte, poparen eta rockabilliaren arteko soinu berezi nahiko akustiko batekin plazaratu zirenean. Egundoko arrakasta izan zuten eta, handik gutxira, hirutik bira jaitsi zen partaide kopurua: Mikel Erentxun geratu zen (kantaria eta irudia ematen zuena), Diego Vasallo ere bai (kantu gehienen sortzailea), eta kanpoan geratu zen Juanra Viles (bateria-jolea besterik ez zena, eta, hortaz, ordezkagarria).

Vilesen tankera hartzen zaio Juanjo Ibarretxeri. Egoera politiko berri honetan badirudi protagonismoa sozialistek eta ezker abertzalekoek izango dutela (batzuek burniak utziko dituztelako, eta besteek horren truke zer edo zer eman dezaketelako). Jeltzaleak inork ez ditu bazterrean laga nahi, baina ez dira horren beharrezko, lehen fase honetan behintzat.

Ibarretxeren arazoa sakonagoa da ordea. Bere adierazpenak eta Josu Jon Imazenak irakurriz gero, ezin esango dugu kontraesana nabarmenak daudenik, baina bai sintonia desberdinetan dabiltzala. Printzipioz, nik esango nuke alderdiaren postura erosoagoa dela, eta Ibarretxek ez duela inon topatzen nahi lukeen babesik, protagonismoa lortzeko ahalegin hutsal ari direla bihurtzen azken aldiko bere ekimenak oro. Hala ere, egoskorra eta nekagaitza dela ere ongi frogatua du Juanjok, eta ez dut uste danborra jotzeari horren erraz utziko dionik.

# Beren negozioak eta gure osasuna

**Inazio Azkarraga-Urizar**
(LAB, Bergarako Udala)
Bergara

Apirilaren 28an, sindikatuen ekimenez, duela hamar bat urte, istripu hilgarriak gaitzesteko nazioarteko eguna eratu zen. Istripu hilgarri hauek ez dira kasualitatez suertatzen; enplegu eta lan baldintza gaiztoen adierazgarri lazgarrienak dira. Prekarietateak (bere forma guztietan: aldikotasuna, lanaldi murriztuak, azpikontratazioak, bazterkeria), malgutasunak (edonoiz erabilgarri izana) eta pribatizazioek zehazten dituzten egungo politika neoliberalak. Politika honek gero eta gaiztoagoak diren lan baldintza txarrak okertzen ditu eta langileen osasunari eragindako kalteak areagotzen ditu.

Aurten, lan-osasuneko egun honetan, LABeko Administrazioa, Osasungintza eta Zerbitzu Sozialetako sektoreak eztabaidatu nahiko luke azken estrategia, pribatizazioa eta honek nola eragiten dion gure osasunari. Zirudienez, Administrazio Publikoetako langileak mehatxu honetatik alde batera utziak zeuden, baina pribatizatzeko politikak eta zerbitzu publikoen murrizpenak zalantza ekarri du, funtzio publikora ere, eta osasunari dakarzkion ondorio txarrak nabaritzen hasiak gara. Euskal Herrian, ia alderdi politiko guztietako gobernuak pribatizatzen ari dira osasun zerbitzuak, ogasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak, garraioa, obra publikoak, udalen jarduerak, mantentze-lanak, garbikuntza, informatika, etab.

Hainbat ikerketatan ikus daiteke pribatizatze prozesuari ekin aurretik, eta neurtutako informazio gabeziaren ondorioz, zurrumurruak sortzen dituztela. Aipatu zurrumurru eta esamesek, maiz, loezina, kezkak, suminkortasuna…, laburbilduz, estresa dakarkiete langileei.

Pribatizatu aitzineko aldian, zerbitzuaren kudeatzaileek biziki okertzen dituzte lankargak, bete beharreko zereginetan nahas-mahasa sortzen dute, zereginei loturiko arazoak konpontzeko laguntzarik eza eragiten dute, langileen arteko zatiketa sustatzen dute, buruek langileei jazarpen morala eragiten ez dietenean. Hauek eta beste arrisku psikosozial batzuek ekartzen dute estresa, istripu gehiago izatea, bihotz-hodietako arazoak, ergonomia-lesioak eta osasunaren egoera orokor okerragoa pairatu beharra. Arrisku psikosozialak sortzen dituzten faktoreez gain, laneko etorkizunaz izan ditzakegun zalantzek deskribatu ditugun osasun arazoei arrisku bereizia eransten diete.

Behin enpresa pribatizatu ondoren, enplegu egonkor bat lortzen ez dituztenek lortzen dituztenek baino osasun maila apalagoa nabaritzen dute, gaixotasun psikiatriko handiagoak maizago pairatzen dituzte eta urtean zehar kontsulta mediko gehiago egin behar izaten dituzte. Aldi baterako lanbideek lan arrisku gehiago dakarte berekin. Langile hauen senideen ongizateari ere eragiten dio (Finlandiako udaladministrazioan egin zuten ikerketa baten arabera). Pribatizazioa gertatu eta urtebetera, langileen artean nabaritu zen: arteria-presioa handitzen zitzaiela eta antsietate kronikoaren eta askoz ere gutxiago jatearen ondorioz, gorputz-pisua txikiagoa zutela.

Enpleguen %12ko galera pairatu zuten udal-enplegatuen artean eginiko ikerketa baten arabera, berregituraketa egin eta 3 urtera, prozesua amaitu ondoren enplegatu publiko gisa zirauten langileek (administrazioak txikiagotu zuen aldian eta medikuntza zioengatik) bikoiztu zituzten bajak. Honek adierazten digu administrazioak desegiteko prozesu hauek eragindako langile guztien osasunari eragiten diela.

Pribatizazioek berekin dakarten kostuei enplegurik lortzen ez dituzten pertsonei eragiten zaizkien kalte nabarmenak gehitu behar dizkiegu.

Euskal Herrian ez da antzeko ikerketarik egin, baina zerbitzu publikoak ere pribatizatzen dira, eta hauetan lan egiten duten langileek ere ondorio kaltegarriak pairatzen dituzte. Pribatizazioei lotuz, enpleguak galtzen dira bitartekoei eta behin-behinekoei kontratuak deuseztatuz eta hauek langabeziara bidaliz; enplegu egonkorra iragankortasun kronikoko lanpostuengatik ordezkatzen da. Gogoan hartu ez zituztenek pribatizazioari ihes egiten diete eta ahal den gehien beren erretiro adina aurreratzen dute, beste batzuek lanpostu seguruagoetarako lekualdaketak hautatzen dituzte. Beste batzuek gobernuen egitasmoei egiten diete aurre, beren enplegu publikoa defendatuz eta osasungintzan prezio garestia ordaintzen dute. Prebentzio zerbitzuek, mutualitateek, Osalanek, Nafarroako Lan Osasun Institutuak eta Laneko Ikuskaritzak ez dakite gai honi buruz ezer.

Gure kudeatzaile neoliberalek, beste herrialdeetakoek bezala, pribatizatzeko estrategian, informaziorik eza darabilte, lana desantolatzen dute, presio eta jazarpenak egiten dituzte, lanaren etorkizunaz zalantza handia eragiten dute, laneko eskubideei ez diete begirunerik, administrazio publikoan iraun nahi duten horiei etorkizun beltza dakarkiete eta pribatizatzeko egitasmoei men egiten dieten horiei laneko etorkizun oparoa dakarkiete. Politika hauen onuradunak laguntxoak dira, agintean dauden alderdietako kudeatzaileen senideak, administrazioaren bizkarroi den eta honen desegitea planifikatzen duen jendea. Kostuak langileek eta dirukutxa publikoek jartzen dute. Honela, langabezia-sariak, osasun-laguntzak eta laneko bajek eragindako laguntza ekonomikoak altxor publikoaren bizkar doaz.

# Zenbakiak letra bihurtuz

**Iker Jimenez Benito** > Arrasate

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 0. Gaur egun etengabe idazten eta irakurtzen ditugun zenbakiak. Beraien arteko elkarketak eginez konbinaketa ugari lortzen ditugu. Adibidez, 700, 22, 98'5, 616, 13.812, 16, 28 eta 72. Ez ditut zoriz aukeratu, gurata idatzi ditut hauek eta ez beste batzuk. Askok zenbaki huts bezala ikusiko dituzte zifren saltsan murgilduta bizi garelako, baina zenbaki hauen atzean errealitate gordina aurkitzen da.

Ia 700 dira kartzelan dauden euskal herritarrak, eta hauen %98'5 Euskal Herritik kanpo (batez beste 616 kilometrora), nahiz eta legez Euskal Herrian egon beharko luketen. Bizi baldintza gogorren ondorioz espetxean hildakoak 22 dira, eta 16, aldiz, preso politikoak bisitatzera zihoazela bidean zendutakoak (2005ean, 28 istriputan 72 pertsona suertatu ziren kalteturik). Honi kostu ekonomikoa gehitu behar diogu, bisitak burutzeak batez beste 13.812 euroko gastua sortzen baitie senideei urtean.

Horrelako zifra triste bezain errealak emanez GOIENKARIA osoa zenbakiz josi ahalko nuke, baina irakurlea aspertzea ez dut xedetzat (nahiz eta aspertzeko kontuak ez izan). Azken finean, legeak dioena errespetatzea eta presoek dagozkien eskubide zibil eta politikoak bermatuak izan ditzatela eskatzen dut. Horretarako, denon inplikazioari beharrezkoa deritzot, egoera ilegal hau salatu beharra daukagu zenbaki hauek guztiak desagertu daitezen. Beraz, hurrengo proposamena luzatzen diot arrasatear eta debagoiendar orori: ordezkatu ditzagun zenbakiak letrengatik, beste behin ere herriaren ahotsa balkoira atereaz: etxeetan horrenbeste ikusi genuen *1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, Real!* horren oihartzuna bihurtu dezagun oraingoan euskal presoak Euskal Herrira!

# Ez dugu nahi errepide berririk

**Edurne Gabiria Iztueta, Elena Saenz Saenz, Oscar Manso Valdes eta Maider Arrizabalaga Irureta**
(Bergarako Bolu auzoko bizilagunak)
Bergara

Azken hilabete hauetan Zabalotegiko bizilagunen eta Bergarako Udalaren artean, guztion intereseko eztabaida garrantzitsu bat jarri da martxan. Eztabaida Arau Subsidiario berrien ingurukoa da, eta bereziki, Zabalotegi eta Koldo Eleizalde kaleak lotuko dituen errepidea eraikitzeak sortuko dituen arazoen ingurukoa. Beraz, idatzi hau sinatzen dugunok honako hau adierazi nahi dugu:

1. Zabalotegiko bizilagunekin bat egiten dugu bizitza kalitatearen defentsan egiten ari diren aldarrikapen eta mobilizazio guztietan. Kontuan hartutik, hau guztia, Arau Subsidiarioetan jaso eta helburu izan beharko lukeela.

2. Boluko bizilagunon ustez, gaur egun auzoan daukagun zirkulazio intentsitateak ez du proiektu berriaren nondik norakoa justifikatzen, ez baitugu egun onartze bidean dagoena beharrezkotzat jotzen. Bestalde, Udalak Europan aspaldidanik hauteman eta zuzentzen ari diren printzipio garrantzitsu bat ahazten du; zirkulazio eragite legea. Lege honek hau adierazten du: bide egituren gehikuntza bakoitzari auto erabileren gehikuntza bat dagokiola. Honela, autoa gehiago eta distantzia luzeagoetan erabiltzen da auto ilarak gehituz eta arazoa areagotuz. Honek, aldi berean, azpiegitura gehiago eskatzen ditu eta horrela arazoa konpondu beharrean amaierarik gabeko arazo bilakatzen du.

Hau guztia kontuan izanik, Bolu auzoa eta batez ere Koldo Eleizalde kalea izango da kaltetuena. Aldi berean, Boluko bizilagunok gaur egun erdialdera daukagun oinezkoen pasabidea guztiz kaltetua suertatuko da eta bertako bizilagunen bizitza kalitatea murriztuta geratuko da, zaratak eta arriskuak gehitu egingo baitira.

3. Hirigintza teoria arrazoitsuenak zera proposatzen du, hirigintzako jarduerak jadanik eraikita dauden lekuak hobetu eta birgaitu behar dituela eta aldi berean leku naturalak babestu eta kontserbatu. Arau Subsidiarioen txostenean hirigintza-lan garrantzitsuak jasotzen dira jadanik eraikita dauden lekuetan (algodonera, San Lorenzo, etab.). Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen Errekalde Jauregiko parkean, Mariaren Lagundiko lorategietan edo Iraburuko lursailetan eraikuntzarik burutzea. Honela, garapen jasangarri eta bizitza kalitate minimo batzuk ziurta baititzakegu.

4. Bestalde, Zabalotegi eta Koldo Eleizalde kaleek ez dute herriaren saihesbide izateko baldintzarik betetzen, ezta honek suposatuko lukeen trafiko gehikuntza jasateko ere. Hau kontuan harturik, bizilagunek bizitza kalitatea galduko lukete inoiz proiektu berriek herriarentzat onurarik arrazoitu ez duenean.

5. Gure udalerriak Agenda 21a martxan jarria du jadanik eta Errekalde jauregiaren inguru guztiak duen balio ekologiko garrantzitsua defendatu eta bultzatu beharko luke eta ez espekulazioan erori. Honela, zein da Udalak eraiki nahi duen ingurua Mizpirualde egoitzan dauden pertsona nagusientzako? Saihesbide batez inguraturiko egoitza? Honen guztionen aurrean, zer dio Udaleko Gizarte Ongizateko arduradunak?

6. Saihesbide berria eraikitzearekin batera herriaren ekialdeko oreka guztiz apurtzen da. Honek bizitza kalitatean eragin zuzena dauka, ez bakarrik pertsona nagusiengan eta bertan bizi diren bizilagunengan, baizik eta bergarar orok jasaten du galera herriko ingurune garrantzitsuak eraldatu eta galtzean.

Adierazitako guztia kontutan hartuz, Udalari honako hau eskatzen diogu: Arau Subsidiarioen txostenaren gaineko hausnarketa sakon bat egin dezala Zabalotegiko bizilagunek hainbatetan eskatu dioten bezala. Kontuan izanik herriaren berrikuntza eta eraikuntza ezin dela autoen erabilera sustatzeko soilik pentsatu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA**
**Telefonoa: 943 25 05 01**
**Faxa: 943 25 05 13**
**Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com**


Eskaintza honek apirilaren 27tik maiatzaren 13ra balio du janari-edarietan eta drogerian
BERRIAK!
EROSKI
Produktuak
Aurrezteko
marka
MIAOU
CHIPS
CORN FLAKES
DOBLE ROLLO
TALLA 4 / 8-15 kg
FONTECELTA
2. alea
SALNEURRI
ERDIAN
Seinalatutako produktuetan
EROSKI
Erosten jakin
Bazar, etxetresna elektriko eta ehunkietan, maiatzaren 27ra arte balioko du eskaintzak.

**Arrasate** > 16-19 **Bergara** > 20-23 **Aretxabaleta** > 24-25 **Eskoriatza** > 26-27 **Antzuola** > 28 **Elgeta** > 29 **Aramaio** > 30 **Leintz Gatzaga** > 31



**> ARETXABALETA**
Behatokiak ipini dituzte Urkulun, hegaztiei jarraipena egiteko **> 24**



**> ESKORIATZA**
Musika taldeen CDa aurkezteko Gazte Eguna egingo dute **> 26**



**> ELGETA**
Alkateak dio ez duela Udaletik zinegotzirik alboratuko **> 29**



**> GATZAGA**
Hamar gelako ostatua egingo dute Soran jauregian **> 31**

**ESKORIATZA** > AXTROKI EUSKARA ELKARTEAREN 15. URTEURRENA

# Axtroki elkarteak 15 urtez dihardu euskararen erabilera bultzatzen

**UDALEAN ERAGIN**
Udalean zerotik eragiten hasi ziren eta gaur egun erakundeak euskaraz jarduten du

**HERRI ALDIZKARIA**
Besteak beste, herri aldizkaria sortu eta hainbat urtean hilero kaleratzen ibili dira



**ARRAKASTA** Ekitaldi arrakastatsuak antolatu ditu Axtrokik urteotan; argazkian, Takolo, Pirritx eta Porrotx, Eskoriatzan. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eskoriatzako euskara elkarteak 15 urte bete ditu. Azkar pasatu dira 15 urteok, baina bidean lan asko egin eta erronka handiei aurre egin behar izan dizkiete.

1990ean, herriko lagun talde bat euskararekin lotutako hainbat ekintza egiten hasi zen inguruko herrietako elkarteekin elkarlanean. Besteak beste, Kilometroak jaira eta bestelakoetara joateko autobusak antolatzen zituzten sasoi hartan.

Handik gutxira, Udaleko Kultura Saileko zinegotzia eurekin harremanetan jarri zen elkartea eratzen laguntzeko. Deialdia herrira zabaldu zuten eta 30 lagun elkartu ziren. Arrasateko AED elkartea eredu hartu zuten, eta, haren moduan, azpibatzordeka antolatzen hasi ziren.

**UDALEAN ERAGITEA**
Elkartearen hasierako helburuetako bat izan zen Udalean eragitea. "Sasoi hartan ez zegoen euskarazko udal-ordenantzarik, eta are gutxiago euskara teknikaririk, ezta itzultzailerik ere. Poliki-poliki, hori guztia lortu egin dugu eta gaur egun Udalak euskaraz funtzionatzen du alor gehienetan", azaldu ziguten elkartekoek.

**EUSKARAREN ERABILERA**
Axtroki elkarteak herritarren euskararen erabileraren gaineko azterketa egin zuen 1994an. Erakunde batek gidatu zituen, eta Axtrokiko lagunek datu bilketak egin zituzten.

AXTROKIREN IBILBIDEAN ERRONKA NAGUSIAK

**> ELKARTEA SORTU ZUTEN**
1991n herrian deialdia zabaldu ostean, elkartea eratu zuten 30 bat lagunek. AED elkartea eredu hartuta, zazpi azpibatzorde sortu eta ekintzak egiten hasi ziren. Besteak beste, *Zebarri* izeneko orri informatiboa 2 urtez kaleratu zuten.

**> 1994AN ELKARTEA KOLOKAN**
Azpibatzordeek lan handia egin zuten, baina jende asko *erre* egin zen. Horren ondorioz, hainbat lagunek elkartea desegitea proposatzen zuten. Azkenean, zazpi bat lagunek aurrera egin zuten elkartearekin. Azpibatzordeak kendu eta batzorde eragile bat sortu zuten, indarrak neurtzeko eta aukeratutako ekimenak egiteko. 1994an euskararen erabileraren gaineko neurketak egin zituzten, besteak beste.

**> 'ZE BARRI? URLATIK'**
1996an Leintz Gatzagako lagunek bi herriak batzen zituen aldizkari bat sortzeko asmoa agertu zieten. Lantaldea eratu eta *Ze barri? Urlatik-Landetara* aldizkaria hilero kaleratzen hasi ziren. Handik gutxira, eskoriatzarrek hartu zuten aldizkariaren ardura osoa eta Axtrokik kazetari bat kontratatu zuen. 2001ean Goienak hartu zuen *Ze barri*-ren ardura.

**> 2000N LUDOTEKA ABIARAZI**
2000n Axtrokik aisialdia ere lantzea erabaki zuen eta Arrasateko Txatxilipurdi elkartearekin ludotekaren gaineko proiektua idatzi zuten. Udalak onartu egin zuen proiektua, eta 2001ean ludoteka eraiki eta Axtroki zerbitzu hori kudeatzen hasi zen, iaz Udalak beste enpresa bati zeregin hori eman zion arte.

Horrez gain, euskaldun berrien aldeko hainbat ekimen egin zituzten sasoi hartan. Besteak beste, *Geuk be euskaraz* izeneko ekimena egin zuten: haren bitartez, euskara ikasi berri zuten lagunen argazkiak erakusgarri jarri zituzten, herritarrek eurei euskaraz egin ziezaieten.

**KULTURA EKINTZAK EUSKARAZ**
Axtrokiren beste helburuetako bat izan da kultura ekitaldiak euskaraz eskaintzea. Horren harira, sasoi baten Euskararen Astea antolatzen zuten eta azkeneko 11 urteotan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizunen estreinaldiak egin dituzte Eskoriatzan.

**JAIETAN ESKU-HARTZE HANDIA**
Kultura ekitaldiez gain, azkeneko urteotan San Juanetan eta Gabonetan herria girotzen ere egin dute lan. Hain zuzen ere, jaien batzordeak hasieratik gaur egunera arte eutsi dio lanari. Besteak beste, San Juanetako suaren inguruko ekitaldiak, Olentzero, autobusak eta beste.

**HILAREN 20AN MINTEGIA**
Axtrokikoen esanetan, erronkak oso garrantzitsuak dira elkarteak aurrera egiteko. Halaxe indartu dute elkartea urte hauetan guztietan, jarri dituzten erronken tamainan, hain zuzen. Elkarteko arduradunen esanetan, une honetan euskararen inguruan herrian dauden erronken gaineko hausnarketa egitea premiazkoa da. Horretarako, mintegia egingo dute hilaren 20an. Topaguneak gidatuko du, eta gura duenak esku har dezake. Zapatu goizean izango da eta horren ostean bazkaria egingo dute. Hala, hilaren 12a baino lehen eman beharko da izena 943 71 54 34 telefono zenbakian edo *axtroki@topagunea.com* helbidean.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Domeka, 7 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 8 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 9 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 10 | Español | Araba etorbidea | 943 79 18 65 |
| Eguena, 11 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 12 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 7 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 8 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 9 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 10 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 11 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 12 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 7 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 8 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 9 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 10 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 11 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 12 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 6 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 7 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 8 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 9 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 10 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 11 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 12 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA ( Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 78 90 27
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak....
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 6**
Zeruak oso goibel egongo dira egun guztian eta euri-zaparradak aurreikusi dituzte. Edozelan ere, tenperaturek epelak izaten segituko dute.



**Domeka, 7**
Eguna lainotuta esnatuko zaigu eguna baina aurrera egin ahala hobetzen joango da. Arratsalde-iluntze partean lainoak eta ostarteak izango dira.

### EUSKAL HERRIAN

Lainoak nagusituko dira gure zeruetan datozen egunotan. Zapatuan, gainera, zaparrada dezenteak izango ditugu. Domeka izango da egunik onena, batez ere eguerditik aurrera. Hori bai, domekan zapatuan baino tenperatura freskoagoak izango ditugu.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Domeka, 30 — **2 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 2 — **28 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **6,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 26 | 20 ºC | 12 ºC | 0,2 l/m² |
| Eguena, 27 | 15 ºC | 11 ºC | 6 l/m² |
| Egubakoitza, 28 | 14 ºC | 11 ºC | 0,2 l/m² |
| Zapatua, 29 | 15 ºC | 10 ºC | - l/m² |
| Domeka, 30 | 18 ºC | 2 ºC | - l/m² |
| Astelehena, 1 | 22 ºC | 3 ºC | - l/m² |
| Martitzena, 2 | 28 ºC | 6 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MAIATZEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 20 | 27 | 5 | 13 |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**>1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
27an jaiotakoek batera bazkalduko dute maiatzaren 13an Zumelaga jatetxean. Izena emateko, 15 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0009 17 0091113643.

ARRASATE, OÑATI
**>Osasun pastoraltzako hitzaldiak izango dira**
Osasun pastoraltzak honako hitzaldiak antolatu ditu: *Norberaren baitatik onena ateratzea* (maiatzak 8, astelehena, Debagoieneko ospitalean, 18:00etan) eta *Gaixoei laguntzeko era ezberdinak* (maiatzak 10, eguaztena, Oñatiko parrokiako lokalean, 18:00etan).

BERGARA
**> Umeen inteligentzia emozionalaz**
*Inteligentzia emozionalaren garapena haurrengan* delako hitzaldia egingo du Eraberri taldeak hilaren 9an, Mariaren Lagundian, 18:00etan.

OÑATI
**> EHNA tramitatzeko aukera dago**
EHNA agiria tramitatuko dute bihar, zapatua, Gazte Bulegoan, 11:00-13:00.

BERGARA
**>1963an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
63an jaiotakoek batera bazkalduko dute maiatzaren 20an Sirimiri jatetxean. Hantxe bertan eman behar da izena, 15 euro aurreratuta, maiatzaren 17a baino lehen.

OÑATI
**>1982an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute**
1982an jaiotako oñatiarrek batera bazkalduko dute maiatzaren 13an. Izena emateko, sartu 30 euro Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0170 51 1700022211.

ARRASATE
**>'Idazleak irakurle' gida eskura daiteke**
Idazleak irakurle gomendio gida prestatu du Udal Liburutegiak, eta hantxe dago eskuratzeko.

ARRASATE, BERGARA
**> Zumalakarregi museora irteera**
Zahar Berri eta Berriketan taldeak Zumalakarregi museora joango dira bihar, zapatua. Izenematea zabalik dago Jardunen (943 76 36 61) eta Zahar Berrin (943 71 21 17).

OÑATI
**>Bokazioen aldeko otoitzaldia egingo dute**
Bokazioen aldeko otoitz jardunaldia egingo dute mundu osoan etzi, domeka. Hori dela eta, Arrasateko artzapez-barrutiak otoitzaldia antolatu du bihar-ko, zapatua, Oñatiko parrokian, 21:00etan.

DEBAGOIENA
**>Herri Urratsera joateko autobusak**
Herri Urrats jaialdia ospatuko dute maiatzaren 14an, eta Debagune elkarteak autobusak antolatuko ditu ibarretik. Izenematea zabalik dago euskara elkarteetan.

BERGARA
**>1949an jaiotakoen kinto bazkaria**
1949an jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 13an. Autobusa izango dute. Izena emateko, jo Tartufo jatetxera. Maiatzaren 5a da mugaeguna.

BERGARA
**> Sarara irteera egingo dute erretiratuek**
Sarara irteera antolatu dute San Joxepeko erretiratuek hilaren 24rako. Hango kobazuloak bisitatuko dituzte.

BERGARA
**>Koadrilen Eguna antolatzeko batzarra**
Mendekoste jaietako Koadrilen Eguna antolatzeko gertu daudenekin batzarra deitu du Udalak martitzenerako, hilak 9, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI
**> Irteera eta sukaldaritza ikastaroa**
Elkar Hezi ikastetxeak honako ekintzak antolatu ditu: Aizkorriko parke naturalera irteera (gaur, maiatzak 5, egubakoitza) eta gazteendako sukaldaritza ikastaroa (maiatzak 8-11, Pago-Uso gastronomia elkartean).

ARRASATE
**>Kolonbiako mugimendu indigenak, hizpide**
*Mugimendu indigena eta erresistentzian dauden komunitateak Kolonbian* delako hitzaldia egingo du Kolonbiako indigena batek martitzenean, hilak 9, Monterronen, 19:00etatik 20:30era bitartean.

DEBAGOIENA
**> Saharako umeak hartzeko familia gehiago behar ditu Nubi elkartasun taldeak**
Oporrak Bakean programa aurrera eramaten dabil Nubi Debagoieneko elkartea. Familia batzuek izena eman dute dagoeneko udan Saharako umeak hartzeko, baina gehiago behar dituzte. Honako telefonoetan eman dezakezue izena: 685 72 58 16, 685 72 58 17 edo 685 72 58 18.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

**kale inkesta**

# Maiatza loraila da; gustatzen zaizkizu loreak?



**Ainara Zubillaga**
Langabea
Leintz Gatzaga

Ez, ez naiz oso lore-zalea. Etxean amak jarri izan ditu, baina segituan zimeltzen zaizkigu, eta ez gara oso zaleak. Herria lorez apaintzea ostera, gustuko dut; Gatzagan ere jarriko dituzte.



**Judith Arriolabengoa**
Langilea
Aramaio

Gustatzen zaizkit loreak; baina, adibidez, mendietan errespetu handiagoa izan beharko genuke loreekin: batzuk hartu bai, baina abusatu barik. Bestalde, herrian loreak ikustea gustatzen zait.



**Satur Peñalver**
Langilea
Elgeta

Asko gustatzen zaizkit loreak. Negukoak zein oraingoak. Urte osoan izaten ditut eta ez eduki bakarrik, baita gustura asko zaindu ere. Etxean eta ganbararako bidean ditut. Asko alaitzen dute.



**Leonor Regidor**
Etxekoandrea
Antzuola

Oso gustuko ditut loreak eta kaleko berdeguneetan daudenek herriari bizitasuna ematen diote. Bizileku berria dudanez, oraindik ez dut etxean lorerik ipintzeko astirik izan.



**Josu Sudupe**
Langilea
Bergara

Kalean loreak ikustea gustatzen zait niri, baina esan beharra dut etxean ez daukadala, lan asko ematen dute-eta. Batzuetan oparitzeko erabili izan ditut, baina gutxitan.

**txaloak eta txistuak**




UBANE MADERA

# Zuloak ganoraz estali barik

Leku bitan, behintzat, badira errepidean zuloak Bergaran. Hala adierazi digu irakurle batek. Haren esanetan, Amillagako biribilgunean dago bat. Kontatu digu behin baino gehiagotan estali dutela, baina harearekin bakarrik, eta, ondorioz, segituan egiten dela berriro zuloa.

**bertako berbak**

Juan Martin Elexpuru

## "Aztoratu"

Asaldatu, urduritu.
– *Edurra ein ddabelako ikastolako ume guztiak aztoratuta dabitz.*



**Marrazkia** > Jon Iraegi

**asteko datua**

# 52

Lagun elkartu dira oraingo astean Arrasaten iraunkortasunaren gainean berba egiteko. Bigarren batzarra da. 71 faktore aztertu dituzte eta urrira arte lanean jardungo dute. Etorkizunerako bide egokia zein den zehaztea da helburua.

**usteak uste**

Ubane Madera

# Inor ez da betiko zigortu behar

Niri ez zaizkit kartzelak gustatzen. Edo behintzat ez gaur egun dugun sistemarekin. Ez da politika kontuengatik. Pentsatzen zait sistema horrek ez duela ondo funtzionatzen. Berez, preso dagoena birgizarteratzeko balio beharko luke sistema penitentziarioak eta akaso batzuetan izan ere hala izango da; baina nik ezagutzen ditudan kasuetan, kartzelek zigortzeko bakarrik balio dute. Legeak ezarritako askatasun bako zigorra betearazteko lekuak izateaz gainera, kartzela askoren egoera negargarria da. Ez dugu urrutira joan beharrik hori ikusteko.

Kontuak kontu, gutxienez, legeak guztioi berdin eskatuko baligu eta guztiok berdin zigortuko bagintu, akaso nire postura bestelakoa izango litzateke. Akaso. Baina gauza da, guztiok dakizuen moduan, legea ez dela bera denondako. Batzuei zigorra arindu egiten zaie oso argi ez dakigula zergatik. Beste batzuek, berriz, bereak eta bi ikusten dituzte.

Jon Agirre aramaioarrak 25 urte bete behar ditu kartzelan. Legearen arabera, kalean beharko luke, gaixo dagoelako. Baina ez. Estatuan biziarteko kartzela-zigorra indarrean dela onartu beharko dugu, ala? Ez nuke hori nahi.

**5 galdera...**

# Haritz Alustitza

Trikitilaria
Bergara

**1. Zuek trikitia joko duzue, baina jendeak dantza egingo du erromerietan?**
Espero dugu. Gabiltza antolatzen jende mordoa (bertso eskola, trikiti eskola, dantzariak…) eta dantza eta trikiti eskoletan, adibidez, jende piloa dabil eta ikusita zenbat jende mugitzen den hor, pentsatzen dugu asko etorriko direla. Eta gainera, dantza ikastaroa ere badago; hortaz ematen du jendea gogoz dagoela. Maiatzaren 5, 12 eta 19 dira hitzorduak. 5ean eta 12an, 19:00etan, eta azkeneko eguna izango da indartsuena. Hori izango da arratsaldetik hasi eta jendeak eusten dion arte.

**2. Trikiti-zaleek bloga sortu duzue Bergaran; hori da trikiti giroa modernizatzeko pausoetako ba?**
Modernizatzea baino gehiago da gure arteko komunikazioa hobetzeko-edo, baita modernizatzeko ere, bakoitzak zer pentsatzen duen esateko… *bergaratriki.blogspot.com* da helbidea.

**3. Aztergai duzue atzoko eta gaurko trikitia; zertan desberdintzen dira, bada?**
Jotzeko modua aldatu da asko; trikiti eskolen ondorioz, teknika asko aurreratu da, lehen belarriz jotzen zen eta orain dago dena idatzita; profesionalizatu egin da. Eta nire ustez, lehen zentratzen zen gehiago lehiaketetan eta orain zabalduago dago. Bestalde, trikitia bestelako instrumentuekin fusionatu da; esaterako, atera da Arrasaten Gose, trikitia elektronikoarekin.

**4. Trikitilari eskaera dezenteko handia da; zenbatean duzue *katxea*?**
Guk pasatzen dugu urte erdi baino gehiago ezer kobratu barik, borondatez. Dena dela, toki batzuetan ondo ordainduta dago. Hori bai, irteten garenean, nahiz eta ez kobratu, berdin jarduten dugu.

**5. Zer da horrenbestetan entzuten den hori: trikitia modernizatzea?**
Bakoitzak nahi duenarekin nahastea. Sustraiei eutsi, baina gauza berriak probatu: Tapia eta Leturia, Kepa Junkera…



**INGURUMENA** > GARAGARTZAKO ORTUAK

# Baratzeetarako izena emateko Ingurumen Sailera jo behar da, hilabete baino lehen

## Udalak zerrenda orientagarria egingo du izena ematen dutenekin; helburua da jakitea zein den herritarren beharra; beharra handia bada, ortuen tamaina erdira jaistea aztertuko dute



**ARRATOIAK** Makatzenako baratzeetan, esaterako, arratoiak dituzte, zenbait txabola ez dituztelako oso garbi. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Garagartzako ortuen proiektua LKSk idatzi zuen, orain dela bi urte. Orain, Udalak jakin gura du herrian zein eskaera dagoen, zehazteko ortuak banatzeko orduan erabili beharreko irizpideak zeintzuk diren. Esate baterako, LKSren proiektuaren arabera, Udalak Garagartzan 61 ortu sortzea aurreikusi du, bakoitza 80 metro koadrokoa: "Bereiztutako partzelak izango dira, eta, horrez gainera, erabiltzaile guztiendako beharrezko azpiegiturak ipiniko ditugu: biltegi bat (jantziak-eta lagatzeko), erremintak, ur-biltegia eta dutxak ere bai. Gasteizko eta beste zenbait herritako ereduak hartu ditugu aintzat". Hala adierazi digu Ingurumen Saileko teknikari-buru Rafa Ugartek. Zera gaineratu digu: aurreikusi arren ortu bakoitzak 80 metro koadro izatea, "herrian behar handiagoa badago, metro koadro kopurua erdira jaitsi ahal izango da; baina hori erabaki politikoa da".

Kontuak kontu, baratzeren bat gura dutenen izenak hartzen dabiltza Udalean; interesa duenak Ingurumen Sailera jo behar du ekaina baino lehen.

Bestalde, ortuen proiektua egiteko Tokiko Gobernu Batzarrean gaia onartu egin behar dutela ere azaldu digu teknikari-buruak, eta, hori egin ostean, hiruzpalau hilabete beharko dituztela hura gauzatzeko.

Horrez gainera, jakinarazi digu ortu ekologikoen proiektua gauzatzeak ekarriko duela Santa Teresa, Makatzena eta Uribarri auzoetan legez kanpo dauden baratzeak kentzea. Eta horrek ez duela esan gura esparruotan baratzea duenari adjudikatuko diotenik Garagartzako ortuetako bat. Argitu digunez, ortu horiek kendu egingo dituzte "eragiten dituzten osasun arazoengatik". Halako 110-125 kenduko ditu Udalak.

**ALKATEA GOITB-N**

# Hilaren 10ean izango da alkatea telebistan

## 21:45ean emitituko dute elkarrizketa; herritarrek galderak egin diezaiokete

**U.M.** > ARRASATE

Alberto Gorritiberea aurkezleak Arrasateren gainekoak galdetuko dizkio alkateari datorren maiatzaren 10ean, GOITBren *Debarri* saioan. Ordubetez izango da Inazio Lakuntza telebistan, 21:45ean hasita.

Aurkezlearen galderei erantzuteaz gainera, arrasatearrek ere egin diezaiokete galderak alkateari. Horretarako bidea honakoa da: *Goiena.net* webgunean sartu eta han eztabaidei eskainitako atalera jo beharra dago; honako galderei erantzun behar zaie han: *Zerk kezkatzen zaitu herrian? Zer eskatzen duzu?*

**ERREPIKAPENAK**

Bestalde,maiatzaren 10ean *Debarri* saioa ikusi ezin duenarendako errepikatu egingo dute hurrengo egunean, 15:45ean; eta baita astebururuan ere: zapatuan 15:00etan eta domekan 19:15ean.

**OSOKO BATZARRA** > APIRILEKOA

# Ekainaren 11n omenaldia frankismoaren biktimei

**U.M.** > ARRASATE

Ekainaren 11rako Laubide plazan egin dute hitzordua frankismoak eragindako biktimei omenaldia egiteko. Hala onartu zuen udalbatzarrak joan den egubakoitzeko batzarrean. Onetsitako mozioan eskatu dute, besteak beste, "epaiketa penal eta militar guztiak deuseztatzea, arbitrarioak eta legez kanpokoak izateagatik, biktimei ordaina ematea eta afektatutako artxibo penal eta judizialak berreraikitzea".

Horrez gainera, beste bi mozio ere onartu zituzten: Pablo Ibar presoaren aldeko errekurtso bat ipintzea eta Amnesty Internationalen *Armak Kontrolpean* kanpainarekin bat egitea.

> GIZARTEA

### Haurdun dauden emakumeendako eta gurasoendako hitzaldia

Maiatzaren 10ean egingo du hitzaldia Udaltzaingoko agente batek. Hitzordua da 18:00etan, Monterronen. Jakinarazi digutenez, iaz hitzarmena egin zuen Udaltzaingoak ospitale eta anbulatorioarekin segurtasunaren gaineko hitzaldiak egiteko. Segurtasun uhalak, umeendako aulkitxoak... aztertuko dituzte. Haurdun daudenendako eta gurasoendako hitzaldiak dira.

> KULTURA

### Bihar ikastolaren eguna ospatuko du Arizmendik

Umorea gai moduan aukeratu du Arizmendik ikastolaren eguna ospatzeko. Ospakizuna 11:00etan hasiko da; etxafuegoak, puzgarriak, lantegiak... izango dituzte; 11:30ean hasita, berriz, Andaluzia, Extremadura eta Galiziako etxeei omenaldia egingo diete: 13:00etan hasita kale antzerkia eta 14:30ean hasita bertso herri-bazkaria egingo dute, besteak beste.

> GIZARTEA

### Gurasoak behar dituzte Saharako umeak hartzeko

Nubik, Arrasateko Saharako lagunen elkarteak, laguntza eskaera egin du, udan ume saharar errefuxiatuak hartzeko gurasoak behar dituztelako. Martxoan hasi zen Nubi familia bila, eta batzuk lortu dituzten arren, gehiago behar dituzte. Ekimenean lagundu gura duenak dei egin behar du honako telefonoren batera: 685 72 48 16; 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.



BEDOÑABE HAURRESKOLA
Alfonso VIII kalea, (San Andres auzoa) ARRASATE

(0-2 urte bitarteko umeendako)
Matrikulazio epea zabalik

Noizko: 2006ko irailerako
Noiz: maiatzaren 2tik 12ra
Non: Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan
Tel: 943 79 76 86

Haurreskolak



EXOTIKOA Produktu exotikoak ekartzen dituzte Erdi Aroko Azokara, baita jakiak ere; argazkian, iazkoa. GOIENKARIA

**KULTURA EGITARAUA** > MAIATZEKOA

# Maiatzeko kultura egitaraua aprobetxatu eta Erdi Aroko III. Azoka iragarri du Udalak

Maiatzaren 20an eta 21ean egingo dute aurtengo azoka; bestalde, kultura egitarauaren barruan iragarri dute, baita ere, zinema eskaintza zabala

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Antzerkia eta zinema dira maiatzerako Udalak antolatu duen kultura egitarauaren oinarri nagusiak. Esaterako, oraingo asteburuan Karra Elejalde aktorearen *La Kabra y Miss Yoe's* antzezlana egingo dute Amaia antzokian.

Eta antzerki kontuekin jarraituz, hil bukaerarako iragarri dute Berlingo Floz konpainiaren *Delusio* antzezlana. Lan bitxia da hori; berbak izan ezik, denetik du-eta: musika, dantza, maskarak eta umorea. 19:30ean da hitzordua.

**ZINEMA SAIOAK**

Zinemari dagokionez, berriz, *Truman Capote* filma bota dute oraingo asteko egueneko saioan. Eta hurrengo eguenerako aukeratu dute Michael Haneke zuzendariaren *Cache escondido* drama. Eguenetako film guztiak 20:30ean hasiko dira. Bestelako filmak dira *Tsotsi* (maiatzak 18) eta *Manderlay* (maiatzak 25).

Bestalde, zinemarekin jarraituz, asteburuetan ere egingo dituzte zinema saioak. Oraingo honetan ez da halakorik egongo, antzerkia dagoelako. Baina hurrengo asteburuan, maiatzaren 13an (19:30 eta 22:00) 14an (19:30) eta 15ean (20:30), Pedro Almodovar zinemagilearen *Volver* drama emango dute. Beste bi hitzorduak honako haiek dira: *Firewall* (maiatzaren 20-21-22) eta *Instinto Básico 2* (27 eta 29).

**BESTELAKOAK**

Bukatzeko, zinema eta antzerkiaz gainera, oraingo astean hasi den sukaldaritza ikastaroa ere antolatu du Udalak. Eguaztenero izango da, maiatzaren 31ra arte.

UMEENDAKO ZINEMA

## Hiru filmetatik bat euskaraz, umeendako

Umeendako eskaintza ere antolatu du Udalak maiatzerako: zinema saioak, maiatzaren 14an hasi eta 27ra arte. Hala, maiatzaren 14rako aukeratu dute animaziozko *El Castillo Ambulante* filma (7 urtetik gorakoendako); maiatzaren 21erako, berriz, *Ice Age 2, El Deshielo* aukeratu dute; hori ere animaziozko filma da, (guztiendako). Eta maiatzaren 27an emango dute euskarazko filma: *Iratxoen Erregea* (guztiendako). Saio guztiak 17:00etan hasiko dira.

**KULTURA ETA EUSKARA** > DIRULAGUNTZA DEIALDIA

# Maiatzaren 12a baino lehen eskatu behar dira laguntzak

Kultura, euskara eta hezkuntzarekin lotutako elkarteek eska ditzakete

**U.M.** > ARRASATE

Kultura elkarteei begira, 40.000 euro gorde ditu Udalak, kultura ekintzak egiten dituzten irabazi asmo bako elkarte eta bestelakoendako.

Euskaltegietan ikasten dabiltzatenendako ere emango du laguntza: 4.210 euro gorde ditu. Euskara kontuekin jarraituz, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz ipintzen dutenendako 5.000 euro ditu Udalak. Helduen euskalduntze-alfabetatzean dabiltzan euskaltegiendako, berriz, 30.000 euro. Eta oro har, euskararen erabilera bultzatzen dutenak laguntzeko 38.000 euro gorde ditu.

Hezkuntzari dagokionez, irabazi asmo bako proiektuak lantzen dituzten ikastetxeen artean banatzeko 210.000 euro ditu; eta guraso elkarteetarako 10.000 euro. Bukatzeko, hezkuntzaren gaineko proiektuak bultzatzeko 5.000 euroko aurrekontua du.

**EUSKARA** > EUSKALGINTZAREN KANPAINA

# Eskoletako euskal ereduetan matrikulatzeko eskatu dute

Arrasateko Euskalgintzak beharrezkoa ikusten du hori bultzatzea

**U.M.** > ARRASATE

Euskalgintzak aditzera eman du D ereduko datuen bilakaera positiboa izan arren, beharrezkoa ikusten duela euskarazko hizkuntzaren aldeko sentsibilizazio eta motibazio kanpaina egitea. Hala, aprobetxatu dute apirilaren 24an zabaldu zutela heziketa zikloetan eta batxilergoan 06-07 ikasturterako aurre-matrikulazio sasoia kanpaina egiteko. Haren bitartez, "gonbidatzen" dituzte ikasleak "euskararen bidetik jarraitzeko". Hori egiteko 600 diptiko banatu dizkiete ikasleei eta gurasoei sentsibilizazio gutunak bidali dizkiete.

Bilakaeraren gaineko zenbait datu helarazi dizkigute: 02-03an ikasleen %90 zebiltzan D ereduan eta %10 A ereduan. Orain, berriz, ikasleen %89 dabiltza D ereduan eta %11 A ereduan.

> KALEEN IZENAK

## Toponimiari eta historiari begiratu diote, kale eta plaza berrien izenak aukeratzeko orduan

Obren ondorioz, gune berriak sortu dira Arrasaten; eta gune horiei izena ipini die udalbatzarrak azkeneko osoko bilkura aprobetxatuta. Erdialdean eraikitzen dabiltzan aparkalekuaren gaineko plazarendako Biteri plaza onetsi du udalbatzarrak. Zerrajera gunean sortu diren kale bietako bati, berriz, Aprendices ipini diote (Escuela de Aprendices zegoelako han) eta besteari, Txaeta kalea (toponimoa). Bukatzeko, Uribarri auzoan, batez ere baserrien izenak erabili dituzte kaleak bataiatzeko: Ibarreta kalea, Isasi kalea, Goiru kalea eta Erguinarro kalea sortuko dituzte han. Itxaropena ere ipini diote beste kale bati, Itxaropenaren Ama ermita dagoelako han.

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE



ESKUBALOIA > IGOERA FASEA

# Ford Mugarrik geroago eta gertuago du Euskadiko Bigarren Nazional Maila

## Astelehenean Urdaneta 32-21 mendean hartuta, Arrasatek mailaz igotzeko aurrerapauso galanta egin du

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bigarren Nazional Mailara (Euskadiko Senior Maila) igotzeko malda bat gutxiago gainditu behar du Ford Mugarrik. Egia esateko, Arrasateren, Donibaneren eta Urdanetaren artean dago lehia, baina geratzen diren lau partiduetan gerta liteke ezusteren bat edo beste egotea.

Kontua da astelehenean Arrasatek garaipen garrantzitsua erdietsi zuela Urdanetaren kontra: "Euren jokoa aurreikusten jakin genuen, eta hori izan zen partiduko gauza onena", esan digu Andoni Arandok: "Lehenengo minutuetan blokeatuta kantxaratu ginen, eta seigarren minuturako kontrarioa 0-3 zen aurretik". Entrenatzailearen esanetan, baina, igarri egin zen Nestor eta Jonan jokalarien lana: "Atezainak berak ere partidu ona egin zuen, Igor oso ondo ibili zen". Hala, kontrarioaren eraso egiteko modua ezagututa, bigarren zatian Arrasateko defentsak ezereztu egin zuen Urdaneta: "Lehenengo zatian parean egon ziren indarrak. Baina bigarren zatian burua galdu zuten, eta ederto aprobetxatu genuen hori. Hobetze aldera, defentsa ere aldatu egin zuten, eta, lerro artean tarte handiagoa utzita, mesede egin ziguten, errazago egiten genien-eta gola".



NESTOR Urduliz taldearen kontrako partiduan, Iturripen. J.A.

### BI PARTIDU IRABAZTEA NAHIKO

Horiek dira Arandok eta taldekideek egin dituzten kontuak. Geratzen diren lau partiduetatik bi irabazita, seguruenik, Arrasate mailaz igoko da. Horretarako, baina, lehenengo eginbeharra da bihar Gusla Urduliz taldearen kantxan irabaztea: "Iturripen gol bateko aldeagatik irabazi genien, eta han irabaztea ez da erraza izango. Ondo ezagutzen gaituzte, eta epailearen lana erabakigarria izango da. Igoera faseko lehenengo bi partiduetan epaitu gintuzten moduan epaitzen bagaituzte, ez dugu ezer egiterik. Gainera, euren kantxa pilotaleku moduko bat da; ez da erraza izango".

# Izkin eta Gorbeian ibilita, hurrengoa Arrasaten

Besaide MTB taldekoak Gorbeiako tontorrera iritsi ziren joan den zapatuan, nahiz eta gurutze inguruan ez zen giro... Hala, urteko lehenengo bi irteerak eginda, hurrengoa Besaideko Mendi Astearen barruan egingo dute, maiatzaren 27an. Irteera hori Arrasateko inguruetan egingo dute, eta aurrerago, Aralarrera eta Toloño ingurura joateko asmoz dabiltza. Bestalde, Besaidek maiatzaren 13an eta 14an egingo du mendiko eskiko azken irteera: Aneto eta Madaleta ingurura.



MIKEL BERGARA

## futbitoa zaldibar

### EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Dribling - Aurrera Bolie | **8-2** |
| Billy & The Cowboys - Lasagabaster | **3-4** |
| Arrano Taberna - Pippol | **6-2** |
| Saukelu Scream - Iriztu Taberna | **2-4** |
| Tomahawk - Iluntz | **7-5** |
| HLB 108 - Berdes Bremen | **6-4** |
| Saukelu Scream - Iriztu Taberna | **2-4** |

### PARTIDUAK

**Maiatzak 6, zapatua**

| | | |
|---|---|---|
| **11:50** | Aurrera Bolie - Fuxxion | **Pippol** |
| **13:00** | THC - Pippol | **Aurrera B.** |
| **16:00** | Berdes Bremen - AT Celaya | **AC Surc.** |
| **17:00** | Dribling - AC Surcos | **Berdes Bremen** |

**Maiatzak 7, domeka**

| | | |
|---|---|---|
| **10:50** | Tomahawk - Iriztu Tab. | **Betrayer** |
| **12:00** | Betrayer - HLB 108 | **Tomahawk** |
| **13:00** | Saukelu Scre. - Arrano tab. | **HLB 108** |
| **14:00** | Billy & The...- Iluntz | **Arrano Tab.** |
| **15:00** | Irish Pub - Abokajarro | **Billy & The.** |

### SAILKAPENA

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Dribling | 46 | 17 |
| **2.** | Betrayer | 37 | 16 |
| **3.** | Lasagabaster | 37 | 16 |
| **4.** | Iriztu Taberna | 35 | 16 |
| **5.** | Saukelu Scream | 31 | 17 |
| **6.** | Abokajarro | 27 | 16 |
| **7.** | Arrano taberna | 27 | 16 |
| **8.** | Pippol | 26 | 17 |
| **9.** | Iluntz | 25 | 17 |
| **10.** | Fuxxion | 25 | 16 |
| **11.** | Ac Surcos | 24 | 15 |
| **12.** | Tomahawk | 24 | 17 |
| **13.** | AT Celaya | 21 | 16 |
| **14.** | Billy & Yhe cowboys | 21 | 17 |
| **15.** | Irish pub Dublin | 21 | 15 |
| **16.** | HLB 108 | 21 | 17 |
| **17.** | Aurrera Bolie TMT | 15 | 15 |
| **18.** | Berdes Bremen | 12 | 17 |
| **19.** | Txoponbeixek | 6 | 15 |
| **20.** | THC | 0 | 15 |

### Driblingek agindu du Ligan

Liga Txapelketa erregularra amaitzeko bi jardunaldi geratzen dira, baina bistan da Dribling izango dela irabazlea. Talde horrek partidu bat galdu eta beste bat berdindu du, eta gainontzeko guztiak irabazi egin dituzte. Hala, dagoeneko sailkatuta daude Dribling, Betrayer, Lasagabaster eta Iriztu.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak




# Arrasate hizpide

**DEBARRI**
**Inazio Lakuntza Arrasateko alkatearekin berbetan**
Eguaztenean, maiatzaren 10ean, 21:45ean, Alberto Gorritibereak aurkeztuta
**Zure galderak egiteko: www.goiena.net/eztabaidak**

DEBARRI: BABESLEA GRUPO ARKAUZ ARRASATE-ARETXABALETA

Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**MENDEKOSTE JAIAK** > ZEZEN IKUSKIZUNAK

# Aurtengo Mendekoste jaietan ere zezen-plazarik ez jartzea erabaki du Udalak

## Zezenzaleak taldekoak haserre daude eta diote hurrengo urtean ez dutela ezer proposatuko

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Ertzaintzaren parean egiten ari diren etxebizitza berrien artean edo Seminarioan jarri gura zuten zezen-plaza Zenzenzaleak taldekoek, baina Udalak ezetz erantzun die, lehen tokia arriskutsua delako eta bigarrena ez delako Udalarena eta, gainera, aparkaleku gisa erabili gura dutelako Mendekoste jaietan.

Zezenzaleak taldekoak haserre daude Udalaren jarrerarekin, batez ere "Kultura batzordea ados zegoelako zezen ikuskizunekin eta antolatzen hasteko esan zigutelako", dio Iñigo Almortzak. "Baldintza bakarra zen zezenketarik ez egitea, animaliarik ez hiltzea. Guk onartu egin genuen hori eta 22 lagun zetozen Kubatik errekortadoreak, *poney*-ak, rodeoa eta antzerako ikuskizunak eskaintzera", dio Almortzak. "Iaz ere berdina gertatu zitzaigun eta datorren urterako ez dugu ezer antolatuko, guk ez dugu inoiz ezer gehiago proposatuko, ez digute gero kasurik egiten eta", jarraitu du.

**LEKU FALTA DA ARAZOA**

Victoriano Gallastegi alkateak esan du zezen-plaza jartzeko lekurik ez dagoela Bergaran. "Euren proposamena lur zoru pribatuan jartzea zen eta jabeek ezetz esan dute. Zezen-plaza jartzeko toki asko behar da eta ez dago behar besteko udal lurrik".



ARITZETA

## Bi kontzertu eman ditu Aritzetak Asturiasen

Bi kontzertu eman ditu Aritzeta abesbatzak Asturiasen joan den asteburuan: Pola de Siero herriko eliza nagusian eman zuen lehena eta Ribadesellako parrokian bigarrena, Pola de Sieroko abesbatzarekin batera. Imanol Urtzelai eta Larraitz Agirreren zuzendaritzapean abestu zuten. Pola de Sieroko abesbatzarekin duten harremana dela-eta egin zuten bidaia.

> UDALEKUAK

### Udaleku irekietara joan gura duten umeek izena eman behar dute

Udaleku irekietara joan gura duten 3 eta 14 urte bitarteko umeek maiatzaren 12a baino lehen eman behar dute izena. Uztailaren 3tik 21era egingo dituzte udaleku irekiak herrian. 10-11 ume egongo dira talde bakoitzean eta ordurako prestatu dituzten ekitaldiez gozatu ahal izango dute. Izena Xipizaron eman behar da, 17:00etatik 19:00etara.

> SINADURA BATZEA

### Eskolak Euskaldundu kanpainaren amaiera ekitaldia da zapatuan

Eskolak Euskaldundu kanpainaren amaiera ekitaldia egingo dute bihar, zapatua, Munibe plazan, 12:00etan. Kanpaina horrek 30.000 sinadura batu gura ditu Euskal Herrian maiatzaren 27a bitartean; horietatik 1.000, Bergaran. Herriko lantegiek, ikastetxeek, herritarrek eta hainbat elkartek egin dute bat kanpainarekin, eta heldu dira 1.000 sinaduretara.

> ZIENTZIA

### Zientzia Azokan hartu dute parte Aranzadi ikastolako 15 ikaslek

Kutxaguneko Zientzia Azokan hartuko dute parte gaur, eguba-koitza, eta bihar Aranzadi Ikastolako Astronomia taldeko 15 ikaslek. Donostiako Zientzia Museoak lehen aldiz antolatu duen azoka da hori eta bost esperientzia egingo dituzte hemengo ikasleek: ur suziriak, motore elektrikoa, ur iturria, kamera iluna eta lata magikoak.

> LEHEN JAUNARTZEAK

### Oraingo asteburuan 35 jaunartze ospatuko dituzte San Pedron

Hiru domeka jarraian egingo dituzte jaunartzeak Bergaran; domekan lehenengo saioa egingo dute, San Pedron. 35 neskamutikok hartuko dute Jauna lehen aldiz. Hilaren 14an egingo dute bigarren saioa, hori ere San Pedro parrokian. Eta hirugarrena Santa Marinan izango da, hilaren 21ean. Kasu horretan, 52 umek egingo dute jaunartzea.

**bere ustez**



Aitziber Azkondo

## Opor egunen osteko gogoeta

Opor bueltan izaten dugun albiste txarren jarioa ez da eten oraingoan ere gurean. Errepideetako istripuetaz ari natzaizue, kasu honetan Oñatiko gazteari gertatutako zorigaitzaz. Bizi dugun autoaren erreinuan, auto istripuak dira gure gizarteko heriotzen lehen arrazoia. Eta autoa alde batera uzteko asmorik ez dugunez, ezta ahaleginak egiteko xederik, zein da irtenbidea? Kontuz eta adi ibili gaitezen gutxienez.

Hala ere, oporrak opor beti. Horiek ez digute sentsazio txarrik ezta pentsaera ezkorrik ekartzen, nonahi egonda edo zernahi eginda. Terapia hoberena dira egunerokotik eta ezbehar askotatik alde egiteko. Nire kasuan behintzat bai.

**"Oporrak opor beti. Horiek ez digute sentsazio txarrik ezta pentsaera ezkorrik ekartzen"**

Tamalez, lan bikoitza dugu bueltan, burua jaso behar baita eta makalaldi garaia gainditu. Horrelakoetan, psikologo batzuen aburuz, asteburuak opor gisa hartu behar dira eta eguneko 8 ordu lanean bagaude, gainontzeko orduak disfrutatu gustuko gauzak eginez. Niri ez zaizkit kalkuluak irteten, beraz gehienon antzera, opor egunek utzitakoa gogoratu eta ahal den neurrian egindako zuloa estaltzeko esperantzarekin aurrera egitea besterik ez zait gelditzen. Besterik bururatzen bazaizue, aizue, entzuteko prest nago.

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



SOINUAK Mundu osoko soinuak entzun ahal izateko CD-ROM interaktiboa izango da erakusketan. EDU MENDIBIL

**ERAKUSKETA** > INAUGURAZIOA GAUR IZANGO DA, 19:00ETAN, BISITA GIDATUA EGINDA

# Mundu zabaleko musika instrumentuak Aroztegi aretoan

Kote Loidi eta Lurdes Iartza senar-emazteek bost kontinenteetako 150 instrumentu jarri dituzte ikusgai, maiatzaren 28ra arte

**EDU MENDIBIL**> BERGARA

*Ikusteko musika, mundu guztiko instrumentuak* erakusketa zabalduko da gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

Erakusketa horretan, mundu zabaleko hainbat etnia eta kultura musikalak ordezkatzen dituzten 150 instrumentu izango dira ikusgai hilaren 28ra arte. Kasu gehienetan, euren errito, tradizio eta folklorean erabiltzen dituzten musika instrumentuak, artisau lanak dira.

Kote Loidi eta Lurdes Iartza senar-emazteek jarritako erakusketa da. Urte mordoa daramatzate hango eta hemengo instrumentuak batzen eta 1992a ezkero ari dira erakusketak antolatzen. Kote Loidi irundarrak zera adierazi digu: "Ni txikitan hasi nintzen txirulen bilduma egiten eta handik aurrera zabalduz joan zen... Gaur egun 2.800 instrumentu inguruk osatzen dute gure fondoa. Azken urteotan Interneti esker eta hainbat bidaiari esker joan gara bilduma osatzen. Baina ez pentsa horrenbesteraino bidaiatu dugunik. Esate baterako, Afrikan ez gara egon, Ceutan ez bada...".

Musika instrumentuen barruan diren lau musika familia ordezkatuta daude erakusketan: "Euren kabuz musika sortzen dutenak (marakak, esaterako), mintz bidezkoak (danborrak) hari instrumentuak eta haize instrumentuak. Era berean, familia horiek hainbat azpifamiliatan banatzen dira, eta, hain zuzen ere, 43 azpifamilia daude".

Horrelako erakusketa bat antolatzeak ikerketa lan sakona eskatzen du, eta Kote Loidiren arabera, interesgarria izan daiteke antropologia, etnografia edo musikarekin interesatutako ororentzat. Loidik zera azpimarratzen du: "Instrumentuek, askotan, herrialde edo nazio baten izpiritua ezin hobeto ordezkatzen dute, eta erakusketan, bost kontinenteetako 75 herrialderen musika instrumentuak ditugu".

**HAINBAT HARRIBITXI**

Zenbait kulturak albora laga dituzte berezkoak zituzten instrumentuak, eta modernoengatik ordezkatu: gitarra elektrikoa, akordeoia... eta beste hainbat. Aroztegiko erakusketan hainbat harribitxi aurki daitezke: esaterako, bi giza burmuinekin Mongolian egindako danborra edo Kongon, hileta-elizkizunetan, Bembe etniak erabiltzen zituen tronpak. "Garai batean lau tronpa jotzen zituzten hiletetan eta horietako bakoitzak aita, ama, semea eta alaba ordezkatzen zituen. 1,30 metro inguruko tronpak dira, eta tronpak duen irudiak beti egon behar zuen interpretearen burua baino gorago. Aroztegin ikusgai dagoen tronpa amaren irudiari dagokio", diosku Loidik.

**JAIAK** > DOMEKAN JAIA IZANGO DA IRUKURUTZETAN

# Erromeria izango da gaur Munibe plazan eta domekan Irukurutzetan

Ekaitz, Jone eta Aitor trikitilariak eta Etxabe anaiak gaurko erromerian

**E.M.** > BERGARA

*Munibe plazara dantzara!* egitarauaren barruan, lehenbiziko erromeria izango da gaur, egubakoitza, 19:00etan. Ekaitz bergararrak, Jone eta Aitor trikitilariek eta Etxabe anaiek alaituko dute erromeria. Datozen bi egubakoitzetan ere erromeriak izango dira Muniben. Hurrengo astekoa, Aritz, Xabi eta Enaitz trikitilariak eta Izer eta Alabier anaien eskutik. Bestalde, maiatzaren 19rako herri afaria antolatu dute. Txartelak kultura etxean eta Kortazaren salgai daude, 6 euroren truke.

**IRUKURUTZETAKO ERROMERIA**

Bestalde, domekan Irukurutzetako erromeria ospatuko da, Txurrumilo Kultura Taldeak eta Atseden Txaboleta elkarteak antolatuta. Pago bedeinkatuan meza izango da 11:30ean, jarraian salda eta txorizoa banatuko dituzte, bazkaria 13:30ean izango da (nork berea eramanda) eta bazkalostean erromeria. Jaitsiera 18:00etan egingo dute.

> ANTZERKIA

### 'Euskera sencilloaren manifiestoa' antzezlana gaur gauean Pol-Polen, Bikoteatroaren eskutik

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Bikoteatroa taldeak *Euskara sencilloaren manifiestoa* eskainiko du gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:30etan. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek euskararen egoeraren gaineko ikuspegi bitxia ematen dute: "Orain dela 40 urte hasi ginen euskara ikasten eta dagoeneko euskaltegi-adiktoak gara, euskara-dependienteak, baldintzomano eta subjuntibopatak. Euskararen egoera aldatzeko Euskaltzaindia berria sortu dugu eta manifiestoa da lehen emaitza".

> JAIAK

### Pazkoetako koadrilen eguna antolatzeko bilera izango da martitzenean kultura etxean

Mendekoste jaietako koadrilen eguna antolatzeko bilera izango da martitzenean, hilaren 9an, kultura etxean, 19:00etan. Kultura Zerbitzuak eta herriko koadrilek dei egiten diete antolaketan parte hartzeko interesa duten guztiei bilerara joan daitezen.

> MUSIKA

### Udal Musika Bandaren emanaldia domekan eta erakusketak kultura etxean eta Nahikarin

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua egingo du domekan Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Aurretik kalejira egingo dute, 11:00etan, eta San Migel-Pe elkartearen ereserkia joko dute.

Bestalde bi erakusketa zabalduko dituzte gaur: batetik, kultura etxean, *Hegazti sarraskijaleak* argazki erakusketa egongo da maiatzaren 20ra arte eta, bestetik, Iñaki Ibarzabalen margo erakusketa inauguratuko dute gaur Nahikarin, 19:30ean.

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

**ESKUBALOIA** > BERGARA-ALOÑA DERBIA

# Bergarako taldeak eskura ditu Kopa Txapelketako finalerdiak

Bergarak Kopan ez du partidurik galdu, eta asteburuan boladari jarraipena eman gura dio, nahiz eta derbia jokatuko duen

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Liga amaitzeko hainbat partidu geratzen zirenean, Bergarako taldeko entrenatzaileetako batek, Josetxo Muniategik, aurreikusten zuen Bergarak lan txukuna egin behar zuela Kopan. Orain, entrenatzaile lanetan kide duen Ander Alvarezekin izan gara: "Kopan oraindik ez dugu partidurik galdu, eta bi partidu geratzen badira ere, eskura ditugu finalerdiak". Bergarak derbia jokatuko du Arrikrutz Oñatiko Kobak taldearekin: "Antzekotasun handiko bi talde gara, biak hala biak jokalari oso gazteekin gabiltza-eta. Eurek goitik behera aldatu dute taldea, eta gu moduan, Ligan kategoriari neurria hartzen ibili dira".

Oñatiko taldeak ez du txapelketan aurrera egiteko aukera, bai ordea Bergarak: "Bi partidu geratzen dira, eta lehenengo postuan sailkatzen bagara, badakigu finalerdia etxean jokatuko dugula. Guretako hori da garrantzitsua, etxean ez gara-eta inoren beldur. Beste multzoari dagokionez, ez genuke gurako Ormaiztegiren kantxara joan behar izatea. Horretarako, lehenengo sailkatu behar".

**UROLA BAINO HOBETO**

Orain momentuan Urola da lider, baina mahoneroek partidu bat gutxiago jokatu dute. Hala, Aloña eta Allerru mendean hartuta Bergara lehena sailkatuko litzateke, eta finalerdia etxeko zaleen aurrean jokatuko lukete.



SHOTOKAN

## Shotokan karate taldekoak Biarritzen

Joan den asteburuan egin zuten, Biarritzen, mugen arteko bigarren kopa txapelketa. Guztira 80 karateka izan ziren, Baiona, Hendaia, Biarritz, Donostiako Bera-Bera eta Bergarako klubetakoak. Hala, Iparraldeko karateken aurrean Shotokaneko infantilek maila polita erakutsi zuten. Nor bere kategorian, lehena izan zen Joane Amasorrain; bigarren sailkatu ziren Iker Moreno eta Eneko kruz; hirugarren izan ziren Markel Lopez eta Deia Kerexeta eta laugarren sailkatu zen Julen Kerejeta.

> PILOTA

### Bergara Hirian, Igor Gutierrezek ere aurrera egin du

Jon Larrañagarekin batera, Igor Gutierrez pilotari Bergararrak ere aurrera egingo du martitzenean Renobalesekin batera Olaetxea eta Jauregi 22-8 mendean hartu eta gero. Kontrarioek izan zuten tantoren bat gehiago egiteko aukera, baina irabazleek nagusitasuna erakutsi zuten.

> FUTBOLA

### Bigarren postuan jarraitzea, beharrezkoa

Ilintxaren zelaira joango da Bergara bihar arratsaldean (16:00). Mahoneroek ezin dute akatsik egin, Zumaiakok kale eginda berriro ere bigarren daudelako, baina aldea oso txikia delako. Jakin, oraindik ez dutela konpondu Urolaren kontra jokatzeke duten bost minutuen auzia.

**labegaraieta**

**PARTIDUAK (KOPA TXAPELKETA)**

Maiatzak 6, zapatua (barruan)

| | | |
|---|---|---|
| 09:30 | Makanaki-Niu Tim | Antolatzaileak |
| 16:30 | Paco Cia - Agirrebeña | Errotagain |
| 17:30 | Guri Guri-Errotagain | Sailkatu dena |

Maiatzak 7, domeka (barruan)

| | | |
|---|---|---|
| 18:30 | Kalaveras-(Guri Guri-Errotagain) | Ant. |

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

ESKAIOLAZKO DEKORAZIOA
J. GIL
Artekale 20 - 3
•
Tel.: 615 74 40 95
•
20570 BERGARA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA




GANTXEGI

Telesforo Aranzadi 2 BERGARA
Tel.: 943 76 00 79

Behar duzun guztia aurkituko duzu



GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MOBEL ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Kalitatearekin bizi nahi duzu etorkizuna?
Har ezazu gosari. Ez du preziorik.
Arkauz etxean zure beharrak ase egingo ditugu.

**Arkauz zure etxea da.**



**BEHATOKIAK** Urkulu inguruan bizi diren hegaztiak gertutik jarraitzeko behatokia jarri du Naturgintza fundazioak; egunotan beste bi jarriko dituzte. M.A.

**INGURUMENA** > URKULU, HEGAZTIEN BIZITOKI

# Behatokiak Urkulu inguruko hegaztiei jarraipena egiteko

Leku estrategikoa da Urkulu hegaztiendako eta 99 espezie ugaltzen dira bertan

2000 ezkero behera egin du hegaztien kopuruak, eta ikertzen dabiltza zergatik

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Urkulu biziberritu gura du Udalak, eta Naturgintza fundazioak egindako proiektuaren lehenengo fasea bukatzen dabiltza. Ibilbidea asfaltatu zuten lehenengo; kanpotik ekarritako zuhaitz eta zuhaixkak kendu eta bertakoak landatu gero; eta bukatzeko informazio panelak eta behatokiak jarri. Goroeta auzo parean jarri dute lehenengoa, eta ondoren beste bi jarriko dituzte.

**HIRU BEHATOKI EZBERDIN**

Hiru behatokiak ezberdinak izango dira: urtegiaren sarreran jarriko dutena ezintasun fisikoak dituztenendako egokitua egongo da; txikiena uharte parekoa izango da eta zabalik egongo da; eta dagoeneko jarrita dagoena garaiena da, urak busti ez dezan. "Inguruarekin bat eginik egongo diren behatokiak jarri gura izan ditugu", dio Kiko Alvarezek, Naturgintza fundazioko kideak. Eta edonor hurreratu ahal izango da behatokietara hegaztien joan-etorriak jarraitu, habiak begiztatu edo igerian zelan egiten duten ikusteko.

**LEKU ESTRATEGIKOA**

Gipuzkoan dagoen tokirik garrantzitsuenetakoa da Urkulu hegaztiei dagokienez. Negua barrualdeko hezeguneetan pasatzen duten espezien %87k hautatzen dute Urkulu pausaleku moduan eta erroldatutako espezie guztien artean %64k. Gainera, 99 espeziek aukeratu izan dute ugaltzeko toki; hau da, Gipuzkoako beste inon ez bezala. "Argi dago leku estrategikoa dela Urkulu, batez ere ahate, lertxun eta uretan ibiltzen diren espeziendako".

Hala ere, 2000 ezkero behera egin du Urkulura datozen hegazti kopuruak. Foru Aldundiak ikerketa egiten du urtero jarraipena egiteko eta horixe diote emaitzek. "Gipuzkoako beste leku batzuetan ez bezala behera egiten du kopuruak eta ez dakigu oso ondo zergatik den", dio Kiko Alvarezek. Eta gaineratu du: "Horren inguruko ikerketa egiten gabiltza, eta faktore asko egon daitezke atzean: habitat aldaketa, uraren materia organiko edo nitrogeno kopuru aldaketa, eta beste batzuk".

Horren guztiaren aurrean biziberritu egin gura du Urkulu Naturgintza fundazioak, Udalaren aginduz. Garai baten kanpotik ekarritako landareak kendu zituzten urtarrilean, batez ere Larrino auzo azpialdean, eta horien ordez bertakoak landatu: elorri zuriak, lizarrak, urkiak... "Babesleku funtzioa betetzearekin batera hegaztiendako elikagai izango dira, besteak ez zirena", dio Naturgintzako kideak. Gainera, ur gaineko uhartetxoak jarriko dizkiete ahateei pausaleku gisa. Aurten bukatuko dituzte iaz hasitako lan guztiak, eta ondoren mantentze-lanak egingo ditu Naturgintzak.

HEGAZTIAK

**127**

**ESPEZIE BEGIZTATU DITUZTE**

Urkulun atzemandako 127 espezie horietatik, 36 mehatxupean dauden espezien euskal sailkapenean daude, 24 Espainiako liburu gorrian eta beste 24 habitaten arauetan.

KONTUAN HARTZEKO

## Urtegi inguruko hegaztirik aipagarrienak

Hegaztiendako bizileku garrantzitsua da Urkulu, Gipuzkoako barnealdean dagoen garrantzitsuena. 127 espezie sailkatu dituzte eta horietatik 99 bertan ugaltzen dira. Espezie horien guztien artean hainbat dira aipagarriak: murgil handia (*Podiceps Cristatus*) esaterako, Gipuzkoan ez delako beste inon ugaltzen eta txilinporta txikia (*Podiceps Ruficollis*) ere badago. Gainera, mozoloa (*Athene Noctua*) ugaltzen da urtegi inguruan, Gipuzkoako toki bakarra. Arrano arrantzalea (*Pandion Haliaetus*) eta lertxun gorria (*Ardea Purpurea*) ere aipagarriak dira.

L. GONZALEZ
MARGOAK
Pintura orokorra eta papereztatua
Basabe poligonoa F6 ARETXABALETA Tel.: 686 113 581

# AUTOAK

Egubakoitza / 2006eko maiatzaren 5a / GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA



AZKEN BERRITASUNAK

GIDA-BAIMENA PUNTUKA

LUR-OROTARIKOAK

AUTOEN KUTSADURA

AUTO AZOKAK

ASEGURUAK

1 FORMULA

AZALA: OXEL ARRIETA / ARGAZKIA: ALWAREX






KANPAZAR

**Zatoz ALFA 159 ezagutzera!**

**TAILERRA** Bizkaia Etorbidea z/g **ARRASATE** Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84
**ERAKUSKETA** Araba Etorbidea 32 **ARRASATE** Tel.: 943 79 77 66




**Salmenta arduraduna:** IÑIGO ALMORZA.
Poltsikoko Tel.: 656 78 12 04

GURE MARKAK:

NISSAN
GALLOPER
MITSUBISHI MOTORS

**BIGARREN ESKUKOAK:**
- Autoak.
- Furgonetak.
- Lur orotarikoak.

ELURAUTO S.L.

**ETA, GAINERA:**
**GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIRUA**

T. Blanco

- 29 urte zuen zerbitzura.
- Autoak eta kamioiak konpontzeko tailerrak.
- BRIDGESTONE zerbitzu ofiziala.

■ FERIAK

# Madrilek erakutsiko ditu berritasun handienak

XABIER URTZELAI

**Aurten, 1 Formula Montmelon jarraituko duten zaleek ez dute automobilaren feriaz gozatzerik izango. Datorren urtean itzuliko da 2005ean horrenbeste bisita (1.103.000) izan zituen feria Bartzelonara. Maiatzaren 26an, berriz, automobil etxeek Madrilgo IFEMA azokan erakutsiko dituzte apustu berriak.**

Urtarrilean Detroiteko feriak ireki zuen automobilen azoken denboraldia, eta Genevak hartu zion errelebua martxoan. Amerikarrek ondo dakite ikuskizunak zelan saldu, eta automobilaren feria nagusian erakutsi zuten hori, beste behin. Europako eta Asiako automobil etxeek apustu handia egin zuten, baina amerikarrek eman zuten albistea, euren diseinu berrietan kutsu europarra antzematen zen-eta. Hain zuzen ere, Dodge etxea izan zen izar nagusia, Europan salduko duten Caliber modeloa aurkeztuta.

**EUROPAKO HANDIA GENEVAN**
Martxoan egin berri duten Genevako ferian, berriz, etorkizuneko diseinuetan oinarritu ziren automobil etxeak. Erakusleiho suitzarrean, teknologia aurreratuenaz egindako ibilgailuak erakutsi zituzten. Hala, publikoaren aurreikuspenak bete egin zituzten, besteak beste, Audi Roadjet, Saab Aero X, Citroen C-sport Lounge eta halako modeloek. Erakusleek ahalegin bereziak egin zituzten kapot barruan gura beste zaldi sartzen, motorizazio handien alde egin zuten-eta. Horrekin batera, merkatuak gero eta gehiago eskatzen ditu SUV edo erabilera askotariko automobilak; gose hori asetzeko aurkeztu zituzten Audi eta Mercedes etxe alemaniarrek A6 Allroad eta GL modelo berriak. Errepidean nahiz mendian ibiltzeko ibilgailuak dira, nahiz eta erosle gutxik ateratzen dioten benetako errendimendua. Aditutuek esaten duten moduan, klase soziala ondoen bereizten duten artikuluak dira.



GOIENKARIA
Detroiten erakutsi zuen Audi etxeak Roadjet modelo berria.

**Detroiteko azokan, auto amerikarrek diseinu europarra erakutsi zuten; Dodgek, adibidez**

**Genevako ferian, berriz, auto etxeek etorkizuneko diseinuak erakutsi zituzten**

**Maiatzaren 26an hasiko dute Madrilen (IFEMA) automobilaren azoka**

**MADRILEN**
Maiatzaren 26an Madrilek hartuko dio errelebua egunotan Vigon egiten dabiltzan automobilen azokari. IFEMA azokako 100.000 metro koadro erabiliko dituzte, 50 automobil etxek eta ehunetik gorako erakusketarik dituzten berritasun guztiak erakusteko. Hala, Madrilera gerturatzen direnek dozenaka ekintza egin ahal izango dituzte, ez dira automobilak ikustera mugatuko: 4x4 ibilgailuen bi pista ikusgarri, izotzaren gainean gidatzeko eta derrapatzen ikasteko zona bereziak, kart lasterketak... Gainera, azokak automobilen prestazioak bertatik bertara ikusteko zirkuituak izango ditu, box eta guzti. Eta noski, azoka izanda, bisitariek edozein modelo momentuan bertan erosi ahal izango dute, hori da-eta horrelako azoken xedea: saltzea.

**AUTOMOBIL KLASIKOAK**
Automobil klasikoek ezin dute horrelako ekitaldi batean hutsik egin, nahiz eta IFEMAn bertan antolatzen duten dagoeneko erlikia bilakatu diren autoen gaineko erakusketa. Eta horrekin batera, audioak ere protagonismoa izango du, Forum Car Audio-ren bitartez. Hala, musika-ekipo etxeek azkeneko berritasunak aurkeztuko dituzte, eta hori bakarrik ez, edozein diskotekak gurako lukeen musika-ekipamenduz osatutako autoek IFEMAko eraikina dardarka jarriko dute.

**BARTZELONAN ATSEDENA**
1 Formulako Espainiako Sari Nagusia ikustera joango direnek ezin izango dute asteburua Bartzelonako automobilaren azokarekin biribildu. Hala, madrildarrek benetako ahalegina egin beharko dute, joan den urtean FIRAk izan zuen arrakasta errepikatzeko. Milioi bat lagun baino gehiago gerturatu ziren azokara. Montmeloko zirkuituan ikusleen errekorra gainditu izanak lagundu egin zuen (175.000 ikusle); izan ere, ikusle haiek doan izan zuten azokarako sarrera.

Bitxikerien artean, harrera polita izan zuen hainbat hamarkadatan munduko zirkuituetan ibili diren formulen erakusketak. 27 auto batu zituzten, eta zaleek gozatu egin zuten garai bateko BRM P126, Tyrrell-Ford Cosworth, McLaren M23-Ford Cosworth eta halako klasikoekin.

SIMPLY CLEVER


ŠkodaOctavia TDi
17.600 eurotik aurrera
Gasolinazko FSI eta TDI motorrak, Tiptronic eta DSG transmisio automatikoak, atzealdeko ardatz besoanitza, direkzio elektromekanikoa, 8 airbag, buru-euskarri aktiboak, egonkortasun kontrola (ESP), pneumatikoen presioa neurtzeko sentsorea (TPM), bi guneko Climatronic eta maletatoki zabala, 560 litrokoa.
Octavia 1.6. Active. Penintsularako eta Balearretarako salneurria, garraioa eta Prever Plana barne. Octavia gamaren kontsumoa: [4,9-7,6] l/100 km. CO2 isurketa: [132-182] g/km. Irudiko autoa eta iragarkikoa ez datoz bat.
UDALAITZ · Gipuzkoa etorbidea, 36 · Tel. 943 71 18 70 · Arrasate

## BERRITASUNAK

# Segurtasun eta bolumen han

LEIRE KORTABARRIA

**Automobilgintzako marka guztiek saltzeko gertu dauzkate modelo berriak, udaberri guztietan bezala. Automobil-etxeek ingeniaritzako, teknologia berrietako eta diseinuko aurrerapen guztiak bateratzen dituzte proposamen berri horietan. Hirian egunero ibiltzeko autoak, monobolumenak… Gustu guztietarako autoak daude.**

Dagoeneko merkatuan dituzte automobil-etxeek euren proposamen berriak. Gehienek aurreko gama arrakastatsuei eusten diete, betiere egokitzapen eta berritasunak sartuta.

Azken joerei begira, monobolumenek gero eta eskaera handiagoa dute, eta hori igartzen da diseinu berrietan –besteak beste, Ford S-Max eta Opel Zafirak erakusten dute hori–; bestetik, teknologia berriek gero eta protagonismo handiagoa dute, batez ere segurtasuna eta maniobra erraztasuna bermatzeko.

**DOTOREAK ETA SEGURUAK**

Egunero hirian eta errepidean ibiltzeko turismoek diseinu dotore, moderno eta deportiboa dute, eta gidariarendako zein bidaiari guztiendako erosotasun eta segurtasun neurri aurreratuenak. Hori da Citroën C6, BMW 1 Seriea, Alfa Romeo 159, Audi Q7, Peugeot 207 eta Honda Civic auto berrien kasua.



**ALFA ROMEO 159**

**Aurreko 156 gamaren oinordekoa da, eta haren dotoretasun eta deportibotasunari estilo modernoagoa eta belaunaldi berriko motorrak gehitzen dizkio. Diseinuak italiar fintasuna du, gustu guztietarako bertsioak daude, eta segurtasuna bermatzeko teknologia guztiak dauzka.**



**AUDI Q7**

**Quattro osoko trakzio sistemari ukitu berritzailea ematen dio Audik, gidatzea gozamen bihur dadin. Besteak beste, honako aurrerakuntzak ditu: elektronikoki neurtutako gurpil-esekidura, bihurguneetarako argi dinamiko sistema, eta aparkatzen laguntzeko soinu-seinaleztatzea.**



**PEUGEOT 207**

**Peugeot 206 autoaren arrakasta gainditzeko asmoz, 207 modeloak berritasun asko dakartza: estilizatuagoa da eta detaile askotan hobetu egin du –faroak, aginte-panela…–, eta handiagoa da. Peugeoten motore eragin-korrekin dator, zabalagoa da eta esekidura bikaina du, seguruago izateko.**



**BMW 1 SERIEA**

**BMW etxeko berezko trakzio sistema –atzetik bultzatutakoa– eta aurreko ardatzean oinarritutako norabide sistema dira auto horren ezaugarri nagusia. Horrek bizkortasun, dinamikotasun, maniobrak egiteko askatasun eta norabide-zehaztasun handiagoak ahalbidetzen ditu.**

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- **Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera**
- **Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa**
- **25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua**
- **"Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.**
  - Laguntza juridiko eta legala bidaietan
  - Deskontuak tailerretan
  - Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoreetan
  - Deskontuak bidaietan ( opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

**...eta zure aseguruak?**



ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea
20.560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts: 620 77 66 20




Salneurria hil amaiera arte baliagarria Penintsula eta Balear Uharteetan Ford C-MAX Trend TDCi 90 ZPrendako. Prever Plana, Ford-en ekarpena eta kontzesionarioarena barne. C-MAX gama: kontsumoa 4,8- 7,3 l/100 km-ko. CO2 emisioak 127- 176 g/km-ko. Aleazio llantak (17") ez daude barne. Bluetooth® marka eta logotipoak Bluetooth SIG INCRen jabetzakoak dira eta marka horien erabilpena Ford Company-ren partetik dagokion lizentziarekin egingo da.

# diagoarekin datoz autoak






**FORD S-MAX**

Gaur, hilak 5, aurkeztuko dute auto hori. Europan estilo berria sartzen du: hain zuzen, ahalmena eta deportibotasuna modu desberdinean uztartzen ditu: 1,60 metro garai da, ohi baino txikiagoa, eta monobolumen baten ezaugarriak ditu barrutik; besteak beste, zazpi lagunendako lekua.

**CITROËN C6**

Turismo handiaren kontzeptua errealitate egiten du auto horrek. Modelo dotorea da, erosotasun handikoa eta teknologia erabilgarriz hornitua. Pantaila birtuala, nahi gabeko errail-aldaketaz abisatzen duen dispositiboa, AMVAR esekidura gidatua eta beste berritasun asko ditu.






**OPEL ZAFIRA**

Monobolumen konpaktu modernoa da Zafira berria. Aginteak modu ergonomikoan kokatu dira, gidatzea ezin erosoagoa izan dadin; eta Flex7 jesarleku-sistemaren bidez, barruan bitik zazpi lagun arteko lekua molda daiteke. ABS balaztak eta ESP egonkortasun sistema dauzka.

**HONDA CIVIC**

Segurtasun aktibo eta pasiboko berritasun guztiak ditu auto modelo horrek: sei aire-zaku, ABS, EBD, HBA (balazta-laguntzaile hidraulikoa), VSA (egonkortasun kontrola)… Oso itxura deportiboa du, 1,4, 1,8 eta 2,2ko motore bana eta gustura gidatzeko tresna guztiak.

**Monobolumenek eta horien estiloko autoek gero eta eskaera handiagoa dute**

**Teknologia berriz hornituta datoz autoak, segurtasuna bermatzeko**

**Diseinu dotorea, fina eta deportiboa da modelo berrien itxuraren ezaugarria**

**Gama arrakastatsuenei ukitu berritzaileak egin dizkiete automobil-etxeek**

FREELANDER
NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA




**FREELANDER naturaz gaindiko espeziea da. Segurtasuna maila gorenera iristen da** hainbat ezaugarrirengatik: posizio garai eta esklusiboa; ABS eta EBD (balaztatze presioaren banaketa elektronikoa); 4x4 trakzio iraunkorra; trakzioaren kontrol elektronikoa (ETC) eta malden jaitsiera kontrola (HDC); lainoaren kontrako aurreko argiak eta soinu sistemaren agintea bolantean; eta, nola ez, aire girotua, CD-irratia, 16"-ko aleaziozko hagunak (llantak) eta lapurretan aurkako alarma sistema.

EUROLAN 4x4

Donostia–Hernani errepidea
(Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

FREELANDER Td4 3 ate 23.850 €

LAND ROVER
GO BEYOND

3URTEKO BERMEA

Kontsumo mistoa (7,6 l/100 km). $CO_2$ igorpena (g/km): 205. Penintsularako eta Balearretarako gomendatutako salneurria (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta promozio kanpaina barne). Freelander Td4 eskuragarri 5 ateko bertsioan, 26.150 euroren truke.

■ 1 FORMULA

# Badator benetako zirkua

XABIER URTZELAI

**Maiatzaren 14an izango dute auto-zaleek urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa, orduan etorriko da-eta 1 Formularen ikuskizuna Bartzelonako Montmelo zirkuitura. Bigarren urtez jarraian, Markel Elortza arrasatearrak ez du hitzordu horretara kale egingo.**

Ibarreko ehunka lagun gertaratuko dira datorren asteburuan Bartzelonara, eta horietako bat da Markel: "Joan den urtean txunditutа itzuli nintzen, eta aurten ez dut errepikatzeko dudarik izan. Horrekin batera, dagoeneko pentsatzen nabil datorren urtean Belgikako edo Hungariako sari nagusietara joatea, antolatutako bidaiaren batean-edo".

Monakoko lasterketara ere horrelako bidaiak prestatzen dituzte, baina ez da Markelen gustuko zirkuitua: "Ez dut uste Monakon horrenbesteraino gozatuko nukeenik. Niri automobilen abiadurak, azelerazioek eta galgatzeek ematen didate benetako zirrara; alde horretatik begiratuta, Monako ez da proba aproposena, nahiz eta onartzen dudan berezia dela". Zale gehienek ez moduan, Markelek ez du inoren alde egiten: "Ez zait axola nork irabazten duen, betiere ikuskizun ona ematen badute. Barregura ematen didate Montmelon elkartzen diren Alonso-zale guztiek. Asturiaskoak irabazten ez badu burumakur itzultzen dira, eta ez dira konturatzen mutur parean zelako ikuskizuna izan duten".

Dena dela, eskerrak ematen dizkio Alonsori. "Orain arte RAI telebista katean zelanbait ikusten nituen lasterketak, eta Alonsori esker T5ek dagoeneko 2008ra arte erosi ditu 1 Formula emititzeko eskubideak. Aurtengo denboraldiaren gainbegiratua ere egin digu: "Pilotuen kontratuen gorabeherek eragina izango dute. Dena dela, uda igaro eta gero Mclaren oso indartsu egongo da. Isil-isilik dabiltza, motorra poliki garatzen, eta ez dute arazorik izan".




MARKEL ELORTZA

Joan den urtean moduan, aurten ere Markelek ez du Montmeloko hitzordura kale egingo.

**ORDUTEGIAK**

| EGUNA | ORDUA | SAIOAK |
|---|---|---|
| Maiatzak 11, eguena | 10:00 | *Pit-lane*-era bisita |
| Maiatzak 12, egubakoitza | 11:00 | 1. entrenamendu saioa |
| Maiatzak 12, egubakoitza | 14:00 | 2. entrenamendu saioa |
| Maiatzak 13, zapatua | 11:00 | 3. entrenamendu saioa |
| Maiatzak 13, zapatua | 14:00 | Sailkapen saioa |
| Maiatzak 14, domeka | 12:30 | Pilotuen aurkezpena |
| Maiatzak 14, domeka | 14:00 | Espainiako Sari Nagusia |

**ZIRKUITUAREN DATUAK**

| | |
|---|---|
| **Zirkuituaren luzera:** | 4,72 km |
| **Bira kopurua:** | 66 |
| **Bihurgune kopurua:** | 11 |
| **Luzera osoa:** | 305,25 km |
| **Birako errekorra:** | |
| G. Fisichella (2005, Renault) | |
| **Denbora:** | 01m15s641 |

LAGUN GARAJEA
ad®
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA
5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa
smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena I KODEA
1,2,3,4…Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu…Ansar I ANSAR
Hartu…Argentinarra I ARGEN
Hartu…Mexikarra I MEXIKO
Hartu…Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
DEPOR.IZENA. ZENBAKIA
OSAUNA.IZENA. ZENBAKIA
BILBAO.IZENA. ZENBAKIA
REAL.IZENA. ZENBAKIA
ANOETA1 MENDI2 ARCO SADAR1 IPURUA EIBARPOOL
BELAK ZORI3 IKURRI3 POPATIK1 AIZKORAK ADARIAK
ZORI1 ZORI4 KALABERA1 POPATIK2 EGUZKILORE3 ELORAN
TOPA TITULUA MUSKARIA SATANAS ARRANAK IDIAK

OHARRAK
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN ➡ www.smsoinu.com

■ AUTOEN ASEGURUAK

# Gazteek eta eskarmentu bakoek, asegurua garestiago

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Automobilen aseguruak dira Espainiako Estatuan urtero diru gehien biltzen dituzten aseguruen artean bigarrenak. Horien aurretik daude bizi-poliza indibidualak bakarrik. Gainera, zirkulatzeko asegurua ezinbestekoa denez, aseguru konpainiak eurak dira aseguru bat kontratatzeko orduan auto gidariari baldintza guztiak ipintzen dizkiotenak.**


I.A.
Aseguru paperak egiterakoan, gidariaren adina, sexua eta gidabaimenaren antzinatasuna hartzen dira kontuan, besteak beste.

"Emakumeek istripu gutxiago izaten dutenez, merkeago izaten dute asegurua"

"Kantauri aldean Teruelen baino %40 gehiago ordaintzen dugu auto asegurua"

"Potentzia handiko autoek errekargua izaten dute; familiarrek, aldiz, hobariak"

Automobil asegurua kontratatzeko orduan hainbat gauza hartu behar dira kontuan; onena da hainbat konpainiatara joatea eta konparatzea kalitate, estaldura eta prezioak.

Prezioak asko alda daitezke asegurua eskatu duenaren adinaren, sexuaren eta gidabaimenaren antzinatasunaren arabera. Bizi garen herriak, garajea izateak edo ez izateak, eta aurrez autoarekin inolako ezbeharrik ez izateak ere izango dute eraginik prezioan; eta noski, baita aseguratu nahi dugun auto motak ere.

Mikel Lasa aseguru etxe bateko arduraduna da eta argibideak eman dizkigu: "Ez da gauza bera 18 urte eta gidabaimena eskuratu berria izatea edo 15 urteko esperientzia izatea. Taula bat egingo bagenu eta erdiko puntua 100ean ipini, 18 urtekoak 300 ordaindu beharko lituzke eta 35 eta 40 urte artekoak 75. Baina konpainia bakoitzak bere eskala du".

**KANTAURIN GARESTIAGO**

Sexuak ere badu garrantzia. "Emakumeek istripu gutxiago izaten dituzte; beraz, deskontuak egiten dizkiegu", esan digu Lasak.

Gidaria zein probintziakoa den kontuan hartzea ere ezinbestekoa da, Lasaren esanetan: "Kantauri aldean orografiak eta klimak eraginda istripu kopurua Espainiako altuena da. Horrenbestez, istripu gutxien dituen Teruelen aldean %40 gehiago ordaintzen dugu".

Eta auto motaren arabera ere bada ezberdintasunik: "Potentzia handiko auto txikien asegurua garestiagoa da. Auto familiarren jabeek, aldiz, gutxiago ordaintzen dute, gidariak adin tarte egokienean daudelako".

AUTOS RIBELOGA
Auto marka askodun kontzesionario eta tailerra
Auto-garbiketako tunela, goi-presiokoa, guztientzat zabalik
Torrebaso pasealekua 16 B Eskoriatza
Tel.: 943 71 00 95 Faxa: 943 71 00 97 www.autos-ribeloga.com

ARETXA AUTOAK
Debagoieneko espezialista onena marka hauetan:
SEAT Audi
Basabe poligonoa A-2-4 20.550 Aretxabaleta • Tel.: 943 71 00 68
www.autosaretxa.com

■ KUTSADURA

# Autoak, kutsadura iturri

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Gizartea oro har eta baita politikariak ere gero eta gehiago kezkatzen dira airearen kalitateaz eta horrek ingurumenean eta osasunean duen eraginaz. Ondorioz, kutsaduraren aurkako arauak geroago eta zorrotzagoak dira; eta auto berriak derrigortuta daude aire isurketen gaineko arauak betetzera.**

Autoa zenbat eta modernoagoa izan, orduan eta gutxiago kutsatzen du. Izan ere, autoak diseinatzeko orduan karburagailuak gertatzen dituzte gasen isuria kontrolatzeko, araututako neurrian.

Diesel motorrek kutsadura handiagoa sortzen dute; era berean, energia aurrezten dute, kilometro bakoitzeko erregai gutxiago kontsumitzen baitute.

Ibilgailu hibridoak (motor elektrikoa eta eztanda motorra konbinatzen dituena) dira, dirudienez, etorkizunean kutsadura eta gastu txikiagoa sortuko dutenak. Etorkizunean diogu, oraindik gutxi eta garestiak direlako. Batik bat hiriguneetan saihestuko dute kutsadura.

**LEHEN BAINO GUTXIAGO**

Adituen esanetan, gaur egun fabrikatzen dituzten autoek orain dela 50 urtekoek baino %90 gutxiago kutsatzen dute.

Beherakada horren arrazoi nagusia da aluminioa eta altzairua produktu sintetikoekin ordezkatu dituztela. Gainera, oraingo ibilgailuek erregai gutxiago kontsumitzen dute, eta $CO_2$ gutxiago isuri. Bestalde, autoen piezak birziklatu egin daitezke.



I.A.

Oraingo ibilgailuek erregai gutxiago kontsumitzen dute, eta airera gero eta $CO_2$ gutxiago isuri.

### AUTOEN KUTSADURAREN GAINEKO OHIKO ZALANTZEI ERANTZUNA

- **AUTO BERRIAK:** Diseinu eta teknologia arauetara egokituta daudenez, gutxiago kutsatzen dute.
- **GIDARIAK:** Gero eta garrantzi handiagoa ematen diote ingurumena zaintzeari autoa erosterakoan.
- **GARESTIAGOAK:** Auto ekologikoak garestiagoak dira, produkzioan, ikerketan eta garapenean inbertitzen delako. Garestienak motor hibridodunak dira.
- **KONTSUMOA:** Motor ekologikoagoek gutxiago kontsumitzen dute eta luzera onuragarri dira.
- **POTENTZIA:** Airea gehiago kutsatzen dute potentzia handiko automobilek.
- **DIESELA ETA GASOLINA:** Diesel motorrek gasolinadunek baino karbono gehiago isurtzen dute (lau aldiz gehiago); baina energia txikiagoa kontsumitzen dute.

**Gaur egungo automobilek orain dela 50 urtekoek baino %90 gutxiago kutsatzen dute**

Kutsaduraren aurkako politika murriztaileek produkzioa garestitzen dute. Batetik, ikerketan eta garapenean inbertsioak egin behar direlako; eta bestetik, osagai berriak (sentsore, iragazki, katalizatzaile...) erabili behar direlako.

Motorrak gero eta efizienteagoak dira; gero eta ibilbide luzeagoak egin daitezke erregai gutxiago erabilita. Aipatzekoa da diesel motorren aurrerapena, gero eta $CO_2$ gutxiago isurtzen baitute.

Hondakin kopurua gutxienera iristeko hidrogenozko pilak erabili beharko lirateke. Baina, era berean, hidrogenoa lortu eta erregai moduan erabiltzeko, erregai fosilak behar dira, eta azken horiek kutsatu egiten dute. Horrenbestez, esperantza bakarra fusio nuklear bidezko energia litzateke, baina hori etorkizun urruneko irtenbidea da.

OÑATI GARAJEA
Peugeot 207 berria
Eros ezazu eta opari bat emango dizugu




PEUGEOT
OÑATI Garajea
Erakusketa eta tailerra (Txapa, pintura eta mekanika):
Goribar auzoa 9 - Oñati / Tel.: 943 78 13 50 - Faxa: 943 78 33 69 Posta-e: garageonati@euskalnet.net

ELGOIBAR BH INSTITUTUA
LANGABETUANDAKO DOANEKO IKASTAROAK
AENOR ER Empresa Registrada ER-0713/2/00 · IQNet ISO 9002 · Q Euskadi 2004

· Administrari Komertziala 809
· Outlook eta Internet 60
· Multimedia Teknikaria 210
· Excel eta Internet 100
· Excel eta Access 100
· Arreta kliniko eta asistentzialak 200
· Internet eta Web Orrialdien Diseinu 100
· Geriatrian asistentzia-arreta 70
· Access eta Internet 100
· Soldadura eraikuntza metalikoetan 350
· PC Mantenimen. Erabiltzaileentzat 45

Arregitorre 2 • Tel.: 943 74 80 19 (Susana) • prestakuntza@elgoibarbhi.net

# Toyota EuskoAuto Bergaran. Zugandik gertuago




YARIS



RAV 4



AVENSIS



LAND CRUISER




COROLLA VERSO




**ANDONI ERDABIDE.** Bergarako salmenta arduraduna.

**Toyota EuskoAuto Debagoieneko Toyota kontzesionarioa. Zure neurrira egindako modeloa aurkituko duzu.**




TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

**EuskoAuto**

**Olabarrena z/g BERGARA**
**943 76 23 85**

BERGARA **EUSKOAUTO** ELORREGI

**ELKARRIZKETA: KARLOS LARRINGAN / LARRINGAN AUTOESKOLAKO UGAZABA**

# "Seinaleak ez ditugunez errespeta

UBANE MADERA

**Bi hilabete barru sartuko da indarrean puntu bidezko gidabaimena. Hau da, 12na puntu izango dugu gidari bakoitzak eta arau-hausteak egin ahala galdu egingo ditugu. Puntuak berreskuratzeko berriro ere autoeskolara joan beharko dugu. Aretxabaletako Larringan autoeskolako ugazaba Karlos Larringanekin egin dugu berba sistema berri horren gainean; beharrezkoa dela uste du hark.**

**Autoeskolako irakasle zaren neurrian, uste duzu neurri egokia dela?**

Bai. Bestelako herrietan ikusi da emaitza onak lortu direla. Frantzian, esaterako, jaitsi da %70 istripu kopurua eta hildakoen kopurua, berriz, %37-edo. Hori oso inportantea da. Jende guztiak ez dio berdin begiratzen puntu bidezko gidabaimenari, asko ados daude. Azkenaldian ez ditugu askorik errespetatzen seinaleak-eta; beraz, neurriak hartu beharko ditugu.

**Horren txarto gidatzen dugu, ala?**

Ez gara txarrak, ez da hori, baina buruan sartu beharra dugu seinaleak errespetatu egin behar ditugula.

**Eta gaur egun ez ditugu errespetatzen...**

Ez, ez ditugu errespetatzen errepideetako markak; biribilguneetako zirkulazioan, esaterako: irakasten gabiltzanean, askotan errietak entzuten ditugu jende gehiena sartzen delako ezkerreko bidetik; gu, berriz, eskumatik sartzen gara, eta gero biribilgunetik ateratzean aurretik gurutzatu egiten zaizkigu, eta gainera uste dute arrazoi dutela. Egin behar duguna da buruan sartu seinaleak zerbaitetarako direla eta errespetatu egin behar ditugula. Horrekin batera, egia da baita ere zenbait seinale non ipintzen dituzten berraztertu egin

**"Buruan sartu beharra dugu seinaleak errespetatu egin behar ditugula"**




U.M.

Karlos Larringanek kontatu digu autoeskoletakoei askotan egiten dietela errietan gainerako gidariek.



# atzen, neurriak hartu behar dira"

beharko luketela; esaterako, badira seinale batzuk ipini dituztela obrak egiten dabiltzalako eta obrak bukatu dituztenean ez dituztela kendu.

**Beraz, zeren gainekoak izango dira eskolak?**

Bide segurtasunaren gainekoak, jakina. Esaterako, orain dela urte asko gidabaimena atera duen jende asko ez dago eguneratuta arauetan; beste batzuek, berriz, arauetan eguneratuta egon arren, ez dituzte errespetatzen. Zoritxarrez, isunetara edo zigorretara jo beharra dago bide hori zuzentzeko. Nik uste dut ez dagoela beste erremediorik. Uste dut gaur egun abiadura, esaterako *katxondeoarekin* hartzen dugula; lege berriarekin, berriz, abiadura-muga %50 gainditzen duena kartzelara joango da. Kode penalaren bitartez zigortu behar dute jendea. Azken batean, %50 gainditzen duenak bidean zehaztutako abiadura, delinkuentea da, pistola bat daramanaren moduan. Batek pistolarekin hiltzen du, besteak automobilarekin. Frantzian ere hala egiten dute aspaldi dela.

**Zenbat ordutako ikastaroak egin beharko ditugu?**

Esaterako, isun oso larre bategatik baimena kentzen badizute, sei hilean ezingo duzu baimenik eduki, eta gero, berriro atera beharko duzu. Gutxienez, 24 orduko eskolak izango direla uste dut; baina baimena aspaldi atera zutenek eta arau berriak ez dakitenek, adibidez, ordu gehiago behar izango dute. Hori teorikoari dagokionez. Gero, azterketa praktikoa ere egin beharko luketela uste dut nik, baimena kentzen badiete, behintzat. Dena dela, oraindik ez dakigu seguru zelan antolatuko duten guztia. Hori bai, azterketa praktikoa egin behar badute zail izango dugu gidatzen hogeitaka urte daramatzan bati gauzak zela egin behar dituen erakustea. Horretarako psikologoak izango dira, adibidez. Eta izango dira, baita ere, irakasle espezializatuak. Edozelan ere, baimena ateratzen dabiltzan gidari berriekin ere izaten ditugu arazoak, konbentziarazi behar izaten ditugu gauzak zelan egin behar dituzten. Askok ez dute ikasten azterketan suspenditu arte.

## Puntuak galdu eta berreskuratu

**12 PUNTU GUZTIOK, BI SALBUESPENEKIN**
- Gidabaimena hiru urte baino gutxiago dela aterata dutenek: zortzi puntu
- Puntu guztiak galdu ostean, berriro ere gidabaimena lortu dutenek: zortzi puntu

**12 PUNTUAK GALDUZ GERO**
- 6 hilabete baimen barik lehenengo aldiz, hurrengoetan 12 hilabete
- Ikastaroa egin behar (15-24 ordu, gutxienez)
- Azterketa egin behar baimena lortzeko

**PUNTUAK BERRESKURATZEKO**
- Ikastaroa (2 urtean behin): 4 puntu
- Hiru urte zigorrik jaso barik: bi puntu estra; eta beste bat hurrengo hiru urteetan; guztira, 15 puntu eskuratu ahal izango dira

**PUNTUAK KENTZEKO SISTEMA**

**-6 puntu:**
- Mozkortuta gidatzea: 0,50 mg/l baino gehiago
- Mozkortuta gidatzea gidabaimena bi urtetik behera dutenek: 0,30 mg/l baino gehiago
- Drogak hartuta gidatzea
- Alkohol edo droga probarik egin gura ez izatea
- Era arriskutsuan gidatzea; kontrako noranzkoan gidatzea edo lasterketak egitea
- Autobidean 181 km/h-ko gidatzea
- Errepidean 136 km/h-ko gidatzea
- Hirian 76 km/h-ko gidatzea
- Garraiolariek behar baino ordu gehiago gidatzea

**-4 puntu:**
- Mozkortuta gidatzea: 0,25 eta 0,50 mg/l artean
- Mozkortuta gidatzea profesionalek: 0,15 eta 0,30 mg/l artean
- Automobilean zortzi lagun joatea
- Errepidera objektu arriskutsuak botatzea
- Aurreratzea txirrindulariak arriskuan jarriz edo haien bidea oztopatuz
- Autobidean 161 km/h-ko gidatzea
- Errepidean 131 km/h-ko gidatzea
- Seinaleak ez errespetatzea: stopak, pasatzen utzi, oinezkoei pasatzen utzi, biribilguneetako lehentasuna edo semaforoak



■ 4X4 IBILGAILUAK

# Prest, bide mota guztietarako

JON BEREZIBAR

**Lur-orotarakoen salmentek azken urteetan oso aintzat hartzekoa izan da. Gorakada horretan zer esan handia izan dute kaleko erabiltzaileek. Izan ere, fabrikatzaileak gero eta gehiago hasi dira 4x4 autoak hirirako diseinatzen, probatu ostean gero eta gehiago dira-eta auto mota hauen aldeko aukera egiten dutena. Gure ibarrean ere nabaria da joera hau.**

Azken urteetan 4x4 autoen salmentak egondako igoera ikusgarria izan da. Nahiz eta hazkunde hori aurten egonkortu eta gainontzeko motekin parekatu den, azken bi urteetan hazi besterik ez da egin lur-orotarako ibilgailuen salmenta. Era berean, iazko urtea errekorrekoa izan zen, orokorrean, autoen salmentei dagokienez. Datuak hartuta, iaz 12.000 4x4 automatrikulatu ziren, 2004ean baino %22 gehiago. Estatu mailako datuak dira eta modelorik salduenak Toyota Land Cruiser eta Hyundai Tucsonak izan ziren. Espainiako kontzesionarioen elkarteak aurten matrikulazio kopurua jaitsi egingo dio baina lur-orotarakoen merkatuak sasoi onari eutsiko diola iragartzen dute.

Ibarrean ere 4x4 autoen gorakadak eragin berbera izan du eta kontzesionarioetako arduradunek salmenten igoera hori aipatzen dute. Ramon Ajuriak, 4Quattro4ko arduradunak, urte eta erdi bat darama lur-orotakoekin baina zalantza barik "pila bat" sadu dutela dio. "Bai ibarrean bertan zein inguruetan eskari handia dago, hona Bizkaia, Araba edo Nafarroa aldetik ere etortzen dira". Azaltzen duenez, azken denboraldian ibilgailu mota hau erosteko joera geratzen dabilen arren, azken bi urteetako salmentak handiak izan dira. Europan aspalditik saltzen ei dira ondo lur orotarikoak eta Estatu maila orain dela bi urte hasi zen ondo saltzen. Eroslearen profilari dagokionez, denetarik dagoela dio Ramon Ajuriak. "Ez dituzte bakarrik baserri inguruetan bizi direnek erosten, kalera begiratu besterik ez dago hiriguneetan bertan zenbat lur-orotariko dagoen ikusteko". Hor ei dago gakoa.

**"BIDE-OROTARAKOAK" BOGAN**

Turismo erabilera ematen ei diote gehienek 4x4 autoari eta Ramonek berak agertzen duenez honek eman die salmentei bultzada itzel hori. Auto "oso seguruak" izateaz gain, prestazio asko eskaintzen dituzte. "Horretaz gain, eguraldia eta errepideen egoera ere hartu behar da kontutan, neguan elurrarekin edo inguruan dauzkagun bide eskas askorekin lurorotarikoak beste ezerk ematen ez dizun seguritatea ematen du". Patxi Irastortza, Toyotako banatzaileak dioenez, hitz-gakoa orain lur-orotarakoa baino, bide-orotarakoa da, hau da, 4x4koek dauzkaten prestazio guztiekin baina hiran ere ibiltzeko autoak eskatzen dira.

Ezaugarri hauekin, jende askok egin ei du 4x4koen aldeko aukera. "Gainera, bigarren eskukoetan joera hau are nabariagoa izan da" dio Ramonek, izan ere, "orain legez urte beteko bermea eman behar dugu saltzaileek. Lehen eskuko auto bat erostea gastu handia da; horregatik, jende askok nahiago izaten du 30 mila euroko auto bat erostekotan bigarren eskukoa izatea, bermeak dauzka-eta". Irastortzak azaltzen duenez, "turismo erabiltzaile asko probatzearren gerturatzen dira eta autoak duen presentzia, seguritatea, itxura eta maniobrabilitatea ikusita, animatu egiten dira, bai kaletarrak zein mendian ibiltzen direnak ere, gero eta gehiago pentsatzen da hiriko erabileran".



ARTXIBOA

**LEHIATZEKO ERE GERO ETA ZALE GEHIAGO**

**Lur-orotakoen gero eta zale gehiago ditugu ibarrean, eta ez erabiltzaileei dagokienez bakarrik. Eskoriatzan Bolibar auzoan egin izan dute 4x4 txapelketa, eta gero eta jarraitzaile gehiago dauzka kirolak. Eskoriatzako Motorzale Elkarteak antolatu ohi du trial proba hori.**



J. B.

**KALEAN AZKEN URTEOTAN ASKO IKUSI DIRA**

**Azken bizpahiru urteen kontua izan da 4x4 autoen gorakada. Salmentak ikaragarri hazi ei dira eta horretan zeresan handia izan du kaleko erabiltzaileak. Izan ere, joera berria lur-orotakoa utilitario moduan erabiltzea da, eta diseinu berriak ildo horretatik ei doaz.**

DESACRISTAL

• Ibilgailuendako kristalak
• Kamioiak • furgonetak • automobilak • autobusak
• Era guztietako kristalen muntaia
• Baimendutako Solar-Check laminen instalazioa

TAILERRA ETA BULEGOAK: Santalaitz 4-5. pabilioia.
83 posta-kutxa
Tel.: 943 76 36 09 • Faxa: 943 76 73 45
20570 BERGARA



TAILERRA: Ibaiondo bailara 17-8. pabilioia.
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47
20271 IRURA




J. B.




J. B.

### JESUS AGIRRE / TOYOTA LAND CRUISER

Hiru arrazoi aipatzen ditu Jesusek 4x4 ibilgailuak aukeratzeko: “Lehenik eta behin, batez ere neguan eta eguraldi txarrarekin ematen duten segurtasuna; bigarrenik, askoz ere erosoagoak direla; eta hirugarrena, betidanik gustatu zaizkidala. Gainera, gidatzeko oso errazak dira eta prestazio asko eskaintzen dituzte.”

### JESUS IZTUETA / NISSAN PATHFINDER

Hilabete eta erdi daroa Jesusek auto berriarekin, eta ezin gusturago ei dabil. “Auto txikietan, errepidean salduta zaude eta lur-orotakoek ematen dizuten segurtasunaren modukorik ez dago. Ni, gainera, baserrian bizi naiz eta beharrezkoa zait batez ere neguan eta elurrarekin edozein bide hartzen utziko didan ibilgailua”.




J. B.




J.B.

### URTZI PEREDA / TOYOTA

Erabilera aipatzen du Urtzik lur-orotakoa aukeratzeko arrazoi moduan: “Barrutik espazio handia daukate eta oso erosoak dira gidatzeko. Gainera, karabana eramateko erabiltzen dut nik autoa eta hori ere aukeratzeko arrazoia izan da.” Kalean ere erabiltzeko egokiak direla dio Urtzik, gidatzeko erraz direlako.

### ANDONI ALBERDI / NISSAN TERRANO

Etxeko bigarren autoa erosterakoan pentsatu zuen Andonik 4x4ko baten. Lur-orotakoak betidanik gustatu arren, ez luke halako bat aukeratuko, etxean beste utilitario bat edukiko ez balute. Hala ere, erabilgarritasuna badutela aitortzen du, batez ere eguraldi kaskarrarekin eta baserri bideetan, baina kalerako egokienak ez direla ere badio.

4x4
aukera zabalena



Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net
www.4quattro4.com
www.goiena.net/blogak/4quattro4







## TEKNOLOGIA BERRIAK AUTOETAN

# Autoa: sistema adimenduna

LEIRE KORTABARRIA

**Autoa motorrak eta estrukturak osatutako makina baino askoz gehiago bilakatu da: gidariari laguntza eta segurtasuna ematen dion sistema argia da. Eta hori lortu ahal izan da teknologia berriak autoetara eramanda. Izan ere, sasoi baten ordenagailuetarako bakarrik ziren aurrerapenak automobil-gidarien zerbitzura jarri dira orain. Eta gehiago etorriko dira.**

Informazioaren eta ikus-entzunezkoen arloetako aurrerapenek gidatzeko modua goitik behera aldatu dute. Hori gauza jakina da, eta inor ez da harritzen GPS edo Bluetooth hitzak entzunda; izan ere, teknologia horiek oso errotuta daude automobilgintzaren sektorean, eta dagoeneko ez dira luxuzko autoen eskaintza esklusiboa. Bietan ere berritasunak etengabekoak dira, eta gero eta GPS nabigatzaile eta Bluetooth sistema aurreratuagoak daude.

Horiekin batera, gurean horren ohikoak ez diren aurrerapenak ere sartzen hasiak dira.

### SEGURTASUNA BERMATU

Segurtasuna da beste aplikazio arlo handiena. Hor, aurrerapen deigarrienetako bat da atzeko aldea detaile askorekin erakusten duen atzeko kamera, batez ere aparkatzeko oso lagungarria. Ez horren ikusgarriak baina oso garrantzitsuak dira balaztetan, esekiduran… txertatu diren txipak eta teknologiak.

Entretenimendua ziurtatuta dago bidaia luzeetan edo umeekin joanda. Hor daude DVD eta ikus-entzunezko aparailu eramangarri erosoak, gidariarendako ez, baina ingurukoendako entretenimendu moduan.



**AUTOAN DVD-A IPINTZEKO AUKERA**
**Bidaiariak –batez ere, atzeko jesarlekuetan doazenak– entretenituta edukitzeko, autoan zinema txikia ipin daiteke; izan ere, autoarendako propio diseinatutako DVD aparailu eramangarriak daude. Ezartzeko zenbait leku dago autoan: adibidez, autoaren sabaian.**




**APARKATZEN LAGUNTZEN DUEN PANTAILA**
**Atzeko aldeko kamera da teknologietan gauzarik berrienetakoa. Atzerako martxa sartzerakoan pizten da, eta ibilgailuaren atzean dagoen guztia erakusten du, zehaztasun osoz eta koloretan, agintemahaian dagoen pantaila baten.**




**GPS SISTEMA**
**Nabigazio sistema hori modu askotan dator, eta ez da dagoeneko luxuzko autoendako bakarrik. Gaur egun, gidariaren esanetara funtzionatzen du kokapen sistema laguntzaile horrek, baina laster, gidariak ezer egin beharrik gabe zehaztuko du GPSak nondik nora joan.**



**BLUETOOTH-EK, GERO ETA ERABILTZAILE GEHIAGO**
**Bluetooth hari gabeko komunikazio teknologia guztiz finkatuta dago autoetan, eta gero eta erabiltzaile gehiago ditu. Estandar horren bidez, behar den egokigailua instalatu eta gero, sakelako telefonoz berba egin daiteke eskuan hartu barik.**

KIA
KIA MOTORS
KIA SORENTO
%14rainoko
DESKONTUA
Ezagutu ezazu!


KIA CARNIVAL
%16rainoko DESKONTUA

KIA SPORTAGE
%10erainoko DESKONTUA

Tecnocar
Honda eta Kia
banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38
Adi!
0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA Civic 3 ate, SPORT CTDI
HONDA HRV 5 ate, 4WD VTEC
HONDA FRV 2.2 i CTDI EXE
NISSAN Micra 1.2 VISIA (04)
SEAT LEON TDI (04)
*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams
HONDA CIVIC BERRIA

Munduko diesel motor onena bere kategorian
17.700 eurotik aurrera*
HONDA ACCORD BERRIA

Munduko diesel motor onena bere kategorian
22.400 eurotik aurrera*

OPEL Giauto 902 345 123




HYUNDAI mendauto 902 345 335




CHEVROLET Giauto 902 345 225

Chevrolet Aveo Berria, kanpotik mirestu eta barrutik gozatzeko.

GRUPO GEM

www.giauto.es




SARRERARIK GABE
60€/hilean - LEHENEGO URTEAN
120 €/hilean - BESTELAKO 100 KUOTAK
GASOLINA PLAN PREVERRA BARNE. % 5,80 TAE
Aveo 1.4 LS 16V
clientes@giauto.es

Chevrolet Aveo Berria
Giauto 902 345 225
Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

Chevrolet gehiago da.
www.chevrolet.es
CHEVROLET

SAAB Giauto 943 763 346



# Debagoieneko
# WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK**
ZUMADIA
www.zumadia.com

**AKADEMIAK**
BASTIDA
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**
BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ASEGURUAK**
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
WINTERTHUR
www.winterthur.es

**AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA**
AUTOS ARETXA S.L
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBEGOLA –BMW-
www.autos-ribegola.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi

**AUTO-KONTZESIONARIOAK**
4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

**BIDAIA AGENTZIAK**
BARCELO
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**
OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**
SETALDE
www.setalde.com

**ERAIKUNTZAK**
CONSTRULAN
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

**ESTETIKA ZENTROAK**
ANGELA
www.angelaestetika.net

GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.lilura.com
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

**GARBIKETAK**
HEMEN
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK**
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

**HAUR PARKEAK**
OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEAK**
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**
CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

**HOTELAK**
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

**ILE APAINDEGIAK**
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

**INFORMATIKA**
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**
HARRILUR
www .harrilur.com

**INMOBILIARIAK**
ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokorosti-com
UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

**JANARIAK**
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK**
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**
BASTER ALDE
www.baster-alde.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

**LANTEGI ETA TAILERRAK**
TALLERES CARPINSA S.L.
www.carpinsa.com

**LEIHOAK**
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK**
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OPARIAK**
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

**OSTALARITZA**
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**
ADOX
www.adoxnet.com

**SKATE&SNOW**
LAINO
www.laino.info

**TABERNAK**
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

**TATUAJEAK**
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

**ZERBITZU DIGITALAK**
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEA**
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

**POLITIKA** > OSATUTA GOBERNU BATZORDE BERRIA

# EAJko Mikel Uribetxeberria eta Iñaki Saez de Azkunaga dira Gobernuko kide berriak

Aralarko zinegotziek diote arazo larriak izan dituztela EAJrekin gobernatzeko eta jatorria Gobernu batzordearen eta zinegotzien erabakitzeko ahalmenik eza zela



**JELTZALEAK** Arritxu Olidenek alboan dituen Mikel Uribetxebarria eta Iñaki Sanz Azkunaga izendatu ditu Gobernuko kide. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Apiril hasieran erabaki zuen Arritxu Oliden alkateak Gobernu batzordetik bidaltzea Aralarko Xabier Sarasua. Hori horrela, Aralar taldeak alde egitea erabaki zuen, baita Ezker Batuko Jaime Muxikak ere geroago.

**GOBERNU DESEROSOA**

EAJ bakarrik geratu da Gobernuan eta alkateak beste alderdiko bi izendatu ditu: Mikel Uribetxebarria eta Iñaki Saez de Azkunaga. Kultura, Euskara, Ingurumen eta Segurtasun eta Herri Antolamendu sailak, bestalde, buru barik geratu dira: "Banaketa oraindik egin barik daukagu, baina proposamenak aurkeztuko ditugu eta Gobernu batzordeak erabakiko du", dio alkateak. Eta erosoa ez den gobernuan daudela onartu du: "Gaiak eztabaidatu egin beharko ditugu eta talde guztiekin adostasuna lortu onartzeko".

**"ERABAKITZEKO AHALMENIK EZ"**

Aralarko zinegotziek, berriz, Udalean duten egoera argitu gura izan zuten. Elkarlanerako gaitasunik eza azaldu duela EAJk esan zuten, eta hor dagoela Aralarko zinegotziek egindako lana: Euskara Biziberritze Plana, Tokiko Agenda 21, Udaltzaingoaren lana, Gazteria Saila, eta beste hainbat. Onartu zuten hasieratik izan dituztela irizpide ezberdinak gai askoren inguruan. "Baina arazo larriagoak elkarlanean gobernatzerakoan izan ditugu", gaineratu zuten. "Informazioa ezkutatzea, manipulatuta ematea… Eta jatorria Gobernu batzordearen eta zinegotzien erabakitzeko gaitasunik eza zen". Erabaki ahalmena eskatu zioten alkateari eta hasierako baietzaren ostean kanporatzea etorri zela azaldu zuten.

Salatu zuten hainbat sail buru barik daudela oraindik, eta galdetu: "Zer gertatuko da abian dauden eta aurreikusitako proiektuekin? Alkatearen esku geratuko dira Udaleko arduren %95 bere gain hartuz?". Aralarrek argi utzi zuen orain arte bezala batzorde guztietan parte hartzen jarraituko duela herritarren zerbitzura lanean. Gainera, Aretxabaletak ezkerreko hautagaitza askotarikoa behar duela adierazi zuten, herritarren zerbitzura egongo den Udala osatzeko.

**KIROLA**

# Hemeretzi ideia kirol etxea berritzeko

Maketa eta panel bidez aurkeztu dituzten ideiak ikusgarriak dira

**M.A.** > ARETXABALETA

Joan zen astean bukatu zen kirol etxea berritzeko ideiak aurkezteko epea. 19 lan jaso dituzte udaletxean, eta martitzenean zabaldu zituzten lehen begirada botatzeko.

**ASKOTARIKO PROPOSAMENAK**

Epaimahaiko burua Arritxu Oliden alkatea da eta berarekin egongo dira Jose Mari Segovia Hirigintza teknikaria, Asier Muxika Kirol teknikaria, Mikel Uribetxebarria Kirol zinegotzia eta Xabier Mendizabal Udal idazkaria. "Proposamen oso ezberdinak jaso ditugu eta benetan lan handia egin dute", dio Arritxu Oliden alkateak. Orain bananbanan aztertu beharko dituzte ideia guztiak, eta maiatzaren 17an elkartuko dira lanean hasteko. Hiru hilabeteko epea izango dute aukeraketa egiteko. Irabazleak proiektua egitea izango du sari: "Proiektua egiteko asmoa badugu, orain kirol etxea egitea zailagoa izango da, aurrekontu handia izango duelako", argitu du Oliden alkateak.

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 14
LANCASTER SUN CARE 2006
Eguzkian aditua.
Edertasuna eta
babesa zuretako sortua.



SUNSLIM
BERRITASUNA!
Brontzeatzea
estimulatzen duen zelulitisaren
aurkakoa. Brontzeatzea
estimulatzen du: +%40.
Argaldu egiten du: -2,5 cm.
Zelulitisa txikitzen du: -%72

JAUSOKO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Orly aretxabaleta
Girorik onena geurean!
Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33

**GAZTEAK** > UDALEKO GAZTERIA ZERBITZUAREN ETA MUSIKA TALDEEN ELKARLANA

# Herriko musika taldeen CDa aurkezteko Gazte Eguna egingo dute hilaren 13an

Arianrod, Klineks eta Lukas Prest musika taldeen kantuz osatutako bilduma kaleratu dute

Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta hiru musika taldeek elkarlanean egin dituzte diskoa eta egitaraua



**GAZTEAK PROTAGONISTA** Musika taldeek CD bilduma kaleratu dute, eta hilaren 13an, Gazte Egunean, jendaurrean aurkeztuko dute, herriko plazan. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Udalak herriko hiru musika talderen CD bilduma kaleratu du. *Lokaletako Hotsak* izeneko bilduma horretan, Klineks, Arianrod eta Lukas Prest musika taldeek esku hartu dute.

Udalak deialdi publikoa egin zuen herriko rock taldeek izena eman zezaten, eta hiru horiek erantzun zioten deialdiari. Hortaz, Udaleko Gazteria Zerbitzuarekin hainbat batzar egin ostean, hiru taldeen kantuekin osatutako diskoa egitea adostu zuten. Hala, talde bakoitzak bi eguneko grabazio saioa egin zuen Arrasateko Shot! grabazio estudioan.

### DISKOA DEBAGOIENEAN BANATUTA

Eta dagoeneko kalean dago emaitza. Udalak kaleratu du lan hori eta hainbat komunikabidetara bidali du, taldeak ezagutzera eman daitezen. Horrez gain, musika taldeek eurek ibarreko gaztetxe eta tabernetan diskoak banatu eta salgai jarri dituzte.

Guztira 11 kantu ditu diskoak. Lukas Prest eta Klineks taldeen launa eta Arianroden hiru. Arianrodek heavya egiten du; Lukas Prest eta Klineks taldeek, berriz, punka eta hardcorea. Klineks taldea da beteranoena, baina aspaldian oso kontzertu gutxi egiten ditu. Lukas Prest aspaldian geldiezinik dabil eta bakarkako diskoa kaleratu zuenetik, sarritan jotzen du zuzenean. Arianrod, ordea, talde berriena da, baina dagoeneko hasi da inguruko herrietan zuzenekoak egiten.

Diskoa kaleratzearekin bat, Udaleko Gazteria Zerbitzua eta musikariak eurak elkarlanean egindako emaitza zelan aurkeztu aztertzen ibili ziren. Azkenean, musikari gazteek egindako diskoa denez, kontzertuez gain egitarau zabalagoa antolatu eta Gazte Eguna egitea erabaki zuten.

### GOIZETIK ILUNTZERA ARTEKO JAIA

Datorren zapatuan, hilaren 13an, goizetik iluntzera bitartean ospatuko dute egun berezi hori. Besteak beste, herri bazkaria, bertsolariak, capoeira emanaldia, txalapartariak, grafiti erakustaldia eta Arianrod, Lukas Prest eta Klineks taldeen kontzertuak egingo dituzte erdialdeko kaleetan eta batez ere herriko plazan.

Horren harira, Udaleko Gazteria Zerbitzuak jakinarazi digu herri bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daudela Inkernu eta Aldatz tabernetan. Hain zuzen ere, 15 eurotan daude salgai, eta komeni da lehenbailehen eskuratzea txartelok.

### ADIN ASKOTARIKO GAZTEENDAKO

Antolatzaile diren musikarien esanetan, Gazte Eguna "bere burua gaztetzat daukan edozeinendako da, adinez gazte zein nagusi izan". Hortaz, herritarrei ospakizunetan esku hartzeko gonbidapena egiten diete.

Bestalde, gazteei galdetu diegu ea Gazte Eguna herrian urteroko hitzordu bilakatuko den. Eurek hala gurako luketela erantzun dute, nahiz eta aitortu "apropoagoa eta aberatsagoa litzatekeela hurrengo baten herriko kultura elkarte gehiagok esku hartuko balute".

## Maiatzaren 13an, egitarau mardula

- 11:00 Etxafuegoen jaurtiketa.
- 12:00 Txalapartarien ekitaldia herriko plazan.
- 12:00 Grafiti erakustaldia herriko plazan.
- 12:30 Trikitilariek alaitutako kalejira.
- 13:00 Capoeira emanaldia herriko plazan.
- 12:30 Trikitilariekalaitutako kalejira.
- 13:00 Capoeira emanaldia herriko plazan.
- 15:00 Gazte bazkaria herriko plazan. Horren ostean, bertsolariek ekitaldia egingo dute. Bazkarirako txartelak 15 eurotan daude salgai Inkernu eta Aldatz tabernetan.
- 18:30 Kale animazioa.
- 22:00 Rock kontzertua herriko plazan: Klineks, Arianrod eta Lukas Prest taldeak.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak



MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com

**MERKATARITZA** > HILAREN 13AN LORE EGUNA EGINGO DUTE

# Bezeroei eskerrak emateko loreak banatuko dituzte merkatariek

## Hilaren 13an lorez betetako bi postu jarriko dituzte plazan, bezeroen artean banatzeko



**LORE UGARI** Iaz merkatariek 2.500 txartel banatu zituzten, eta bezeroek beste horrenbeste lore eskuratu zituzten. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Joan den urteko arrakasta ikusita, herriko merkatariek eta hainbat zerbitzu ematen dituzten langileek II. Lore Eguna antolatu dute. Datorren zapatuan egingo dute, hilaren 13an, hain justu ere.

Egun horrek bi helburu nagusi ditu: batetik, Eskoriatzako saltokietako eta bestelakoetako bezeroei eskerrak ematea; eta bestetik, herria girotzeko ekintza bat egitea.

**LOREAK, OPARI APROPOSA**
Merkatarien esanetan, lorea aukeratu dute "orain sasoia delako, jendeak gustura hartzen duelako eta herrian loreak saltzen dituen negoziorik ez dagoelako. Ez genien saltzaileei konpetentziarik egin gura".

**LOREAK ESKURATZEKO TXARTELAK**
Datozen egunotan hasiko dira herriko merkatariak eta bestelakoak bezeroen artean txartelak banatzen. "Ez ditugu banatuko gastatutakoaren arabera. Asmoa da bezero guztiek txartelen bat eskuratzea", azaldu zuten.

Eta hilaren 13an (zapatua) herriko plazan jarriko dituzten postuetan, bezeroek lorengatik aldatu ahal izango dituzte txartelak. Goiz osoan izango dira bi postu plazan, eta baita arratsaldez apur baten ere. Iaz postu bakarra jarri zuten, eta oso lanpetuta ibili ziren loreak banatzen. Horregatik, aurten bi jartzea erabaki dute. Hain zuzen ere, iaz 2.500 txartel baino gehiago banatu zituzten eta aurten beste horrenbeste banatu gura dituzte. Horrez gain, seguruenik loreak erosteko aukera ere izango da.

**MERKATARIEN UDABERRI JAIA**
Eta eguna borobiltzeko, antolatzaileak, herriko 22 bat negoziotako arduradunak, udaberrirako moduko arropekin jantziko dira eta urteroko afaria egingo dute. "Urtean lau bat hitzordu dauzkagu eta gure arteko harremanak sendotzeko eta merkataritzaren egoeraren gainean berba egiteko baliatzen ditugu".



AITZORROTZ

## Sagardotegi denboraldiaren itxiera egin zuten

Joan den zapatuan, herriko hamabost lagunek sagardotegi denboraldiaren itxiera egin zuten. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu zuen eta batutako eskoriatzarrek ederto pasa zuten eguna. Astigarragako Otsuenean afaldu zuten, eta, horren ostean, Olaizola sagardotegira jo zuten kafea hartzera. Asier Olaizolarekin bat egin zuten (argazkian), baina ez zuten Zumaiako jaietara joateko konbentzitu. Asierrek aukeraketa ona egin zuen ala ez eskoriatzarrek esango digute.










**ENPRESA** > ENPRESA EKINTZETAKO ZENTROA OLARANEN

# Hiru ekimen berritzailek dute euren bulegoa Olaran etxean

Psikologo kontsulta, larrugintza diseinu eta salmentako enpresa eta surf materiala Internet bidez saltzen duen enpresa daude orain Enpresa Ekintzetako Zentroan



**OLARAN** Bigarren eta hirugarren solairuetan ditu Mankomunitateak ekintzaileendako bulegoak. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Ekainean beteko dira hiru urte Mankomunitateak Olaran etxeko bigarren eta hirugarren solairuetan Enpresa Ekintzetako Zentroa abian ipini zuela.

Zentroaren helburua da ekimen berriak bultzatzea; eta horretarako, Mankomunitateak lokalak lagatzen dizkie ekintzaile berriei, merkatukoak baino prezio merkeagoan.

Olaranen ekintzaile berriendako sei bulego daude; eta lau jadanik erabili dituzten arren, une honetan hiru daude okupatuta. Mireia Alberdi dietista bergararrak ireki zuen bidea zentroan, baina geroago Olaran utzi zuen eta beste ekintzaile batzuk daude orain.

**HIRU EKIMEN**

Olaranen hiru ekimenek dute lekua, eta bada interesa azaldu duen beste ekintzailerik ere.

Gure Aldaki enpresan, Alazne Madariagak larruki gaien diseinua egiteaz gain poltsen inportazioan ere jarduten du.

Eusebio Gonzalez psikologoa iaz, otsailean, hasi zen Olaranen, eta, besteak beste, Bach loreen bidez egiten ditu terapiak.

Uharri enpresan, Aitor Izagirrek eta Haritz Muxikak Internet bidez surf materiala saltzen eta banatzen dute.

Ekimenok gehienez hiru urtez egon ahal izango dira Olaranen. Mankomunitatetik esan digutenez, negozioaren arabera aukeratzen dute kokapena; eta horregatik, Antzuolako Enpresa Ekintzetako Zentroan bulego guztiak ez daude oraindik beteta.

**LITERATURA** > SARI BANAKETA ETA IPUIN KONTAKETA LIBURUTEGIAN

# Bihar aurkeztuko dute Patxiko Txerren lehiaketako liburua

Maila bakoitzetik ipuin bana aukeratu dute eta horiekin osatutako liburuxka jasoko dute parte-hartzaile guztiek liburutegian

**I.A.** > ANTZUOLA

Bederatzigarren aldiz antolatu du Udal Liburutegiak Patxiko Txerren Txiki ipuin sariketa. Bihar, zapatua, 18:00etan jakinaraziko dute maila bakoitzean zein ipuin aukeratu dituzten. Bide batez, ipuin horiekin osatutako liburuxka ere aurkeztuko dute liburutegiko ekitaldian; eta parte-hartzaile bakoitzari liburuxka bana emango diote. Bestalde, aurkeztutako ipuin guztiak koadernatu egin dituzte, eta bilduma liburutegian egongo da nahi duenak irakurtzeko. "Liburu berezi horretan jatorrizko ipuinak daude, eurek aurkeztutako moduan. Aurreko edizioetan ikusitakoaren arabera, bildumak estimazio handia izaten du urtean zehar ere eta barre algarak egiten dituzte, eurek duela urte batzuk idatzitakoak eta marraztutakoak ikusita", esan digu Lierni Legorburu liburuzainak.

**APIKA TALDEA**

Lehenengo mailatik seigarren mailara bitarteko 88 ikaslek idatzi dituzte ipuinak aurtengo edizioan; eta guztira, sei lan aukeratu dituzte libururako. Aukeraketa Herri Eskolako irakasle batek, liburuzainak eta Maite Toledok egin dute.

Sariak banatu ostean, ipuin kontalarien jarduna egongo da Apika taldearen eskutik.

> MENDIA

### Arrolakoen irteera Nafarroara maiatzaren 21ean

Arrola Elkarteak irteera antolatu du datorren maiatzaren 21erako. Tutera, Tarazona eta Bardera egingo dute egun osoko txangoa. Hiru aukera izango dira: Tuteratik Tarazonara 22 kilometroko ibilbidea oinez edo bizikletaz; Tuteratik Tarazonara eta buelta, 44 kilometroko ibilbidea bizikletaz; eta Bardean 50 kilometroko ibilbidea bizikletaz. Joan nahi dutenek maiatzaren 17an Arrolako lokalera joan beharko dute 19:00etatik 20:00etara, eta umeek eskolan eman dezakete izena.

> SAN ISIDRO

### Maiatzaren 12ra arte kukumarro lehiaketan izena emateko epea

Maiatzaren 20an San Isidro azoka egingo dute eta bertan ikusgai ipiniko dituzte lehiaketara aurkeztutako kukumarroak. Ondoren sariak banatuko dituzte: 12 urtez azpikoetan guztiek izango dute saria; 12 urtetik gorakoen eta erretiratuen ataletan irabazleek 90 euro jasoko dituzte. Horren harira, lehiaketan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 12a baino lehen eman behar dute izena, goizez udaletxean edo liburutegian arratsaldez.

> IRTEERA

### Gasteizera joango dira 1948an eta 1949an jaiotakoak

Irteera antolatu dute biharko, maiatzaren 6rako, 1948an eta 1949an jaiotakoendako. 09:30ean plazan elkartu eta Gasteizera abiatuko dira. Hiriburuan, Erdi Aroko auzoa, Heraclio Fournierren karten museoa eta katedrala bisitatuko dituzte. Ondoren, bazkaria izango dute Mesa jatetxean; eta bazkalostean dantzarako aukerarik ez da faltako, soinu-jotzaile bat joango baita antzuolarrekin.

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



**'DEBARRI'** Alberto Gorritiberreak elkarrizketatu du Patxi Basauri denboraldi berriko lehen saioan. I.A.

**TELEBISTA** > ALKATEA GOITB-KO 'DEBARRI' SAIOAN

# Patxi Basauri: "Ez diogu uko egingo EAJ-EAren laugarren zinegotziari"

Besteak beste, Udal funtzionamenduaz, etxebizitzez eta Udal egitasmoez jardun zuen Patxi Basaurik 'Debarri' telebista saioan.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Patxi Basauri alkatea GOITBko *Debarri* saioan izan da asteon. Alberto Gorritiberea kazetariarekin elkarrizketan herriko hainbat konturi buruz jardun zuen; eta herritarrek egindako galderei ere erantzun zien alkateak.

Herritarren galderen artean Udal funtzionamenduaren gainekoak izan ziren batzuk. 2003ko hauteskundeetatik EAJ-EA alderdiak dituen lau zinegotzietatik batek noiz dimitituko duen galdetuta, alkateak erantzun zuen, "EAJ-EAk lau zinegotzi eskuratu zituen Aznarrek abian jarritako legearen arabera; beraz, guk ez dugu asmorik gure zinegotzirik alboratzeko. Baserritarren batzordea eta Gazteria eta Euskara batzordea Elgeta Auzolanian plataformakoek gidatzen dituzte, nahiz eta boto eskubiderik ez izan". 2007ko hauteskundeetan alkatetzarako aurkeztuko den galdetuta esan zuen oraindik ez duela hausnarketarik egin.

**ETXEBIZITZAK**

Etxebizitzen kontua ere izan zuten hizketarako gai saioan. Alkateak esan zuenez, "142 etxebizitza egiten dihardute tasatuak, txaletak, baita babes ofizialeko 20 etxebizitza ere, eta aurten seguru aski 18 tasatu egiten hasiko dira. Babes ofizialekoetarako izena eman duten elgetarrak 38 inguru izan dira; beraz, elgetarren eskaerak beteta leudeke. Etxebizitza horiek 102.000 eta 132.000 euro artean egongo lirateke gutxi gorabehera".

Udalak egiteko asmoa duen beste proiektu baten berri ere eman zuen alkateak: "Dormicoopen lantegi zaharraren eta Zabala Hermanos lantegiaren arteko gunea egokitzeko proiektua gertatu nahi dugu. Lur azpiko aparkalekuak egin nahi genituzke eta baita plaza bat ere, Mendizaleen plazaren hirukoitza".

Euskara, lehenengo sektorea, gizarte zerbitzuak eta aisialdia ere izan ziren hizpide *Debarri* saioan, besteak beste.

Eguazten gauean saioa ikusteko aukerarik izan ez zutenek aste bukaeran ikusi ahal izango dute, zapatuan 15:00etan edo domekan 19:15ean.

> DANBORRADA

## Hilaren 9an erabakiko dute aurtengo jaietan danborrada egin ala ez

Asteburu honetan ziren hastekoak danborradako entseguak, baina antolatzaileek bertan behera utzi dute. Arrazoia da Elorriora eskatuta zituzten danborrak ez dizkietela lagako azken astera arte, urteen poderioz hondatzen ari direlako. Jai batzordekoek ahalegina egin dute danborrak beste herriren batetik ekartzeko. Beraz, maiatzaren 9an bilera egingo dute erabakitzeko aurten danborradarik izango den ala ez. Egitekotan maiatzaren 13an hasiko dituzte entseguak.

> INFORMATIKA

## Bi ikastaro antolatu dituzte KZgunean maiatzerako

KZguneko irakasleak bi bisita egingo ditu maiatzean: 10ean eta 24an. 09:00etatik 13:00etara egongo da bertan eta egun bakoitzean ikastaro bana emango du. *Enplegu bat lortu* izenburupean egingo du lehena, maiatzaren 10ean, 11:00etatik 13:00etara. Maiatzaren 24ko ikastaroaren izenburua, berriz, *Postal bat bidal ezazu* da eta ordubete iraungo du (10:00etatik 11:00etara). Bestelako zalantzak ere argituko ditu tutoreak egun horietan.

> KIROLA

## Udal Pilotalekua egunero zabalik 10:00etatik 21:00etara

Pilotalekua berritu ostean, erabilera ordutegia mugatu egin dute. Pilotalekua zabalik egongo da 10:00etatik 21:00etara. Astegunetan 16:00etatik 18:00etara erabilera librea izango da eta asteburuetan 10:00etatik 19:00etara; gainontzean, erreserba egin beharko da. Sauna oraindik itxita dago. Squash kantxan zorua berritu behar dute eta bitartean aldagelen erabilera soilik ordaindu beharko da.

**bere ustez**


Geaxi Ezpeleta

## Badator olatua: jaia, dantza ta...

Eguraldi hobekuntzarekin batera hurbiltzen da Euskal Herriko herrietako jaien olatua. Egia esan nahi duenak badu nora jo euri eta hotz garaian ere, baina, udaberriarekin heltzen da benetako festa bira. Han eta hemen izaten da non aukeratu.

Asteko neke eta kezkak alde batera utzita lagun eta ingurukoekin gaua aprobetxatzearen grina barruan sutan dugula ateratzen gara asteburutan tabernara. Baina festa dagoeneko jaia eta dantza baino zerbait gehiago bihurtu da gure gizartean. Ez da jadanik ordu batzuk lagunarte ederrean pasa eta jende berria ezagutzeko txango soila.

**"Txikiteoaren kultura hilez doan arren, ez da alkoholaren kultura honekin bukatuko"**

Txikiteoaren kultura hilez doan arren, ez da alkoholaren kultura honekin bukatuko. Dena den, gu ez gara egunero-egunero tabernaz taberna ibiltzen, ez? Ez daukagu alkohol menpekotasunik izateko arriskurik. Menpekotasuna guk? ez, ez horixe, ezerekiko ere ez gainera.

Baina gehienok gogoko dugu noizeanbehin baino gehiagotan goizeko ordu txikiak arte tabernaz-taberna ibiltzea. Eta nik behintzat gutxi ezagutu ditut orduak ura edota zukuak solik edanez igarotzen dituztenak.

ILEA
Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97
20690 Elgeta
ILE APAINDEGIA
• Solarium bertikala
• Ile-luzatzeak, minik gabe eta ordubete baino gutxiagoan






LAU ERAIKIN Bi blokek 12 etxebizitza izango dituzte, beste batek 28 eta laugarren blokeak lau. GOIENKARIA

BABES OFIZIALEKO ETXEAK > PROIEKTUA

# Udaletxera ekarri dute babes ofizialeko etxeen proiektua

Interesa duen edozein joan daiteke proiektua ikustera; ez dago horretarako epe-mugarik

UBANE MADERA > ARAMAIO

Bilboko Construcciones Olabarri enpresak egin du babes ofizialeko etxebizitzen proiektua, Lazaro & Asociados arkitektoek idatzi ostean. Guztira ere, 2.900.000 euro kostatu da.

Proiektua udaletxean dago joan den astea ezkero, eta interesa duen edozeinen eskura dago, nahi duena kontsultatzeko.

Esaterako, proiektuan ikus daiteke babes ofizialeko eraikin bakoitzak izango dituela erdisotoa, beheko solairua, lehenengoa, bigarrena eta teilatu azpikoa. Garajeak ere izango dituzte etxebizitzek, bakoitzak bana; beraz, 44, eta baita trastelekuak ere.

Ikus daiteke, baita ere, gas naturala izango dutela etxebizitzek eta, besteak beste, lurreko zein aireko telekomunikazioak eskuratu ahal izateko legeak zehazten duen azpiegitura.

Eta legeak esandakoari jarraituz, eraikin guztiak egokituta egongo dira zailtasunak dituztenendako: atari zabalak, ateak, igogailuak eta bi etxebizitza gertu halako beharrak dituztenendako.

7.415,11 m² okupatuko dute etxeek, Inazio Barrutia kalean. Udalak urbanizatuta dauka gunea eta azpiegiturak sartuta, eraikitzen hasteko. Lanak hasi ostean, 20 hilean bukatu beharko dituzte.

JON AGIRRE > 25 URTE KARTZELAN

# 92. artikulua aplikatzeko zain dago Jon Agirre, erizaindegian

Maiatzaren 11n izango dira 25 urte Jon Agirre kartzelaratu zutela; kale agerraldia deitu dute 19:30erako

U.M. > ARAMAIO

Bizente Goikoetxea plazan egin dute hitzordua maiatzaren 11rako, eguena, Jon Agirreren egoera eta 25 urte preso daramatzala salatzeko. Protesta ekitaldiaren antolatzaileek adierazi digutenez, besteak beste, helburua da preso aramaioarrarendako 92. artikulua exijitzea, "gaixo dagoelako".

**EBAKUNTZAK**

Orain dela bi urte hasi ziren Jon Agirreren egoera salatzen. Besteak beste, presoak premiazko ebakuntza bi behar dituela salatu zuten, eta presio handia egin eta gero, Jon Agirre Malagatik Langraitzera (Araba) gerturatzea eta ebakuntza biak egitea lortu zuen haren alde sortutako taldeak. Hori horrela izan arren, senideek gogorarazi digute presoak gaixo segitzen duela: "Erizaindegian dago; minez egoten da; tratamendua badu, egunean 9-10 pilula hartzen ditu eta zainduta dago, baina etxean beharko luke". Izan ere, legeak esaten duena beteta (92. artikulua), Agirrek kalean egon beharko luke. Hipertentsio arteriala, neuropatia, diabetesa, hiperrurizemia eta miopia ditu, besteak beste, "eta ebakuntza gehiago behar ditu, baina orain artekoak egonkortu arte ez diote gehiago egingo".



Jon Agirre, ospitalean, iaz. GOIENKARIA

**MOBILIZAZIO GEHIAGO**

Bestalde, datozen egunotan, ibarrean Jon Agirreren aldeko protesta agerraldi gehiago izango direla iragarri digute.

INGURUMENA > BASO-ZIURTAGIRIA

# Basoak modu iraunkorrean haztearen gaineko hitzaldia

Arabako Basogintza Elkarteak egingo du hitzaldia maiatzaren 11n, 18:30ean

U.M. > ARAMAIO

PEFC baso-ziurtagiriaren gainean berba egingo dute hitzaldian. PEFC ziurtagiriarekin lotutako teknikari Aitor Onaindiak emango ditu azalpenak; lehen esandako moduan, 18:30ean izango da hitzaldia, kultura etxean.

PEFC ziurtagiria da baso baten kudeaketa iraunkorra ziurtatzen duen agiria, edo bestela esanda: egurra modu iraunkorrean (ekologikoan) landatzearren ematen duten agiria. Horren gaineko informazio gehiago gura duenak, hitzaldira joateaz gainera, jo dezake Arabako Basogintza Elkarteak bi hilean behin Aramaion egiten duen zerbitzura. Elkarte horrek badu-eta Basoekin izeneko zerbitzua, baso kontuetan laguntzeko.

**UDALA AURTEN SARTU DA**

Udalak aurten abiarazi du baso-ziurtagiria eskuratzeko prozesuan. Besteak beste, aztertuko dute Aramaioko mendietan zein zuhaitz sartzea komeni den eta zelan zaindu eta atera behar dituzten zuhaitzok.

OSOKO BILKURA > APIRILEKOA

# Aramaioarrek lortu egin dute eguneko zentrorako garraioa

Hala jakinarazi zuten apirileko batzarrean; dena den, ez daude oso ados egoerarekin

U.M. > ARAMAIO

Makinatxo bat eskaera eta kexu aurkeztu ostean, Diputazioak ipini du azkenean Aita Menniren (Arrasate) eguneko zentrora joateko garraioa aramaioarrendako. Gurutze Gorriak egingo du, furgonetan batekin. Hala jakinarazi digu Mertxe Mondragon alkateak. Hori bai, hasiera batean aramaioarrendako bakarrik izan behar zuen zerbitzua zabaldu egin dute Zuiako Koadrilako bestelako herrietara, eta horrekin ez daude oso konforme Aramaiokoak: "Modu horretan ordubete galtzen dugu; ez gaude gustura %100ean", esan digu erabiltzaile baten senide Rakel Altunak.

**EGOKITU BARIK**

Hark gaineratu digu, oro har, Diputazioak ez duela bete agindutakoa: "Garraiorako erabiltzen duten furgonetak ez dauka igotzeko eta jaisteko plataformarik".Horren harira, alkateak esan digu hori horrela dela, baina furgoneta zahar samarra dela eta espero duela laster egokiago batengatik aldatzea.

> EPAIKETA

## Udala kargu barik geratu da Udalbide diruz laguntzearren Estatuko abokatuaren errekurtsoan

Euskal Herriko Auzitegi Gorenak desestimatu egin du Aramaioko Udalaren kontrako errekurtsoa, Udalbideri diruz laguntzearren Estatuko abokatuak ipini zuena. Haren ustez, Udalbide Elkarlan Elkarteak ideal abertzaleak ditu eta Udalak ezin dio lagundu, hori "alderdikoia" delako. Baina, esandako moduan, auzitegiak desestimatu egin du hori, eta, hain zuzen ere, Udala kargu barik geratu da.

> INGURUMENA

## Basozainak esan du Albina urtegia zikinkeriaz beteta azaldu zela Aste Santu ostean

Koldo Ajuria basozainak salatu duenez, Aste Santu inguruan norbaitek Albinan gaua pasatu zuen eta guztia zikinkeriaz beteta utzi zuen gero. Haren esanetan, Gaztetxe Martxaren aldeko pankartak azaldu ziren urtegian eta horregatik uste dute martxa horretan parte hartu zuten batzuk direla gertatutakoaren arduradun. Esan digute, pankartez gainera plastikoak, poteak eta beste zabor botata utzi zituztela eta zuhaitz batzuk moztu egin zituztela, aizkorarekin. Udalak esan digu nahiko lukeela arduradunen batekin berba egin.

**HIRIGINTZA** > SORAN JAUREGIA SALDUTA

# Hamar gelako ostatua egingo dute Soran etxean Gaztainuzketako jabeek

73.000 euroren truke saldu die Udalak; orain, goitik behera eraberritu behar dute jauregia

Santiago kalean dagoen jauregiari 'Indianokoa' esaten diote herrian, eta XVIII. mendekoa da

**MIRARI ALTUBE**> LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 25ean egin zuten osoko bilkuran esleitu zion udalbatzarrak Gaztainuzketa mendi etxeak dituen Montse eta Loren bikoteari Soran jauregia –edo Indianokoa–.

**EGOERA ESKASEAN**

Benetan egoera eskasean dago Santiago kaleko Soran jauregia. Horregatik, eraberritzeko proiektua egin zuen Udalak, eta dirutza handia zela ikusita lehiaketara ateratzea erabaki zuen. 73.000 eurotan jarri zuten gutxiengo prezioa eta eskaera bakarra jaso zuten Udalean, Montse eta Lorenena. Eurena da orain jauregia, eta lehenengo lana goitik behera berritzea izango da.

**HAMAR GELAKO OSTATUA**

Bi hilabeteren buruan hasiko dituzte zaharberritze lanak Soran jauregian. "Kanpotik dagoenetan utzi behar dugu, herriko ondare izendatuta dagoelako; hortaz, kanpoaldetik daukan eskailera bera ere dagoenetan uzten saiatuko gara", dio Montse jabeak. Barrualdea, ostera, guztiz aldatuko diote: hamar gela egingo dizkiote, 60 lagunendako jangela, laneko batzarretarako egongela eta taberna txiki bat. Jabeek, gainera, bertan izango dute bizilekua. Zabaltze epea eta izena ere dagoeneko jarri dizkiote jauregiari: "Datorren urteko Gabonetarako zabaldu gura genuke eta Soran etxea izango du izena".

**XVIII. MENDEKOA**

Gatzagako elizaren alboan dago jauregia, Santiago kalean. Soran jauregi zaharra bi dorre zituen eraikin galanta zen. Errege-erreginen segizioek Gatzagatik pasatzen zirenean bertan hartzen zuten ostatu. Hala, segizio haietako kide batek Nafarroara eraman zuen eraikina eta harriz harri berreraiki.

XVIII. mendean eraiki zuten jauregi zaharraren ordez orain dagoena. Barroko eta neoklasikoen osagaiak ditu eta ertz batean armarria zeukan. Zaharberritu ostean benetan dotore geratuko dira bai jauregia, bai Santiago kalea bera ere, Garro jauregia parean duela.



**XVIII. MENDEKOA** Egoera benetan eskasean dago barrokoaren eta neoklasikoaren osagaiak dituen jauregia; hortaz, eraberritu ostean ostatu dotorea izango dute herrian. M.A.

**ERLIJIOA** > MEZAK DORLETAKO SANTUTEGIAN

## Domeka honetan hasi eta azaroa bitartean Dorletako santutegian egingo dituzte mezak

**M.A.**> LEINTZ GATZAGA

Domekan, maiatzak 7, hasi eta Domu Santu Eguna bitartean, azaroak 1, ez da mezarik egongo Gatzagako parrokian. Uda parteko sei hilabeteotan Dorletako santutegian egingo dituzte domeketako mezak; hortaz, herritar zein kanpotarrek hara hurreratu beharko dute.

**MEZAK, 12:30EAN**

Arantzazutik datorren frantziskotar fraideak esaten ditu Gatzagako parrokian mezak, baita orain Dorletako santutegian ere. 12:30ean dira aipatutako mezok. Uda parteko hilabeteotan hiletak bakarrik egiten dituzte Gatzagako parrokian, eta gainerako guztiak Dorletan; tartean Andramari eguneko ospakizuna, hau da, irailaren 8ko meza nagusia.

Ezkontzak ere egoten dira Dorletan, batez ere garai honetan. Hala, santutegia garbi eta txukun egon dadin sei lagunek osatutako emakume taldetxoak jarduten du lanean Beginarru baserriko Teresa arduradunarekin batera.

> ERAKUSKETA

### Josu Iztuetaren 50 bat argazki daude ikusgai Garro jauregian

Josu Iztueta abenturazale tolosarrak Nairobitarra autobusarekin munduan zehar ateratako argazkien erakusketa dago Garro jauregiko lehenengo solairuan. 50 bat argazki jarri dituzte eta domekara bitartean egongo dira ikusgai, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Maiatzaren 26tik 28ra bitartean Oñatin egingo duten Mundumira jaialdiaren barruan antolatutako erakusketa da.

> INTERNET

### Perretxikoen gaineko ikastaroa emango dute astelehenean KZgunean

Ikastaro bi antolatu ditu Gatzagako KZguneak maiatzerako. Perretxikoen gainekoa izango da lehenengoa: zelan batu, ezustekorik ez izateko zer egin, zelan garbitu, eta abar. Astelehenean, maiatzaren 8an, 11:00etatik 13:00etara bitartean emango du ikastaroa Aitor Madridek. Bigarrena egunkaria zela irakurri Interneten azaltzeko izango da, maiatzaren 22an.



**BI PARTIDU** Arrasatearrek bihar Zaragoza gainditu ezkero, igoera lortzeko aukera izango dute domekan. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > MUGARRI ALKESA

# Asteburuan jokatuko dute Seiko Finala, Iruñean

Ibarreko saskibaloi talde nagusiak zaleen bultzada igarri gura du Larraona pabilioian

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arrasateko taldearendako gainean dago azken urteotako momentu politena, Seiko Finala. Mugarri Alkesa eta Consmetal izan dira Euskal Herriko eta Errioxako taldeen artean azken fase horretarako sailkatu direnak. Eta, eurekin batera lehiatuko dira Aragoiko eta Galiziako lau talde onenak. Guztiek dute helburu bera: EBA kategoria. Baina bi taldek bakarrik egingo dute fase horretara jauzi. Hala, Arrasatek bihar arratsaldean gainditu beharko du lehenengo oztopoa. 18:00etan jokatuko dute Zaragozako Unibertsitatearen kontra, Larraona pabilioian. Kanporaketa hori gainditzen badute, domekan (10:00) Galiziako txapelduna izango dute zain. Eta orduan bai, bigarren zeingehiagoka hori irabazita, Zurututzaren mutilena izango litzateke igoera txartela. Argi esateko: EBAra igotzeko Arrasatek asteburuan dituen bi partiduak irabazi egin behar ditu.

**SASKIBALOI JAIA**

Egunero ez da horrelako fase erabakigarria jokatzen. Hala, Arrasatekoak sufritzera baino gehiago gozatzera joango dira Iruñera. Eta, ibarreko zale guztiak gonbidatu gura dituzte Iruñera, taldea animatzera. Hala, Ointxe! klubak autobusak jarri ditu gura dutenek Seiko Final hori bertatik bertara jarraitzeko. Bihar, 15:30ean irtengo da autobusa Garibaiko geltokitik, eta norgehiagoka amaitutakoan itzuliko dira Arrasatera. Taldeak lehenengo kanporaketa hori gainditzen badu, domekan 08:30ean egongo da autobusa, Garibain baita ere. Prezioei dagokienez, ezin merkeagoak jarri dituzte: ikasleek 3 euro, eta gainontzekoek 6 euro. Eta, taldeko bazkideek ez dute ezer ordaindu behar izango. Autobusetan joateko Monte tabernan eman ahal izango da izena, edo bestela deitu 666 247 183 edo 670 890 529 telefono zenbakietara.

**ATLETISMOA** > ARRASATE-OÑATI

# Arrasate-Oñati korrika probaren 26. ekitaldia bihar

Maalan izango da irteera; antolatzaileek diote azken ekitaldia izan daitekeela

**X.U.** > OÑATI

Bihar, 18:30ean hasiko da Arrasate-Oñati lasterketa. Garibai etorbideko lanak direla-eta, Maalako biribilgunean egongo da irteera, eta metro gutxira jarriko dute izena emateko mahaia. Hala, antolatzaileak 18:15era arte egongo dira izenak hartzen. Eta Oñatin ere eman ahal izango da izena, udaletxeko arkupeetan.

**ANTOLATZAILEEN SALAKETA**

Laixan euskara elkarteko Amaia Kerexetak esan digu aurtengoa bai, baina datorren urteko lasterketa arriskuan egon daitekeela: "Proba behar den moduan antolatzeko laguntzaileak behar dira, bideguruтzeetan egoteko, besteak beste. Eta, gero eta jende gutxiago animatzen da laguntzera". Pena izango litzateke, bada, 26 urte dituen proba hori galtzea.



**PARTE-HARTZEA** 200 korrikalari inguru izaten dira urtero. GOIENKARIA

> FUTBOLA

## Asteburuan ibarreko taldeek ezin dituzte joan den asteko emaitza kaskarrak errepikatu

Ezin da egin okerrago. Mondrak, Aretxabaletak eta Aloña Mendik galdu egin zuten joan den asteburuan, eta hori ezin da asteburuan errepikatu; besteak beste, Oñatiko eta Aretxabaletako taldeek asko dutelako jokoan, oñatiarrek, batez ere. Ordiziaren zelaian galduta, Real Union bi puntura baino ez dago. Zera esan gura du horrek: etxean, behintzat, Aloñak ezin duela akatsik egin. Hala, Oruetaren mutilek Mutrikuren bisita izango dute domekan Azkoagainen (16:30). UDAk ere ezin du orain behera egin, domekan jokatuko dute Ibarran, Trintxerperen kontra (16:30). Amaitzeko, domekan baita ere (16:30), Mondrak Irun hartuko du. Berioren zelaian 4-1 galdu zutela ahaztu gura dute arrasatearrek.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Preferente maila**
Mondra - Irun
Domeka. 16:30. Atxabalpe.

Aretxabaleta - Trintxerpe
Domeka. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi - Mutriku
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Lehen erregionala**
Ilintxa - Bergara
Zapatua. 16:00. Legazpi.

**Bigarren erregionala, igoera fasea**
Aretxabaleta - Intxurre
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Antzuola - Sanpedrotarra
Zapatua. 16:30. Estala.

**Ohorezko mailako gazteak**
Mondra - Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

Anaitasuna - Bergara
Zapatua. 16:30. Azkoitia.

**Lehen mailako gazteak**
Bergara - Antzuola
Zapatua. 16:00. Ipintza.

Arizmendi Aretx. - Antoniano
Zapatua. 17:30. Ibarra.

**Bigarren mailako gazteak**
Urki - Arrasate
Domeka. 16:00. Eibar.

**Kadeteen ohorezko maila**
Herrerako sport. - Bergara
Domeka. 12:00. Donostia.

Aloña Mendi - Reala
Zapatua. 12:30. Ibarra.

**Kadeteen lehenenego maila**
Amaikak Bat - Arizmendi Ar.
Domeka. 10:30. Deba.

Eibartarrak - Arrasate
Zapatua. 15:30. Unbe.

**Kadeteen bigarren maila, igoera fasea**
Arizmendi Aretx. -Mariño
Domeka. 10:00. Ibarra.

Oiartzun - Bergara
Zapatua. 10:30. Oiartzun.

**Ohorezko mailako infantilak**
Arizmendi Aretx.-Zarautz
Zapatua. 12:15. Ibarra.

Beasain - Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Beasain.

**Infantilen lehenengo maila (igoera fasea)**
Hondarribia - Arrasate
Domeka. 10:00. Ondartza.

Bergara - Sanse
Zapatua. 10:30. Ipintza.

**Infantil txiki (txapeldunen fasea)**
Arizmendi Aretx. -Añorga
Zapatua. 10:30. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea**
Bergara - Luberri
Domeka. 18:00. Ipintza.

Anaitasuna - Arizmendi Are.
Domeka. 11:00. Txerloia.

Mutriku - Mondra
Zapatua. 17:00. Mutriku.

**Emakumezkoak, Kopa**
Aloña Mendi - Hondarribia
Zapatua. 17:00. Ibarra.

**Emakumezkoak, kadete maila F8**
Lagun Onak - Arizmendi Are.
Zapatua. 09:30. Azpeitia.

Bergara - Urki
Zapatua. 12:15. Ipintza.

Aloña Mendi - Elgoibar
Zapatua. 11:00. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

**Nazional B maila**
Euskal Sofa Int. - Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gipuzkoako liga**
Aloña Mendi - Portutxo
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Gazte maila**
Eskoriatza - Relojes Mondai.
Domeka. 11:00. Intxaurtxuet.

### SASKIBALOIA

**EBAra sailkatzeko Seiko Finala (lehen kanporak.)**
Zaragoza - Mugarri Alkesa
Zapatua. 18:00. Iruñea.

**EBAra sailkatzeko Seiko Finala (big. norgehiagok.)**
Mugarri Alkesa - Galizia
Domeka. 10:00. Iruñea.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
Aloña Mendi - Easo Loyola
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako junior maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Easo B
Zapatua. 12:00. Arrasate.

Loyola - Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako junior maila (emakumezkoak)**
Eskoriatza - Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Intxaurtx.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Easo A.
Zapatua. 10:00. Iturripe.

Aloña Mendi - La Salle
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)**
Carnicas SS - Bergara
Domeka. 16:00. Hondarribia.

Bera Bera Zurri. - Eskoriatza
Domeka. 11:00. Donostia.

**Mini saskibaloia (gizonezkoak)**
Arizmendi Sanvi - Zarautz
Zapatua. 12:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketara, igoera fasea**
Gusla Urduliz - Ford Mugarri
Zapatua. 18:00. Urduliz.

**Lehenengo eta bigarren territorial maila, Kopa**
Bergara - Arrikrutz Oñati
Zapatua. 19:30. Labegarai.

**Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa**
Pulpo - Gatz Museoa Jakion
Domeka. 12:00. Zumaia.

Leizaran - Bergara
Zapatua. 11:30. Andoain.

**Kadete mailako Udaberri Txapelketa**
Aloña Mendi - Ordizia
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gatz Museoa - Urola Azti
Zapatua. 11:30. Andoain.

**Gipuzkoako gazte maila (emakumezkoak)**
Bera Bera - Verkol Aloña
Domeka. 12:00. Donostia.

Leizaran - Bergara
Zapatua. 17:30. Andoain.

**Gipuzkoako kadete maila (emakumezkoak)**
Bera Bera - Verkol Aloña
Domeka. 10:00. Donostia.

### PILOTA

**Elgetako 4t'erdiko ETB Kantxa saria.**
Gaur. 21:00. Elgeta. 23 urtez azpikoak:
Mendinueta - Gonzalez
Aldaz - Uriarte
Etxeberria - Beitia
Onsalo - Esnaola

Gaur. 21:00. Aramaio: 23 urtez azpikoak:
Enunziaga - Flores
Irurita - Urmeneta
Irañeta - Errarte

Zapatua. 16:00. Elgeta. Kadeteak:
Kortabarria - Fernandez
Agiriano - Valencia
Alduntzin - Arrese
Aranzabe - Gurrutxaga (23 urtez azpikoak).

Domeka. 10:45. Elgeta. Kadeteak:
Ollo - Olaetxea
Zabaleta - Arzellus
Galartza - Solozabal
Elurbe - Mitxelena (23 urtez azpikoak).



**Bergarako pilotariak neurrian, Bergara Hirian**
Erretratuko Jon Larrañagaren moduan, Igor Gutierrezek ere ondo hasi du txapelketa. Mugurutzak martitzenean egingo du debuta (19:30).

> ARETO FUTBOLA

## Euskal Sofa Inter taldearen kantxan huts egitea, arriskutsua

Nazional Mailako azken laugarren postuan dago Eskoriatza, eta jaitsiera postuetatik aldentzeko lehian dabiltza denboraldia hasi zutenetik. Hala, Zierbanarekin lehia handia dute, eta talde horrek puntu bateko aldea du orain momentuan.

Hala, Eskoriatzak azkeneko postuan dagoen Euskal Sofa Inter taldearen kantxan jokatuko du bihar, 16:00etan, Donostian. Eskoriatzarrak denboraldiko zortzigarren garaipenaren bila joango dira Altzako Mons kiroldegira. Liga amaitzeko geratzen diren hiru norgehiagokak atzeko postuetan daudenen kontra jokatuko dituzte, hori dute aldeko.

> PILOTA

## Elgetako 4 t'erdiko txapelketan, 15 partidu asteburuan

Gaur, 21:00etan hasita, pilota-zaleek ETB Kantxa sariko lau norgehiagokaz gozatu ahal izango dute Elgetako pilotalekuan. Eta Elgeta beharrean Aramaio aukeratzen dutenek jakin bezate ordu berean txapelketa bereko beste hiru norgehiagoka egongo direla jokoan. Partidu horiek 23 urtez azpikoen mailakoak izango dira.

Zapatuan eta domekan, berriz, Elgetan jokatuko dituzte partidu guztiak. Zapatuan (16:00) kadete mailakoak izango dira lehenengo hirurak, eta 23 urtez azpikoen mailan jokatuko dute Aranzabek eta Gurrutxagak. Domekan, berriz, 10:45ean hasiko dituzte partiduak. Lau jokatuko dituzte.

> GOLFA

## Mikel Galdos Burgosen da egunotan, Peugeot Tour txapelketan

Sevillan debut ezin hobea egin eta gero (zortzigarren postuan sailkatu zen), Mikel Galdos golf jokalari profesionala Burgosen da Peugeot Tour txapelketa barruan lehian. Aretxabaletakoak ondo baino hobeto ezagutzen du Lermako golf zelaia, askotan izan daeta bertan. Azkeneko txapelketan, amateur moduan zebilela, kolpe batengatik ez zuen kortea gainditu, eta hori da egunotan gainditu gura duen lehenengo erronka. Astelehenean joan zen Mikel hara, egunotako txapelketa prestatzera, eta badirudi gustura geratu dela entrenamenduetan egindako lanarekin. Ea fruituak ematen dituen.

Guztion trenaren alde, AHT gelditu!




• Tren soziala.
• Euskal Herri osorako.
• Funtzio askotarikoa.
• Ingurumena eta ekonomia kontuan hartuz.
• Egungo trazatuak erabiliz.
• Guztion onarpenarekin.

aralar
debagoiena@aralar.net
www.aralar.net







ETOR ZAITEZ BERGARAKO
**SAAB SHOWROOM** BERRIA IKUSTERA

Giauto
Olabarrena Auzoa, z/g
Bergara. Gipuzkoa. Tel. 943 763 344



> **KARRA ELEJALDE**
*Mi kabra y Miss Yoe's* antzeztuko du Arrasaten > **37**



> **MIKEL MESONERO**
Marketin adituari egindako elkarrizketa > **43**

> **TXARO GALLEGO**
Sei urte darama Madrilen antzezle lanak egiten. Oraingo asteburuan Iruñean izango da, *Divinas palabras* lanarekin > **42**





**BERPIZTEA** Orain dela 15 urte ingurutik trikitixak berpizte handia izan du. Debagoieneko II. Trikitixa Eguna ospatuko da zapatuan Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

# Debagoieneko trikiti festa zapatuan Aretxabaletan

350 ikasle inguru elkartuko dira bihar Aretxabaletan

Debagoieneko zortzi musika eskolatan irakasten da trikitixa

Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du zapatu gauean

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Debagoieneko II. Trikitixa Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Aretxabaletan. Orain dela hamabost urte inguru trikitixak berpizte handia izan zuen gurean eta ordutik hona inoiz baino ozenago entzuten da trikitixa eta panderoaren oihartzuna. Horren lekuko, Debagoieneko zortzi musika eskolatan irakasten da trikitixa. Trikitixa eskoletako partaideek elkar ezagutzea eta ilusioak eta proiektuak konpartitzeko gune izatea du helburu biharko jaiak. Antolatzaileen arabera, bihar 350 ikasle inguru elkartuko dira Aretxabaletan. Debagoienetik kanpoko trikitilariak ere izango dira; Zumarragakoak eta Lazkaokoak, esaterako.

Joan zen urtean Arrasaten ospatutako jaiak erantzun bikaina izan zuen eta lekukoa Aretxabaletako Leizarra Musika Eskolak jaso du aurten. Esan bezala, jaiaren bigarren ekitaldia izango da biharkoa. Datorren urtean non ospatuko den aditzera emango dute zapatuko jaian.

Trikitiaren inguruko ospakizunak eguenean hasi ziren, Joseba Tapiak eskainitako kontzertuarekin. Trikiti zaleez gain, bestelako jendea erakartzea izan dute helburu antolatzaileak eta pozik azaldu dira osatutako egitarauarekin.

**'TRIKI-MARATOIA' BIHAR**

Egunotan antolatutako ekitaldiei amaiera emateko, *triki-maratoia* egingo dute Aretxabaletan. Ongi-etorriaren ondoren, parte hartuko duten taldeen kalejira izango da 11:30ean eta jarraian jaialdia Durana kalean. Bazkaria Herriko Plazan izango da eta arratsaldean txalapartariak eta Trikizio musika taldeak alaitutako erromeria izango da. Gauean, Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du Herriko Plazan.

Bestalde, gaur, egubakoitza, The Solanos taldeak joko du Ezkutu tabernan, 22:30ean. Boskote hernaniarrak Debagoienean egingo duen lehenbiziko emanaldia izan da gaurkoa. Xabi Solano buru duen taldeak aurkezpen diskoa kaleratu zuen udazkenean eta harrera beroa jaso dute. Solanorekin (trikitia) batera, Oskar *Benas*ek (gitarra), Sergiok (bateria), Egoitzek (baxua) eta Saizarrek (perkusioa eta koroak) osatzen dute The Solanos. *Ratzinger*, *Vendetta*, *Marilyn* edo *Welcome to Polloe* bezalako abestiak joko dituzte gaur. Trikitia eta punk arteko nahasketa bitxia egiten dute.

**AISIALDIA** > 'MUNDUKO JOLASAK'

# Bost kontinenteetako ehun jolas batu ditu Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak

Jolasaren bidez, kulturen arteko hurbilpena, errespetua eta harreman dinamikoak bultzatu nahi dira

Mundu osoko jolasak batu dituzte, 20 jolas kontinente bakoitzeko



**INTEGRATZAILEA** Hezkuntza baliabide integratzailea izateko bokazioz sortu du Txatxilipurdik *Munduko jolasak* CDa. TXATXILIPURDI

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Arrasateko Txatxilipurdi euskara elkarteak *Munduko jolasak* izenburuko CDa kaleratu du. Hala, bost kontinenteetako ehun jolas inguru batu dituzte, irakaskuntzan edo aisialdiko taldeetan erabiltzeko modukoak.

Txatxilipurdi elkarteak haur eta gaztetxoen aisialdia lantzen du, eta ildo horretan kokatzen da *Munduko jolasak* CDa kaleratzea. Urtetik urtera material edo lan tresna ezberdinak sortzeko ahaleginean, mundu osoko jolasak batu dituzte oraingoan, 20 kontinente bakoitzeko.

**KULTUR ANIZTASUNA**

Talde lanean egindako proiektua izan da eta elkarteko sei lagunek hartu dute parte. Material batzea hainbat bibliografiari esker eta Internet erabilita egin dute nagusiki. Oraingoan Euskal Herriko jolasak kanpoan geratu dira, duela pare bat urte hemengo jolas tradizionalen bilduma egin baitzuen Txatxilipurdik.

Jolas bakoitzarendako fitxa bana egin da eta honako informazioa ematen da bertan: jolasaren izena eta jatorria, zein adinetarako den gomendagarria, jolasean aritzeko behar den materiala, lantzen dituen alderdiak, jolasaren azalpena eta marrazki bat berau janzteko. "Jolasez aparte, testuinguru bat emateko irakurgai bat ere sartu dugu. Euskal Herrian Bizi dugun kultur aniztasun hazkor honetan hezkuntza baliabide integratzaile izateko bokazioz sortu da CDa. Jolasaren bidez, kulturen arteko hurbilpena, errespetua eta harreman dinamikoak bultzatzea nahi genituzke. Jolasa hizkuntza unibertsala izanik eta gozamena helburu duela bitarteko paregabea da hezkuntza eta, bide batez, hizkuntza helburuak lantzeko", dio Txatxilipurdiko Elena Errartek.

Esan bezala, materiala euskara hutsean egin dute. Jolasak, oro har, taldean lantzeko egokiak dira, 3-16 urte bitarteko haurrei eta gaztetxoei zuzendutakoak. Hala ere, gehienak, 6-12 urte bitartekoendako aproposak dira. CDa zortzi eurotan dago salgai.

## Jolasean elkarrengandik gertu

Txatxilipurdiren jolasen CDa erabiltzen hasten dena laster konturatuko da hemen, Amerikan edo Asian, funtsean helburu eta eskema antzekoak antzematen direla jolasetan. "Nahiz eta jolasak tokian tokiko baldintzetara egokitu eta gizarte bakoitzak bere ohitura ludikoa garatuz, uste duguna baino hurbilago gaude jolasak behatuz", diote.

Esate baterako, Euskal Herriko jolas tradizionalen artean ezaguna den *tortoloxak* jolasaren antzekoak aurkitu dituzte Asiako herrialde batzuetan; Vietnamen *troyen* izenaz deitzen diote harriak airera jaurtiz eta eskuetan hartuz egiten duten jolasari. Indonesian, berriz, *gundasi* bezala ezaguna da antzeko jolas bat. Eta horrelako beste hainbat adibide daude. Jolastea da kontua, lagunartean aisialdiaz gozatzea.

Maiatzaren 8a: 086 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

**Sariak astero!**

Astelehenean, maiatzaren 8a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

**085 zozketako saridunak**

**Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Loli Mayoral Lizarbe (Aretxabaleta)
- Maximo Uribesalgo Bengoa (Arrasate)

**Bi gonbidapen FLORIDA - GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Txema Unamuno Loidi (Aramaio)
- Zorione Lete Barandiaran (Bergara)

**Hiru gonbidapen Elgetako ESPALOIAN, ostiralean, larunbatean eta igandean izango diren magia ikuskizunentzako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Malen Lezama (Elgeta)
- Mikel Lizarralde Okina (Bergara)
- Iñaxio Madina Arrondo (Oñati)

**086 zozketako sariak**

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio .



**EIBAR-VALLADOLID**
futbol partidua
ikusteko sei gonbidapen.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

**Baldintzak**

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
**902 36 38 51**
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
**36 euro**
2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**ANTZERKIA** > 'LA KABRA Y MISS YOE'S'

# Hausnarketa egitera bultzatzen du Karrak

Domekan Amaia antzokian aurkeztuko du Karra Elejaldek 'La kabra y Miss Yoe's' antzezlana. 19:30ean hasiko da

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Barre eragin bai, baina neurri handi batean inozo koadrila hutsa garela ere adierazi gura du Karra Elejaldek lan berriarekin. Domekan, *La kabra y Miss Yoe's* antzezlanean bakarrizketa lana egingo du Karrak, baina ez telebistan ikustera ohitu garen bakarrizketa estilo hori: "Mesede galanta egin digute horiek. Jendeak uste du monologo bat egitea aulki baten gainean eserita egotea dela, zerbeza bat eskuan, txisteak egiten. Nire monologoan 27 pertsonaia ezberdin egingo ditut batera".

*La kabra tira al monte* antzezlanean baino barre gehiago egingo al dugun ere galdetu diogu: "Askoz ere gehiago! Lan hura hainbat esketxekin osatu genuen, baina oraingoa eten bako kontakizuna da, istorio bat kontatuko dugu, pasarte oso barregarriekin".

Gizarteak eskaintzen dituen plazeboen artean, Karrak proposamen berria du: "Mundu honetan inor ez da pozik bizi: politika kontuak direla, gosea dela, gerrak direla... Eta, atsekabe horri egiteko gizarteak hainbat plazebo ematen dizkigu: futbola, zezenak... Hala, nik beste gozamen bat eskaini gura dizuet, antzerkia".

**LANAREN NONDIK NORAKOA**

*La kabra y miss yoe's* antzezlanean, Karrak itsasontzi batean terapia-bidaia egiten dabilen pertsona baten pasarte xelebreak kontatuko ditu. Kontakizunean, baina, ez du kritika sozial gogorra egiteko aukera bakarra alferrik galduko: "Mundu hau kaka zaharra da, eta ironia zorrotza behar da arazo eta atsekabeen gainean barre egiteko, nahiz eta negar egiteko kontuak diren. Dena dela, lehenengo geure buruari egingo diogu barre, geu jarriko gara lotsagarri, horrek ematen du-eta besteen gainean barre egiteko eskubidea".

**UMOREA, INTELIGENTEENA**

Karrarendako umoreak berebiziko garrantzia du: "Umorearekin, behar den moduan erabilita, gauza handiak egin daitezke. Esango nuke umorea beharrezkoa dela gizakiaren garapenerako. Gainera, argi daukat umoreak eta inteligentziak harreman zuzena dutela. Benetako tontoek ez dute umore onik izaten, ez dute barre egiten".

Datozen proiektuen gainean ere galdetu diogu: "Udan bi filmetan hartuko dut esku. Horietako batean nahiko paper garrantzitsua izango dut; bestea, ordea, bigarren mailakoa izango da. Bitartean idazten jarraituko dut, eta baita antzezlan hau egiten ere. Ezin naiz kexatu, aktoreek boladaka egiten dugueta lan; urte ona dugunean haziendak sekulako ostia ematen digu, baina lan gutxirekin gabiltzanean ez digute diru hori bueltatzen". Esandakoa, tontoek ez dutela barre egiten.



**BAKARRIZKETA** 27 pertsonaia egingo ditu Karra Elejaldek antzezlanean. FILA7


# Ikusteko musika

## Munduko instrumentuen erakusketa

Bergarako Aroztegi Aretoan / 2006ko maiatzaren 5etik 28ra

**INAUGURAZIOA**
Maiatzaren 5ean, ostirala, 19:00etan.
Bisita gidatua egongo da.

Ordutegia
Asteartetik ostiralera: 18:30-21:00
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-21:00
Igandeak: 12:00-14:00



AROZTEGI JAUREGIA
BERGARAKO UDALA

**KOROSTI**
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
- Ibargarai 106 m². Oso ondo.
- Espoloia 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Prezio oso ona
- Zubiaurre 80 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.

**Antzuola:**
- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza. Aukera ona.

**DEBA GARAIA**
INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**BERGARA:**
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- San Anton Abad, 75 m². Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Iparragirre 165 m². Berritzeko.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Martoko 45 m². Ondo.
- Simon Arrieta 89 m². Berritzeko.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.

**ELGETA:**
- Salbador 80 m². Berritzeko.

**SORALUZE:**
- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Duplex berria erdialdean.

**ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANISTICOS**
INMOBILIARIA
T:943 698404

BERGARA:
- 109 m² , 3 logela.
- 97 m² ,3 logela, 2002. urtekoa
- 65 m², 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa,105 m², 3 logela, garajea
- 82 m², 3 logela, berrituta. 210.995 €
- 104 m², 4 logela, egongela haundia, 366.617 euro
- Martoko. Bi urte dela berritua.
- S. Anton Abad. Bi urte dela berritua.
- Ibargarai 80 m². Bi balkoi.

ARETXABALETA
- 85 m², 3 logela, jantzita

ARASATE
- 109 m² , 4 logela, terraza,2 komun

ANTZUOLA
- 8 txalet berri
- 51 m², berrituta, 167.000 euro
- 90 m², 3 logela, terraza
- 77 m², berrituta, 217.674 euro

ANGIOZAR
Baserria

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Duplexa salgai. Eraikin berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria. 90 m2. Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, halla, bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzia. Eguzkitsua. 655 70 97 14.

**Arrasate.** Otalora 2. Goiko solairua. Ikuspegi zoragarria. Hiru logela eta bi bainugela. Bizi izatera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Erdiko kalean. 50 m². 659 59 71 21.

**Arrasate.** San Andres auzoan. 60 m². Bi gela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta ganbara. Kanpoaldera begira. 667 85 19 52.

**Arrasate.** Zerrajera. 110 m². Hego-mendebaldera begira. Garajeko bi plaza itxi. 660 70 13 80.

**Bergara.** 75 m². Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldea. Txokoa eta bi aparkaleku ere baditu. 600 46 58 02.

**Bergara.** Apartamentua salgai Espoloian. Garajea aukeran. 607 81 84 29.

**Bergara.** Baserria salgai. Bizi izateko gertu. Atikoa. Hiru logela. Garajea. 240 eta 90 m²-ko lokalak. 200 m²-ko lursaila. 370.000 euro. 661 96 62 65.

**Bergara.** Ehun metro koadroko etxebizitza salgai: lau logela (horietako bat estudio estilokoa), bi komun, sukaldea, bi balkoi, hainbat armairu eta argi halogenoak etxe guztian. Ortuibar inguruan. 662 47 39 47.

**Bergara.** Ortuibar kalean etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. Ganbara eta garajearekin. 609 47 94 43.

**Bergara.** Telesforo Aranzadi. Berriztatuta. 699 75 45 46.

**Elorrio.** 77 m², berritua, sukaldea, komuna, bi logela, trastelekua, 20 m²-ko egongela. Herri erdian, leku lasaia eta ikuspegi onak. 190.000 euro. 630 58 97 86.

**Elorrio.** 77 metro koadroko etxe berritua: sukaldea, komuna, logela bi, trastelekua eta 20 metro koadroko egongela. Herriaren erdian kokatua dago, lasaia da eta bista onak ditu. 190.000 euro. 630 58 97 86.

**Noja.** Bizitegi-gunean etxebizitza salgai, hondartzatik gertu. Bi logela, sukaldea, komuna, bi terraza eta garaje bikoitza ditu. 675 70 60 95.

**Soraluze.** Etxebizitza salgai; lehenengo solairua da, hiru logela ditu, egongela, sukaldea eta bainugela (guztira, 57 metro koadro); ganbara ere badu, baita ere 33 metro koadroko baxu komertziala eta atari eta eskailera pribatua. Herri erdian. Prezioa: 144.000 euro. Telefonoa: 943 76 32 25.

### 102. EROSI

**Aramaion** etxea erosiko nuke. 639 77 49 80.

**Leintz Gatzagan** etxea erosiko nuke. 650 06 02 53.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Logela bat alokatzen da. Sukaldea erabiltzeko aukera. 300 euro. Dorleta. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Costa Sancti Petri**-Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan, La Barrosa hondartzatik oso-oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 75 39 10.

**Eskoriatza.** Lau ikaslerendako etxea alokatzen dut. Unibertsitatetik oso gertu. 616 64 96 28 edo 629 42 26 47.

**Haro** (Errioxa). Etxea ematen dut errentan. Ekaina eta iraila. Igerilekua. 618 16 23 69.

**Oñati.** 58 m². Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Herriko plazatik gertu. 656 72 10 35.

**Oñati.** Euskadi etorbidean, orain gutxi berritua. 3 logela eta 2 komun. 605 74 52 02.

**Salou.** Toki onean dago. Igerilekua dauka. Abuztuan eta uztailean dago alokagai. 653 72 53 85 edo 943 79 45 19.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 636 49 46 87.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxe bat osatzeko. Etxebizitza zeharo jantzita dago. 210 euro gehi gastuak. Esther. 636 41 40 67.

**Arrasate.** Unibertsitatetik gertu dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 220 euro. 667 53 70 12.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan Olarte kalean. 616 70 78 91.

**Arrasaten.** Bi plaza dituen garajea errentan ematen da. Arimazubi plazan. Iñigo. 675 71 57 03.

**Oñati.** Garajea ematen da errentan. 17 m² eta plazatik gertu. 656 72 10 35.

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

# 943 25 05 01

# sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 17 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**
**649 84 67 09 (BERGARA)**
**943 33 18 37 (HERNANI)**

**BERGARA**
**Bergarako Batzokiko jatetxea alokatzen da. Deitu goizez. 10:00-12:00**
**943 76 47 00**

**ANGIOZAR**
**Ortzi erretegia alokatzen da.**
**943 78 22 80**
**665 72 24 46**

**ARRASATE**
**Olarte ikastolaren ondoan 85 m²-ko lokala salgai. Etxebizitza bilakatzeko baimenarekin.**
**652 76 21 63**

**ARETXABALETA**
**Neska bat behar da zerbitzari lanak egiteko.**
**635 73 27 74**

**ARETXABALETA**
**Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.**
**652 70 82 46**

**BERGARA**
**Depor tabernan zerbitzaria behar da.**
**629 26 88 51**

### 204. ERRENTAN HARTU

**Garaje itxia** hartuko nuke errentan. 625 70 86 49.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Industrialdean dago lokala. Komuna du. Gazteen lokal moduan edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. 659 72 47 69.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 650 61 90 64.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 943 12 08 80.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak eta edadetuak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeak garbitu edo pertsona nagusiak zaintzeko, orduka, arratsaldeetan edo gauetan. Esperientziaduna. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Bergara, Arrasate.** Neska gertu lan egiteko nagusiak edo umeak zaintzen, zerbitzari, garbitzaile, edo orduka. Telefonoa: 690 84 72 92.

**Bergara.** Emakumea lanerako prest. 699 38 63 25.

**Bergara.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 690 12 83 42.

**Bergara.** Neska edozein lan mota egiteko gertu, kanpoko langile moduan. 690 12 83 42.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Erizain titulua. 695 71 88 84.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 690 28 91 89.

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak edo umeak zaintzen. Urte askoko esperientzia. 650 62 12 94.

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko prest: tabernetan, etxeak garbitzen edo nagusiak zaintzen. Telefonoa: 686 79 97 79.

**Debagoiena.** Eraikuntzan egingo nuke lan: peoi, eskaiolista... Baimenak dauzkat. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.

**Debagoiena.** Etxean bizi izateko edo kanpoko langile moduan, emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak eta antzerakoak egiteko. 645 07 39 95 edo 943 53 22 11.

**Debagoiena.** Mutila lanerako prest. Esperientzia dauka argiketari, soldatzaile eta iturgin modura. 686 79 97 79.

**Emakumea** gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

**Mutila** gertu sukaldari lanetan aritzeko edo nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 943 71 21 15 edo 628 48 05 41.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo teknologikoko eskolak jasotzeko irakaslea behar da. 616 70 78 91.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Goi mailako** ingeniari industrialak eskolak partikularrak ematen ditu. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, elektrizitatea... Maila guztiak. Esperientzia handia. 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi 80.** 1.9 TD. Egoera onean. 1990ekoa. 1.000 euro. 679 67 38 04.

**Citroen C-15.** SS-8357-AV. Diesela, egoera onean eta direkzio lagunduarekin. 3.000 euro. Gauez deitu. Asier. 635 73 51 10.

**Citroen** Xantia familiarra salgai; gris metalizatua, aluminiozko hagunak (llantak), 2.1 td/sx, aire girotua eta itxiera bateratua. 7.500 euro. Telefonoa: 686 65 13 66.

**Citroën Xantia** autoa salgai. VIP. Gehigarriak, aire girotua, kristal-jasogailu elektrikoa, itxiera bateratua, ABSa, e.a. 675 70 00 02.

**Fiat** Ducato autokarabana salgai. 2.5 TDI. Sei lagunentzako lekua. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Fiat** Uno autoa salgai. SS-AP. 1.000 euro. Telefonoa: 652 76 60 36.

**Ford Escort** familiarra salgai. 16 v. 127.000 kilometro. 649 69 33 02.

**Kymco** Bet&Win motorra. 150 cm3. Oso ondo dago. Osagarriak ditu. 636 85 74 43.

**Opel Corsa DTI** salgai. 30.000km. Aire girotua, CDa, aire-zakuak. Telefonoa: 665 74 91 28.

**Renault** Express. Oso ondo dago. Beti garajean. Telefonoa: 606 68 79 84.

**Renault** Laguna 1600 TXE. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 79 92 53.

**Trialerako** motorra salgai. 2.400 euro. 690 81 64 39.

**Vespa** Plagio motorra salgai. 50 cm3. Ondo dago. 450 euro. Deitu 21:00etatik 23:00etara. 656 75 52 28.

**Volkswagen Polo.** SS-AX. 890 eurotan. 625 70 84 55.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Aulkitxoa** salgai. Umearendako paseorako aulkitxoa salgai. Nurse markakoa. 675 70 50 43.

**Bizikleta finkoa** salgai. Berria, ia erabili gabea. 646 09 47 85.

**Errepideko bizikleta** salgai. Egoera oso onean dago. Giant-Once markakoa, Campagnolorekin hornitua eta kilometro-kontagailuarekin. Koadro handia da. 620 48 96 18.

**Ile apaindegiko** tresnak salgai: ilea lehortzekoak, eserlekuak eta ispiluak, besteak beste. Berriak. 943 76 63 30.

**Kanpinerako karro-denda** salgai. Egoera onean eta merke. 943 79 63 67.

**Tonerra** salgai. Oki Type 7 modeloa. 20-24 serieak. Baten salneurria 30 euro; seiren salneurria 150 euro. 616 15 63 73.

**Umeendako aulkia** salgai. Bikiendako. Redcastle markakoa. Estalki eta guzti. Oso egoera onean. 630 07 07 27.

**Untxiendako** kaiolak salgai. 6 euroren truke bakoitza. 646 09 47 85.

**Zapatila ortopedikoak** salgai, emakumezkoentzakoak. Marroi kolorekoak eta zinta itsasgarridunak. 41 neurrikoak dira eta estreinatu gabe daude. 60 euro, negoziatzeko aukerarekin. Nereagatik galdetu. Telefonoa: 943 79 68 18.

### 802. EROSI

**Debagoiena.** Basoko lursaila edo baserriko lursaila erosiko nuke. 678 72 75 72.

**Txanponak** eta banku-billeteak erosten ditut. Telefonoa: 945 44 50 44.

### 806. GALDU

**Gerriko poltsa** galdu nuen Roneo plazan. Barruan Gameboy jokoa zegoen. Esker-saria egongo da. Telefonoa: 620 15 12 12.

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** 4 urte inguruko haur baten jantzi polar grisa aurkitu nuen eguenean, apirilak 20, Errekabarrenean. Telefonoa: 653 72 89 17.

**Betaurrekoak.** Neskatilentzako betaurreko gorri graduatuak aurkitu nituen apirilaren 19an Gorlan. Deitu telefonoa honetara: 943 76 44 69.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate-Donostia.** Joan-etorria egiteko autoa konpartituko nuke. 06:30ean joan eta 16:30ean itzuli (gutxi gorabehera). Gauez deitu. Telefonoa: 665 75 86 04 edo 943 79 32 10.

LANA KOOPERATIBA ELKARTEA

LANA

# OHIKO BATZAR NAGUSIA

**DEIALDIA:**

Eguna: 2006ko maiatzaren 10a.
Ordua: 16:00etan, lehenengo deialdia
16:30ean, bigarren deialdia.
Tokia: Oñatiko Kultura Etxea.

**AZTERGAIEN ZERRENDA:**

1. 2005eko batzar arruntaren eta 2006ko batzar bereziaren agiriak onartzea.
2. 2005eko memoriaren, kontuen eta balantzearen azterketa eta onarpena.
3. Soberakin garbien banaketa.
4. Lege eta araudizko erabakiak.
5. 2006ko Gestio planaren azterketa eta onarpena.
6. Barne araudiaren 74. artikuluaren 1. puntuaren (Ordaindutako baimenak) aldaketa.
7. Artekaritza kontseilua berritzea.
8. Beste batzuk, erregu eta galderak.

Oñati, 2006ko apirilaren 12a.



**Beni Etxarri** eta **Pepe Perez** bergararrak orain dela 50 urte apirilaren 28an ezkondu ziren. Gaur, egubakoitza, urrezko ezteien ospakizuna egingo dute. Egun berezi honetan zorionak eta muxu handi bana Tio Peperen familiakoen partetik.



**Asier Garcia** eta **Laura Perez** bergararrak martxoaren 24an ezkondu ziren Bergarako udaletxean. Asian egon ziren ondoren eztei bidaian eta etxera bueltan koadrilakoek zoriondu egin nahi dituzte. Zorionak bikote!

ESKELA

## Luis Miguel Lopez

"Lopo"

Tenerifen hil zen 2006ko maiatzaren 1ean, 40 urte zituela.

*Zorte handia izan da zu ezagutzea.*
*Geure bihotzetan zaude.*

Zure lagunak.
Arrasaten, 2006ko maiatzaren 5ean.

ESKER ONA

## Santiago Garcia Martin

Bergaran hil zen 2006ko apirilaren 8an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko maiatzaren 5ean.

ESKER ONA

## Joseba Bengoa Eraña

Arrasaten hil zen 2006ko maiatzaren 3an, 79 urte zituela.

*Zu sortu zinen enbor beretik*
*sortuko dira besteak*



Hiletara joan zaretenoi, eskerrikasko etxekoen izenean
Arrasaten, 2006ko maiatzaren 5ean.

ESKER ONA

## Edurne Larrañaga Elortza

Balbino Larrañaga Trojaolaren alarguna

Arrasaten hil zen 2006ko apirilaren 26an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko maiatzaren 5ean.

URTEURRENA

## Anastasio Arantzeta Arregi

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 7an,
12:00etan, Elgetako
Jasokundeko Gure Ama elizan.



Elgetan, 2006ko maiatzaren 5ean.

URTEURRENA

## Jesus Larrañaga Lizarralde

Bigarren urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 7an,
12:30ean, Arrasateko
San Juan Batailatzailearen elizan.



Arrasaten, 2006ko maiatzaren 5ean.

URTEURRENA

## Miguel Biain Cortabarria

Oñatin hil zen 2005eko maiatzaren 7an.

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, maiatzaren 6an,
19:00etan, Oñatiko
Mikel Goiaingeruaren elizan.



Aurrez esker on bertaratzen zeraten guztioi.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Hondartza txikia · Dozena bat · Garaua, bihia · Higitu · Bizitzera behartu · Bizkaiko herria · Luzaro · Zelako · Neska tentela · Naiz · Nagitasunez · Lirain, sotil · Kasik · Hegazti mota · Ahul, indargabe · IRUDIKO MENDIA · Zakur · Gabarra · Anperea · Ukatzeko · Aintzira · Mundura etorri · Legez, beza-la · Hidrogenoa · Handituz joan

LUMA

## umore giroan



Kike Amonarriz

**Toni Blair**

Irlandako bake prozesuari buruzko bere ikuspegia azaltzera hurbildu da sekretupean Tony Blair Euskal Herrira. Hegazkina Sondikan lurreratu da, arratsalde euritsu batean. Hegazkinetik jaitsi eta sarrera nagusira heldu da. Han, emakume heldu bat ikusi du, taxi batera hurbildu eta gidariari honako hau esaten:

- Begoña!

Orduan, bera, hurrengo taxistarengana hurbildu, makurtu eta erdizka zabaldutako leihatilatik, honako hau esan dio, inguruko guztiek entzuteko moduan:

- Tony!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | 6 | | | | | 3 |
| 1 | | | | | 9 | | | |
| | | | 3 | | | 9 | 7 | 1 |
| | | 1 | | 9 | 7 | | | |
| | 7 | 2 | 5 | | 6 | 1 | 8 | |
| | | | 8 | 1 | | 5 | | |
| 6 | 2 | 5 | | | 8 | | | |
| | | | 2 | | | | | 5 |
| 9 | | | | | 5 | 7 | | |

## hieroglifoa

Jolasean



## hizki salda

Euskal Herriko kostako bost herri

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | R | Z | U | M | A | I | A | O |
| M | A | I | D | I | B | F | G | H |
| L | E | K | E | I | T | I | O | U |
| M | E | R | A | G | Z | I | R | K |
| N | D | O | S | O | R | D | O | I |
| A | S | E | D | O | N | S | X | R |
| R | T | A | B | O | M | A | Z | T |
| M | G | H | S | A | B | O | D | U |
| A | E | O | B | S | O | E | B | M |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | K | ■ | H | ■ | B |
| | | | H | A | M | A | B | I |
| | | | ■ | L | U | Z | A | Z |
| ■ | M | ■ | N | A | G | I | K | I |
| N | A | G | O | ■ | I | A | I | A |
| ■ | M | A | L | E | T | ■ | O | R |
| K | A | L | A | M | U | A | ■ | A |
| ■ | L | A | K | U | ■ | L | E | Z |
| J | A | I | O | ■ | H | A | Z | I |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | 4 | 6 | 2 | 1 | 8 | 5 | 3 |
| 1 | 3 | 8 | 7 | 5 | 9 | 4 | 6 | 2 |
| 2 | 5 | 6 | 3 | 8 | 4 | 9 | 7 | 1 |
| 5 | 8 | 1 | 4 | 9 | 7 | 2 | 3 | 6 |
| 4 | 7 | 2 | 5 | 3 | 6 | 1 | 8 | 9 |
| 3 | 6 | 9 | 8 | 1 | 2 | 5 | 4 | 7 |
| 6 | 2 | 5 | 9 | 7 | 8 | 3 | 1 | 4 |
| 8 | 1 | 7 | 2 | 4 | 3 | 6 | 9 | 5 |
| 9 | 4 | 3 | 1 | 6 | 5 | 7 | 2 | 8 |

**Jeroglifikoa:** Pilotan.
Pi lotan

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | R | Z | U | M | A | I | A | O |
| M | A | I | D | I | B | F | G | H |
| L | E | K | E | I | T | I | O | U |
| M | E | R | A | G | Z | I | R | K |
| N | D | O | S | O | R | D | O | I |
| A | S | E | D | O | N | S | X | R |
| R | T | A | B | O | M | A | Z | T |
| M | G | H | S | A | B | O | D | U |
| A | E | O | B | S | O | E | B | M |

## bono fotoa



**Besteak beste, gauza bat ekoizteagatik ospetsua zen Bergara XVI. mendean; kofradia bat ere bazuten gremiokoek eta Sevillan merkatal ordezkaritza. Zer zen: errellenoak, zapatak ala labanak?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM IFA

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ........................................
IZEN-DEITURAK ........................................
TELEFONOA........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Elvive xanpua**
300 ml

**3,75 €** 624 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
**BEGOÑA USANDIZAGA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Santa Marina.




Debagoieneko
## PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

### BIDEO EKOIZPENAK

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA**
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**JUAN MARI OSINAGA**
ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

### ASEGURUAK

**GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA**
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

### DISEINU GRAFIKOA

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgoe@telefonica.net

### GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Txaro Gallego > Antzezlea

# "Nire ametsa da klown ona izatea; hori sekulakoa da, baina oso zaila da"

Txaro Gallego txikitatik izan da ipurterrea, eta abestea beti izan du oso gustuko, baina Karra Elejalderen *La cabra tira al monte* bakarrizketa ikusi zuenean berak ere interpretatu gura zuela erabaki zuen. Hortaz, ikasketak utzi eta Iruñera jo zuen bere burua antzezle egitera. Horren ostean, Madrilen gogor borrokatu behar izan du bere lekua aurkitu artean.

IKER BARANDIARAN > ARETXABALETA
**Txaro Gallego aretxabaletarrak sei urte darama Madrilen antzezle lanak egiten. Aspaldian Espainiako Zentro Dramatikoan dabil lanean, eta gaur eta bihar Iruñeko Baluarten *Divinas Palabras* antzezlana egingo dute.**

**Ume zinela, zer izan gura zenuen nagusitan?**
Betidanik izan ditut zaletasun artistikoak. Bost urte nituenetikedo askotan ibiltzen nintzen etxean dantzan eta kantuan. Mozorrotzea ere oso gustuko nuen. Zortzi edo bederatzi urterekin erabaki nuen abeslari izan gura nuela, baina oraindik ez dut lortu, nahiz eta gaztetxotan Arrasateko eta Aretxabaletako talde batzuekin abesten ibili.

Hala ere, esan beharra dago Aretxabaletan eta orokorrean inguru honetan ni txikia nintzenean ez zegoela antzerkia edo dantza egiten ikasteko aukerarik, eta hori pena da.

**Noiz eta zelan zaletu zinen antzerkira?**
Oso berandu. Aretxabaletan ez dute ia inoiz antzezlanik egiten eta halako baten Karra Elejalderen *La cabra tira al monte* ikuskizuna ekarri zuten. Karra Elejaldek begiak zabaldu zizkidan, hark dauka errua! Zirraragarria iruditu zitzaidan lagun bakarrak hainbeste pertsonaia interpretatzea eta hala komunikatzea. Sasoi hartan Gizarte Hezkuntza ikasten nenbilen, Donostian. Ikasketa horiek utzi eta antzerkia non ikasi aztertzen hasi nintzen.

**Zelan hartu zuten erabaki hori gurasoek?**
Ulergarria den moduan, haserretu egin ziren eta ez zuten erabakia onartu gura izan. Lehenengo ikasketak bukatzeko eta horren ostean antzerkia egiteko aholkatu zidaten, baina nik aurrera egin nuen. Udan herrian lan apur bat egin, diru apur bat irabazi eta irailean Iruñeko Antzerki Eskolan hasi nintzen.

**Erraza izan zen eskolan onartua izatea? Zer-nolako esperientzia izan zen?**
Sasoi hartan, ikasturte bakoitzean 15 lagun besterik ez zuten hartzen, eta kanpoan gelditzeko puntuan egon nintzen. Eskolara sartzeko probetan abestu, bakarrizketa bat egin eta mugimendu ariketa bat egin behar izan nuen. Nik aurretik ez neukan inolako ezagutzarik, baina hartu egin ninduten, antza probak ondo egin nituen-eta.

Asko gustatu zitzaidan eskola eta han erakusten zutena. Niretzat guztia zen berria: ahotsa, gorputza lantzea, interpretatzea, komunikatzea...

**Eta horren ostean Madrilera jo zenuen?**
Bai. Iruñean hiru urtean ikasketak bukatu nituen eta une hartan zer egin pentsatu nuen. Debagoienean lan egiteko aukera gutxi izango nituela-eta Madrilera jo nuen aukera horien bila. Zoritxarrez, Madrilen aukerak egon badaude, baina jende ugari dabil horien bila eta lehiakortasuna ikaragarria da.

**Zaila izan zen antzezle lana aurkitzea?**
Hasieran bai. Leku gehienetan aurpegi eta gorputz polita izatea eskatzen zuten, eta bestela lan esperientzia. Sasoi baten tabernari eta begirale lanak egin behar izan nituen. Gogorra izan zen. Madrilen ez dute askorik ordaintzen, baina alokairuak-eta oso garestiak dira.

**Eta norekin hasi zinen lanean?**
Argentinako Caziolos taldearekin ikastaro bat egin nuen eta talde horrekin *performance* bat antzezten ibili nintzen. Klown eta mimo ikuskizunak ere egin genituen. Nire ametsa da klown ona izatea, baina oso zaila da.

**Antzezleok uneoro birziklatzen eta ikasten ibili behar duzue?**
Bai, hala da. Gelditzen garen bakoitzean gaitasunak galtzen ditugu. Horrez gain, lanbide honetan ezinbestekoa da irakurtzea, ikertzea, behatzea, entzutea eta uneoro gauza berriak ikastea. Caziolos taldearekin ibili ondoren, Maria del Mar Navarrok zuzentzen duen Mugimenduaren Eskolan ikasi nuen, Madrilen. Navarro oso ezaguna da antzerki alorrean eta asko daki. Hura izan da nik izan dudan benetako irakaslea.

**Eta lana aurkitzen lagundu zizun...**
Bai, aholkatu zidan Espainiako Zentro Dramatikoak egin zituen probetara joateko eta ordutik hona han nabil lanean. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Iruñeko Baluarten Valle-Inclanen *Divinas Palabras* lana antzeztuko dugu.










IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

**Herria:** Aretxabaleta. **Adina:** 29 urte. **Ikasketak:** Animazio Soziokulturala eta Interpretazioa. **Zaletasunak:** Abestu, poesia idatzi eta film klasikoak ikustea. **Zure bokazio ezkutua?** Rock talde baten abestea. **Zenbat seme-alaba edukiko zenituzke?** Bi, eta horietatik bat adoptatu egingo nuke. **Baduzu etxean kandelarik argirik ez dagoenerako?** Bai, bat baino gehiago. Iluntasunak beldurtu egiten nau. **Aktore bat?** Fernando Sansegundo. **Zuretzat Aretxabaleta da...** Nire sustraiak, segurtasuna eta lasaitasuna.

## berriak

> PROGRAMAZIOA

### Mugarri-Alkesak jokatuko duen seiko finalean izango gara

Goiena Telebista Iruñean izango da oraingo asteburuan. EBA ligara igotzeko seiko finala jokatuko du Arrasateko Mugarri-Alkesa saskibaloi taldeak, eta azken fasearen berri emateko GOITBk kameralaria eta kazetaria bidaliko ditu Nafarroako hiribururа.

Astelehenean Julen Iriondok zuzentzen duen *Harmailatik* saioak tarte berezia eskainiko dio saskibaloiari.

> PROGRAMAZIOA

### Arrasateko alkatea, Ignacio Lakuntza, 'Debarri' saioan

Maiatzaren 10ean Arrasateko alkatea, Ignacio Lakuntza, izango da *Debarri* saioko protagonista nagusia. Alberto Gorritiberearen eskutik gainbegiratua egingo diote Arrasateko gaurkotasunari. Gaur egungo eta etorkizuneko proiektuez arituko dira.

Arrasatearrek ere badute aukera alkateari galderak egiteko *goiena.net*-en. Eguaztenera bitartean jasoko dituzte herritarren kezkak.

> ARRASATE IRRATIA

### Alberto Urretxo tronboi-jotzailearekin musikaren geltokian

Arrasatearra da Alberto Urretxo, baina urteak daramatza Bilbon, bere ogibideak, musikagintzak, horrela aginduta. Urte oparoa du aurtengoa Urretxok, proiektu asko dituela esku artean.

Astean 107.7ko autobusean izan dugu, eta, besteak beste, J.C. Perezekin grabatu berri duen *Hiriko istorioak* diskoaren gainean jardun dugu. Asteburuan izango duzue berriro entzungai.

> DATORREN ASTEAN

### Eguaztenetan, merkatu txikiaren geltokia

Arrasate Irratiko uhinetako autobusaren ibilbideak egunero dira ezberdinak. Hala ere, baditu asteroko geltokiak ere; horietako bat merkatu txikia da.

Eguaztenero hurbiltzen gara, entzuleek igorritako oharrak jasotzeko. Beraz, ezer izanez gero, saltzeko edo erosteko, lan bila bazabiltza edo aterpe bila, bidali, bada, zure mezua: 943-71 17 31 telefonora edo *irratia@goiena.com* helbide elektronikora.

**'DIDJERIDU' SAIOAN OLATZ LAZKANO** > EGUENA, 22:15

# "Itsasoa, urpekaritza eta animaliak dira nire pasioa"

Olatz Lazkano 28 urteko arrasatearra izango da oraingo asteko protagonista 'Didjeridu' saioan

**GOIENKARIA** > BERGARA

Biologia ikasketak ditu *Didjeridu* saioko oraingo asteko protagonistak. Olatz Lazkano arrasatearrak itsasoa, urpekaritza eta animaliak ditu gustuko. Ambar elkarteko kidea da eta zetazeoak behatzeko bidaiak antolatzen dituzte *Pride of Bilbao* itsasontzian. Itsasoa da Olatzen pasioa eta bidaiatzen duenean ere itsasertzean dauden herrialdeak aukeratzen ditu.

*Didjeridu* saioan horren guztiaren gainean egingo du berba 28 urteko gazte arrasatearrak Amagoia Lasagabaster kazetariarekin.



OLATZ LAZKANO *Didjeridu* saioko protagonista. GOIENKARIA

**MIKEL LASKURAIN, 'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Mikel Laskurain aktore bergararra oraingo asteko protagonista 'Ilunpean'-en

**GOIENKARIA** > BERGARA

Eskarmentu handiko aktorea da Mikel Laskurain bergararra eta film askotan egin du lan. Montxo Armendariz zinema zuzendari nafarraren *Obaba* filmean ikusi genuen postari lanetan eta Julio Medem donostiarrarekin ere lan egindakoa da. Telebistan ere ikusi izan dugu; *Goenkale* telesail arrakastatsuan eta *Wazemank* ETBko umore saioan, besteak beste.

Hika antzerki taldeko partaidea ere bada bere bikotekide Miren Gojenola aktorearekin batera. Antzerki taldean aktore zein produktore lanak egiten ditu Mikel Laskurainek. 41 urte ditu eta gaur egun Hernanin bizi da. Bi semeren aita da Mikel Laskurain eta ahal duen guztietan gerturatzen da Bergarara; izan ere, oso bergararra ei da.

Horren guztiaren gainean jardungo du Mikel Laskurainek *Ilunpean* saioan Oihana Elortzarekin. Egubakoitzean izango da saioa, 22:15ean. Asteburuan ere elkarrizketa ikusteko aukera izango da gurean.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

### Etxe(kalte) doktorea

House telesaila (Cuatro) oso gustura ikusteaz gain ematen dit zer pentsatu. Ospitaleko giroa, heriotza eta bakardadea oso presente egoten dira istorioetan. "Bortizki zintzoa", "bakartia" eta oso sarri "harroa" izaten den House medikuak harreman pertsonaletan bi indar kontrajarri daudela agerian jartzen du. Batek gure aldamenekoak ondo tratatu behar ditugula esaten du. Medikuen kasuan gainera, ondoezik eta laguntza beharrean daudenak izaten direlako bezero. Baina, horren gainetik, Housek aplikatzen duen terapia zera da: esan beharrekoak esan, labur, zuzen eta gordin.

Hor nire buruhausteak, bi indar horien arteko oreka non ote dagoen. Galduta gehienetan. "Alferrik bueltak eman barik gauzak esan egin behar dira, onak eta txarrak", dio nire alde batek. Besteak, aldiz, tentuz ibili beharra, inor mindu barik aritzea hobe dela dio, errukiz beteriko gezur txikiekin bada ere. Housek ez du zalantzarik izaten, baina gutariko edozeinek arazo gehiago izaten ditu aurreko egunean esandakoagatik barkamen eske ibiltzeko biharamunean. Nik bai behintzat.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Musikaren geltokian, Alberto Urretxo tronboi-jotzailea; Pablo Ibar berbagai, Pilare Pereda Arrasateko lehengusinarekin; Mundumira jaialdiaren gainean, Ernesto Murgiondorekin; Lorategiaren geltokian, ezkontzen gainean; Olatz Lazkanorekin, Anbar taldeko kidearekin, euskal kostaldeko itsas fauna berbagai...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Lorategiaren geltokia.
Meteorologiaren geltokia(Pello Zabala).
Sariak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errepikapena)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errepikapena) .

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 5**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo: Sukaldaritza **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean: Mikel Laskurain **22:45** Albisteak **23:15** Debarri **00:15** Berriak **00:45** Amaiera.

**Zapatua, 6**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo: Sukaldaritza **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa **12:15** Debarri: Elgetako alkatea, Patxi Basauri **13:15** Elkartasun bideak **13:45** Didjeridu. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Astekoak **15:00** Jazz mintegia **15:30** MKT. **16:00** Teknopolis **16:30** Didjeridu **17:00** Debarri **18:00** Marrazki bizidunen bilduma **19:15** Eltze beroa. **19:30** Iparrorratza. **20:00** Behazulo **20:30** Zera dio eta Motzean **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Didjeridu **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** Debarri. **23:45** Erreportajea **00:15** Emisio amaiera.

**Domeka, 7**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** Erreportajea. **13:15** Munduari bueltaka. **13:45** Klip@. **14:15** Marrazki bizidunak: Montana **15:15** Ilunpean. **15:45** Astekoak **16:00** Klip@k. **16:15** Behazulo. **16:45** Debarri: Elgetako alkatea. **17:45** Sustraia **18:15** Marrazki bizidunak **19:15** Iparrorratza **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** Didjeridu. **21:30** Debarri. **22:30** Berbaire: Mikel Lezamiz, Arrate Landa eta Urko Lopez. **23:00** Teknopolis: erreportaje saioa. **23:30** Astekoak. **23:45** Emisio amaiera.

**Astelehena, 8**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo **14:15** Eltze beroa **14:30** M1 **14:45** Gaurkoak **14:47** Zera dio eta Motzean. **15:00** Munduari bueltaka. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Ilunpean **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Didjeridu. **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea **18:15** Sustraia **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Ilupean **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Harmailatik. **21:45** Albisteak. **22:15** Harmailatik **22:45** Berriak **23:15** Behazulo **23:45** Albisteak. **00:15** Amaiera.

**Martitzena, 9**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz zikloa **14:15** Zera dio **14:30** M1 **14:45** Gaurkoak **14:47** Eltze beroa. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Jazz zikloa. **17:30** Danbaka saioa. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea **18:15** Munduari bueltaka **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Ilupean **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Ilunpean: Mikel Laskurain. **21:45** Albisteak. **22:15** Berbaire: Miren Elgarresta, Ainhoa Larrañaga eta Larraitz Ugarte. **22:45** Berriak **23:15** Behazulo **23:45** Albisteak. **00:15** Amaiera.

**Eguaztena, 10**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Danbaka **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak **21:47** Debarri: Arrasateko alkatea, Ignacio Lakunza izango da protagonista. **22:45** Berriak **23:15** Erreportajea **23:45** Albisteak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 11**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Sustraia. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Debarri **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jazz mintegia. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza:. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak: Card Sakura **20:45** Berriak. **21:15** Sustraia. **21:45** Albisteak. **22:15** Didjeridu: Olatz Lazkano biologoari elkarrizketa. **22:45** Berriak. **23:15** Berbaire: Miren Elgarresta, Ainhoa Larrañaga eta Larraitz Ugarte. **23:45** Albisteak **00:15** Amaiera.

**Mikel Mesonero** > Marketin aditua

# "Ikuspuntu estrategikotik ulertu behar da marka"



Mikel Mesonero MUko Enpresa Zientzien Fakultateko marketin saileko zuzendaria da. AZK TALDEA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Mondragon Unibertsitateak, AZK enpresak eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak *branding* edo markaren gaineko jardunaldia antolatu dute. Maiatzaren 17an izango da, Kursaalen. Hala, MUko Enpresa Zientzien Fakultateko marketin saileko zuzendari Mikel Mesonerok eman digu jardunaldiaren berri.**

**Zein da jardunaldiaren helburu nagusia?**

Markaren kudeaketaren inguruan enpresak sentsibilizatzea, ingurune global honetan markak duen garrantziaz hausnarketa egin nahi dugu; izenematea *www.eteo.mondragon.edu* webgunean egin daiteke.

Gero eta internazionalagoa den gune batean lehiatzen ari gara. Produktua, kalitatea eta teknologia garrantzitsuak izan daitezke hurbileko merkatuetan. Kanpoko merkatuetan, aldiz, inork ez bazaitu ezagutzen, zure kalitatea ez du inork ezagutzen. Behin kalitatea lortuta, ezagutzera eman behar duzu. Hori dela eta, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da marka. Abantaila konpetitiboak pasatzen ari dira ukigarrietatik ukiezinetara. Eta abantaila ukiezin oso garrantzitsu bat da markaren kudeaketa.

**Markaz ari garenean, zertaz ari gara?**

Marka zentzu zabalean ulertu behar da, ikuspuntu estrategikotik. Marka segituan identifikatzen da izen komertzial batekin edo logotipo batekin. Baina marka kontzeptu askoz ere zabalagoa da. Bezero bat enpresa batekin harremanetan jartzen denean, marka batekin harremanetan jartzen da eta horrek dakar hainbat esparru ezberdin kontuan hartu behar ditugula: estrategia, alde juridikoa, merkatua, eta abar.

**Eta zelan neurtzen da marka baten balioa?**

Enpresa barneko balioak markari transferitzea lortu behar da. Enpresa barrura begira eta kanpora begira marka bizi izaten den modua bera izatea da helburua. Bezeroenganako errespetua azaldu nahi badut, barruan ere enpresako langileek kontuan izan behar dute nor den bezeroa, zelan tratatu behar zaion, zein garrantzitsua den enpresarentzat. Koherentzia egon behar du barruan esaten dugunaren eta kanpoan esaten dugunaren artean.

**Komunikazio lana ezinbestekoa da...**

Komunikazio tresna ezberdinak erabiltzeko orduan ere erabilera koherentea egitea komeni da. Gaur egun bezeroak enpresa batekin edo marka batekin askotariko hartu-emanak ditu: webgunea, saltzailea, katalogoa... Horiek guztiek irudi koherentea eman behar dute. Horrek dakar marka ikuspuntu estrategikotik lantzea, betiere merkatuak zer eskatzen duen kontuan hartuz. Azken batean, komunikatzen duguna da enpresa.

**"Abantaila ukiezin oso garrantzitsua da markaren kudeaketa gaur egun"**

**"Enpresa barneko balioak markari transferitzea lortu behar da, koherentzia izatea"**

**Horren lehia handia dagoenean bereiztea ez da erraza.**

Marketin ikuspuntutik bereizketa hori izan daiteke marka indartsu bat daukazulako edo bezeroarekiko oso harreman estua duzulako. Eta biak oso lotuta daude. Marka horren bitartez bereizteak zure produktua zerbait garestiago saldu ahal izatea dakar. Produktua baino gehiago, marka bat edo zurekiko konfiantza erosten da kontsumo merkatuan. Balio batzuk ordezkatzen dituelako bezeroa gertu dago zapatila marka jakin bat izatearren diru gehiago ordaintzeko. Hori industria merkatuetan geroago eta sarriago gertatzen ari da. Erlazioak epe luzera direnez, konfiantza geroago eta garrantzitsuagoa da, eta hori marka ezagun batek ematen dizu.

**Eremu txikian mugitzen diren enpresek zer egin dezakete?**

Epe luzerako ikuspegiarekin ahalegindu. Teknologia berriek bezeroarekiko harremana hobe dezakete. Betiere, helburu batekin, erlazioa horretan bezeroaren konfiantza eta fidelitatea lortuz, bezero berriak lortzea oso zaila baita gaur egun. Eta berrikuntza bezeroarekin lotzea positiboa da beti. Kasu askotan berrikuntzaren abiapuntu izan daiteke bezeroa, merkatua, eskaera berriak aztertuta.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /joseba /BZ-sistemas /dragon-oriental /dukiena /ego /elejalde /ezkutuorly /gallastegi /ganesha /garaia /gorkagarai /gorkataxi /guztizeder /irudisport /korozabaleta /maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /okipark /vitoria /pando /richimaier /udalatx /udalaitz /urdeki

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**LORENZO MARTIN RAFAEL**
Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69
**TRIPALDI ENRIKE**
Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

## DIETISTAK
**ALBERDI MIREIA**
Bergara /Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89
**ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labegaraieta ind. / 943 76 53 35
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**CASANELLAS JABIER**
Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LASAI MASAJEAK**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 943 77 04 34

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**GALLASTEGI ANA - PSIKOTERAPEUTA INTEGRATZAILEA**
Bergara (Astelehenetan) / San Martin Plaza 3-4D / 669 42 68 11
Donostia / Larramendi 2 solairuartea (Baraka) / 943 45 65 56
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77
**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55
**ZUBILLAGA ZABALA MARISA**
Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Maiatzak 5-12

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Bi euskara ikasle xelebre



BERGARA

**> 'Euskara sencilloaren manifiestoa' antzezlana egingo du Bikoteatroak**

Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek egiten dituzten pertsonaiek euskara ikastearen gaineko ikuspegi bitxia emango dute antzezlan horretan. Gaur, egubakoitza, izango da emanaldia Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

## Punk rock gaua 3.60 aretoan



ARRASATE

**> Far from Finished (AEB) eta Hell Beer Boys (Beasain) punk-rock taldeak**

Far from Finished AEBetako punk taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan. *Far from Finished/Left Alone* da euren lan berriena. Hell Beer Boys Beasaingo taldeak *Mi Crew* diskoko abestiak joko ditu.

## Mundumirako bi erakusketa



ELGETA, LEINTZ GATZAGA

**> Nairobitarra biraren eta Sahararen gaineko argazki eta dokumentuak**

Mundumirak bi erakusketa ipini ditu: *Saharak 30 urte baino gehiago justizia aldarrikatzen* Elgetako Espaloia antzokian (argazkian) eta *Nairobitarra* delakoa Leintz Gatzagan, etzira, domekara, bitartean.

# Erakusketak

BERGARA

**> Hegazti sarraskijaleen gaineko erakusketa ipiniko dute**

*Hegazti sarraskijaleak* delako erakusketa ipiniko dute bihar, zapatua, kultura etxean. Oñatiko Natur Eskolak antolatzen du.

Maiatzaren 20ra arte dago zabalik. Ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

# Musika

BERGARA

**> Mahaster River talde bergararrak emanaldia egingo du**

Bergarako Mahaster River taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza. Hainbat estilo uztartzen dituzte –lasaia, akustikoa, elektrikoa…–, eta euren abestiak zein beste talde batzuenen moldaketak jotzen dituzte.

Tartufo jatetxean, 23:00etan.

ARRASATE

**> Los Brujos Sonicos-The Sonics Tribute taldearen emanaldia**

Los Brujos Sonicos-The Sonics Tribute taldeak kontzertua egingo du Gure Leku tabernan.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARETXABALETA

**> The Solanos taldeak kontzertua egingo du egubakoitzean**

The Solanos taldeak musika emanaldia egingo du. Debagoieneko II. Trikitixa Eguneko egitarauaren barnean antolatu dute emanaldi hori.

Gaur, egubakoitza, Ezkutu tabernan, 22:30ean.

BERGARA

**> No Use for a Name taldeak kontzertua egingo du**

No Use for a Name taldeak musika emanaldia egingo du. *Keep them confused*, euren bosgarren diskoa, aurkeztuko du punk-rock laukote horrek. The Lawrence Arms eta Versus the World taldeek ere joko dute. Sarrera 16 euro da aldez aurreko salmentan.

Bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan.

BERGARA

**> Dorok musika emanaldia egingo du Bergaran**

Doro bakarlariak kontzertua eskainiko du Jam aretoan. Heavy-metal estiloko emanaldia egingo du. Sonata Arctica eta Altaria taldeek joko dute lehenengo. Sarrera 20 euro da aldez aurretik erosiz gero.

Etzi, domeka, Jam aretoan, 22:00etan.

OÑATI

**> Antisocial, Sospechosos eta Bitz taldeen emanaldia**

San Migel Txiki jaiak direla eta, kontzertua izango da: Gasteizko Antisocial taldeak izen bereko diskoa aurkeztuko du, punk-rock estilokoa; eta Oñatiko Sospechosos eta Bitz taldeek ere joko dute.

Gaur, egubakoitza, San Anton plazatxoan, 22:30ean.

ARRASATE

**> Gertrudis talde katalanaren musika emanaldia**

Kataluniako Gertrudis taldeak kontzertua egingo du. Hango fusio-rumba berriko talderik onenetariko bat dira. Reggaea, cumbia, ragga, funkya eta beste hainbat estilo ere lantzen dituzte.

Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

**> Bosniako umezurztegi baten aldeko kontzertua izango da**

Bosniako Bjelave umezurztegiaren aldeko kontzertua egingo dute Juan Luis Anasagasti tenoreak eta Jaime L. de Butron piano-joltzaileak. Euskal Herriko eta Italiako abestiak, zarzuela, opera… joko dituzte.

Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

BERGARA

**> Udal Musika Bandaren emanaldia izango da asteburuan**

Bergarako musika bandak kontzertua egingo du.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

OÑATI

**> Musikegunak egitarauko lehen emanaldia egingo dute**

Musikegunak programaren barnean, lehenengo emanaldia egingo dute Didier Bousquet tronpeta-joleak, Jesus Soldevilla tinbal-joleak eta Loreto F. Imaz organistak.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

PROPOSAMENA

ELGETA

## > Magiaz beteko dira Espaloia eta Elgeta osoa asteburuan

II. Magia Mostra antolatu du Goibeko elkarteak. Honako saioak daude: Migue magoaren –munduko txapelduna kartekin egindako magian– saioa gaur, egubakoitza, 22:30ean; magia gala bihar, zapatua, ordu berean, Jandro, Jorge Blass, Arno, Karim eta Francisco Aparicio punta-puntako magoekin; eta kale emanaldia etzi, domeka. Irudian, Jandro, iazko parte-hartzaileetako bat.

Hilaren 5eko eta 6ko saioetarako txartelak 15 euro dira (12 bazkideek).



# Jaiak

ARETXABALETA

**> Debagoieneko II. Trikitixa Eguna ospatuko dute**

Triki-maratoia izango da Debagoieneko Trikitixa Eguneko ekitaldi nagusia. Honako ekitaldiak antolatu dituzte: ibarreko trikitilari eta pandero-joleei ongietorria Aretxabaletako plazan (11:00), kalejira (11:30), jaialdia Durana kalean (13:00), bazkaria, txalapartarien emanaldia (17:30), erromeria (18:00) eta Kepa Junkeraren kontzertua izango dira.

Bihar, zapatua, 11:00etatik aurrera.

BERGARA

**> Irukurutzeta Eguna ospatuko dute datorren domekan**

Dena gertu dago Irukurutzeta Eguna ospatzeko, Txurrumilo kirol taldeak eta Atseden Txabolek antolatuta. Honako egitaraua dute: salda eta txorizo jana (11:30), Irukurutzetara igoera eta bazkaria (13:30), erromeria Bergarako trikitilariekin (15:30) eta jaitsiera (18:00).

Etzi, maiatzak 7, domeka.

# Antzerkia

ARRASATE

**> 'La Kabra y Miss Yoe's' antzezlana ikusteko aukera dago**

*La Kabra y Miss Yoe's* antzezlana egingo du Karra Elejalde aktoreak. Ipuinkontalari baten autobiografia da. Agertokitik, bere bizitzako ahazteko moduko uneen berri emango du.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

# Bestelakoak

BERGARA

**> Munibe Plazara Dantzara! programako erromeria**

Munibe Plazara Dantzara! programako lehen erromeria egingo dute Bergarako Ekaitz, Jone eta Aitor eta Etxabe anaiekin. Domekero erromeria egingo dute maiatz osoan.

Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 19:00etan.

ANTZUOLA

**> Gasteizera irteera egingo dute 48an eta 49an jaiotakoek**

48an eta 49an jaiotako antzuolarrek Gasteizera irteera egingo dute. Erdi Aroko auzoa, Heraclio Fournier museoa eta katedrala bisitatuko dituzte, eta Mesa jatetxean bazkalduko dute. Soinu-jole bat ere joango da. Adin horretako antzuolar guztiak animatzen dituzte parte hartzera.

Bihar, zapatua, egingo dute irteera. Herriko plazan batuko dira 09:30ean.

## nire aukera



Jesus Mari Kalboetxeaga
Sukaldaria
Bergara

## "House' da nire telebista saiorik gogokoena"

Jatetxeko sukaldaria naiz, eta domekan bakarrik libratzen dut. Egun horretan, goizean, egunkariak irakurtzea gustatzen zait, bi edo hiru, normalean. Mendian bueltatxo bat ematen dut gero. Arratsaldean, zinemara joaten naiz gustura, normalean Gasteizera, edo inoiz Eibarrera.

Astean zehar, aste batzuetan libratzeko aukera dut, eta orduan Gasteizera-eta joateko aprobetxatzen dut. Handik ibili, zinemara joan eta bestelako gauzak egiteko aukera izaten dut.

**Bergaran joaten zinen zinemara?**
Ez, gehienetan kanpora joaten nintzen. Bueno, astelehenetan, noizean behin, bai.

**Baduzu plater gogokoren bat?**
Egia esan, ez. Ordea, jatetxe bat gomendatzekotan, Adurizena, Mugaritz, gomendatuko nuke. Garesti samarra da, baina hemengo onenetakoa, nire ustez.

**Aldizkaririk irakurtzen duzu?**
Bai. *Cuerpo-Mente* eta *Integral*. Osasunarekin zerikusia dutenak...

**Urtaro gogokoena zein duzu?**
Udazkena, eta udaberria ere. Mendiak duen itxura, koloreak... gustatzen zaizkit, eta bero handirik ez duela egiten.

**Telebista ikusten duzu?**
Bai, normalean gauetan ikusten dut. Oraintxe ditudan saio gogokoenak dira *House* eta *Nip-Tuck / A golpe de bisturí* telesailak.

# Zinema

**ARAMAIO**
**KULTURA ETXEA**

**Elsa y Fred**
Egubakoitza: 22:00.

**Scooby Doo 2**
Domeka: 17:00.

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**Caché (Escondido)**
Eguena: 20:30.

**ELGETA**
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**Martín Hache**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**El caso Slevin**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**Misión imposible 3**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

**Volver**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Déjate llevar**
17:30, 20:00, 22:30.

**Misión imposible 3**
17:00, 19:45, 22:30.

**La huella del silencio**
17:30, 20:00, 22:30.

**Salvaje**
17:00.

**Ice age 2**
17:00, 19:45.

**Bienvenido a casa**
19:45, 22:30.

**Plan oculto**
17:00, 19:45, 22:30.

**El cielito**
17:30, 20:00, 22:30.

**Remake**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Brasileirinho**
17:30, 20:00, 22:30.

**La gran final**
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua: 22:30.

**Volver**
17:30, 20:00, 22:30.

**El triunfo**
Egubakoitza eta domeka: 17:00.
Zapatua: 22:30.

**Eres muy guapo**
17:30, 18:00, 22:30.

**Un franco, 14 pesetas**
17:30, 20:00, 22:30.

**Himalaya**
17:30, 20:00, 22:30.

**ÁBACO-LAKUA**
**ZINEMAK**

**La niñera mágica**
16:30.

**La huella del silencio**
16:30, 19:00, 22:00, 00:40.

**El caso Slevin**
22:15, 00:40.

**Ice age 2**
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

**Misión imposible 3**
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

**In the mix**
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

**La pantera rosa**
16:00, 18:00.

**En busca de un beso salvaje**
20:00, 22:00, 00:30.

**Bienvenido a casa**
22:00, 00:30.

**Salvaje**
16:00, 18:00, 20:10.

**Míos, tuyos y nuestros**
16:00, 18:00, 20:00.

**16 calles**
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

**YELMO**
**CINEPLEX-GORBEIA**

**La huella del silencio**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Bajo cero**
12:15, 16:15, 18:45, 21:15, 00:00.

**Misión imposible 3**
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

**La pantera rosa**
12:15, 16:25.

**Ice age 2**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Déjate llevar**
12:15, 15:40, 18:10, 20:35, 22:50, 01:00.

**Instinto básico 2**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 01:00.
Zapatua: 17:30, 01:00.
Domeka: 12:15, 22:30.

**Novia por contrato**
18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**Un franco, 14 pesetas**
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

**Salvaje**
12:15, 16:10, 18:10.

**Plan oculto**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Zathura**
12:15, 16:40.

**V de vendetta**
17:10, 19:40, 22:15, 00:45.

**Bambi 2**
12:15, 15:45.

**El caso Slevin**
18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**16 calles**
20:10, 22:10, 00:10.

**Crash**
12:15, 15:55, 18:05, 20:20, 22:35, 00:55.

**La niña mágica**
12:15, 16:05, 18:05.

**Volver**
20:05, 22:25, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Egerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO**
**BOULEVARD**

**V de vendetta**
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

**16 calles**
12:10, 16:00, 18:05, 20:10.

**Misión imposible 3**
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

**Bajo cero**
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Volver**
17:00, 22:30, 01:00.

**Déjate llevar**
12:00, 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

**Ice age 2**
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:15, 00:30.

**Declaradme culpable**
20:00, 22:30, 01:00.

**Instinto básico 2**
22:30, 01:00.

**El triunfo**
12:15, 20:00.

**Novia por contrato**
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Salvaje**
12:00, 16:25, 18:15.

**Plan oculto**
12:00, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

**Rosas rojas**
12:15, 16:10, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

**Firewall**
12:15, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Egerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Bienvenido a casa** **
Espainia, 2006. Zuzendaria: David Trueba. Aktoreak: Pilar López de Ayala, Alejo Sauras, Ariadna Gil.
93 min. Komedia dramatikoa.
Hainbat arraza eta nazionalitateko ezezagunek elkarren berri izango dute eta elkarrekin topo egingo dute halabeharrez Los Angelesen. Euren arazoak eta dramak azalera etorriko dira orduan.

**Salvaje**
AEB, 2006. Zuzendaria: Steve Spaz Williams.
94 min. Animaziozkoa, abenturetakoa, komedia.
Marrazki bizidunetako film honek New Yorkeko zoologikoko animalia batzuk ditu protagonista. Zoologikotik irtendа, animaliak konturatuko dira New York ere jungla arriskutsua izan daitekeela.

**Caché (Escondido)**
Frantzia-Austria-Alemania-Italia, 2005. Zuzendaria: Michael Haneke. Aktoreak: Daniel Auteuil, Juliette Binoche, Maurice Bénichou.
115 min. Thrillerra.
*Georges* (Auteuil) kazetaria berari egin dioten bideoak jasotzen hasten da. Pixkana-pixkana, bideoen edukia gero eta pertsonalagoa egingo da. Mehatxatuta sentitzen da, baina poliziak ez dio jaramonik egiten.

**La niñera mágica**
AEB-Erresuma Batua-Frantzia, 2005. Zuzendaria: Rob Marshall. Aktoreak: Emma Thompson, Colin Firth, Kelly McDonald, Angela Lansbury.
97 min. Komedia.
*Nancy McPhee* (Thompson) itxura eta portaera bitxiko emakumea da. Halako baten, *Brown jauna*-ren (Firth) eta bere seme-alaben bizitzan sartuko da eta umeen zaintzaile bihurtuko da.

**Déjate llevar**
AEB, 2006. Zuzendaria: Liz Friedlander. Aktoreak: Antonio Banderas, Yaya DaCosta.
108 min. Drama, musikala.
Pierre Dulaine (Banderas) irakasle berria da New Yorkeko ikastetxe baten. Ikasleek ez dute ondo hartzen, bere ikasgaia, dantza, deskubritzen duten arte. Orduan, gauzak aldatzen hasiko dira, ikasleak irakaslea errespetatzen hasiko diren neurrian.

**La huella del silencio**
AEB, 2005. Zuzendariak: Scott McGehee eta David Siegel. Aktoreak: Richard Gere, Juliette Binoche.
104 min. Drama.
*Eliza Naumann* txikiak hitz zail eta luzeak hizkiz hizki esaten eta idazten ditu. Gaitasun berezi horren bidez, itxuraz ideala den bere familiaren sekretu ilunak azalera irtengo dira.

**Míos, tuyos y nuestros**
AEB, 2005. Zuzendaria: Raja Gosnell. Aktoreak: Dennis Quaid, Rene Russo, Rip Torn, Linda Hunt.
90 min. Komedia.
*Frank* (Quaid) eta *Helen* (Russo) bikotea ziren institutuan. 30 urte eta gero, biak alargunduta daude eta ezkondu egiten dira. Bien artean, 18 seme-alaba dituzte eta familia bizitza bideratzea zaila izango da.

**V de vendetta**
AEB, 2006. Zuzendaria: James McTeigue. Aktoreak: Natalie Portman, Hugo Weaving, Stephen Rea, John Hurt.
98 min. Thrillerra.
Etorkizuneko gizarte beldurgarri baten girotutako istorioa kontatzen du filmak. *Evey* gaztea (Portman) hil ala biziko egoera batetik erreskatatzen du maskaradun gizon misteriotsu batek, *V*-k. Iraultzaren alde borrokatuko dute biek.

**El triunfo**
Espainia, 2005. Zuzendaria: Mireia Ros. Aktoreak: Juan Diego, Ángela Molina, Antonio Fernández Montoya.
122 min. Drama.
80ko hamarkadan, bizi irautea lortu duten pertsona batzuek auzo osoa menpean dute. Hango mutil batzuek runba taldea osatu nahi dute, baina taldeko buruak aitaren desagerpena mendekatu beharko du.

**En busca de un beso salvaje**
AEB, 2001, Zuzendaria: Eric Bross. Aktoreak: Lance Bass, Joey Fatone, Emmanuelle Chriqui.
91 min. Komedia erromantikoa.
*Kevin*-ek (Bass) dena du alde, baina bere buruarengan konfiantza gutxi du, eta horregatik ez du maitasuna aurkitu. Halako baten, bere ametsetako neska ezagutzen du.



## Plan oculto ***

**Zuzendaria:** Spike Lee.
**Aktoreak:** Denzel Washington, Clive Owen, Jodie Foster.
AEB, 2005.
129 min. Drama, thrillerra.

Spike Leeren film gehienak nahiko subertsiboak, diskurtsiboak, desorekatuak eta pertsonalak izaten dira. *Plan oculto*-n badira aldaketa batzuk: hau estudio handiak egiten dituzten filmetara hurbiltzen da (aurrekontu handiagoarekin, aktore famatuekin eta komertzialagoa den genero bat, banku lapurreta bati buruzko istorioa, ukitzen du) eta nahiko lan entretenigarria da.

Halako filmen barnean badaude jarraitzen diren pauso ezagun batzuk: lapurrak bankura heltzen, horiek bankuan dauden pertsonak bahitzen, polizien eta lapurren arteko negoziaketak. Hori guztia *Plan oculto*-n gertatzen da, pauso guztiak xehetasunez erakusten dira, baina badira azkenean betiko eskemak zerbait hautsiko direla susmatzeko aukera ematen diguten ezenak: filmaren lehen eszena, lapurrak ikusleari berba egiten dioenean; istorioan zehar bahitutako pertsonek poliziekin dituzten elkarrizketen tartekapena. *Plan oculto* ikusten ari garenean ez dakigu oso ondo gertakizunek norantz joko duten, eta halako sentsazioak atseginak badira, osagai guztiak lotzen dituen bukaera on bat eskatzen dute, eta kasu honetan horrela gertatzen da.

*Plan oculto*-k inteligentziak indarra baino garrantzi handiagoa duela erakusten du; hainbat jokalarik duten joko bat da: politikoak, enpresaburuak, poliziak, lapurrak; denak lapurretan nahastuak daude eta nork bere interesak babestu nahi ditu. Eta azkenean besteen asmoak igartzen dituena garaile aterako da.

**Antonio Zabala**

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2006/05/31, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

EGOITZA NAGUSIA
132 posta-kutxa, Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com


# Antzuolarren erromesaldia

**A NOVA PONTE** Ehunetik gora antzuolar izan da Sanxenxoko hostal horretan atseden hartzen azken 19 urteotan

**JATUN ONAK** Antzuolarrak jatun onak direla dio Fernando Martinez ugazabak: "Bada 8 egunean 5 kilo hartu dituena"

**ANTZUOLARA** Antzuolan ere izan dira Fernando eta Ana emaztea. "Gainera, Bergarako jaiak ziren joan ginenean"

**ENEKO AZKARATE** > ANTZUOLA

Santiagora barik Galiziako hegoalderantzago dagoen Sanxenxo (Pontevedra) herri turistikora egin ei dute antzuolarrek erromesaldia. Izan ere, harako joera dute askok eta askok: azken 19 urteotan ehunetik gora antzuolarrek aukeratu dute Sanxenxoko A Nova Ponte ostatua atseden hartzeko.

Fernando Martinez da A Nova Ponteko jabea eta haren emazte Anarekin batera dihardu negozioan. Etxean moduan hartzen dituzte bisitariak, batez ere Antzuolatik badoaz. Jon *Bekorrota*, Antxon *Zabale*, Juliantxo *Aotxa*, Mikel *Beteixo*, Josu Zabalo eta Asier Unamuno dira A Nova Ponten "lehorreratu" ziren lehenengo antzuolarrak. "Uste dut ez zaidala inor ahaztu lehen bisitaldi horretan etorri zena". Halaxe kontatu dio Fernandok GOIENKARIArako berriemaile lanak egin dituen Kristina Pavori, Aurtengo Aste Santuan A Nova Pontetik igaro den antzuolarrari. "Zuen azken bisitaldiarekin 111 antzuolar pasatu dira hemendik, hainbat belaunalditakoak. Gainera, etxe bakoitzeko *onena* egon da hemen". Antzuolarrak jatun onak direla dio Fernandok: "Bada 8 egunean 5 kilo hartu dituena ere". Oro har, "bihotz oneko jendea da; etxekoak; autentikoak".

Hostalean batzuetan ez da ohe librerik egon antzuolarrak joan direnean eta behin baino gehiagotan etxe ostean kanpina jarri eta hantxe egin dute lo. Horretarako, belarra moztu behar izan dute, "baina euskaldun on bezala, arazorik ez, eta belarra mozteko makina alde batera utzita segarekin moztu izan dute", dio.



**ORAIN DELA 19 URTE** A Nova Pontera joan ziren lehen antzuolarrak hangoekin. Erdian, alkandora arraiduna, Fernando. GOIENKARIA

**URRIAN ANTZUOLARA**

Antzuolan izanak dira Fernando eta Ana emaztea: "Asko gustatu zitzaigun. Herriak duen lasaitasunak harritu gintuen. Bergarako jaiak ziren joan ginenean, eta parranda egiteko aukera izan genuen. Zuen inguruan famatua den *botea* tokatu zitzaidan gau guztian". Aurtengo urrian berriro ere etortzekoak direla dio.

## ahobero

### "Aukera ezin hobea galdu dugu, baina geratzen zaizkigu beste bi eta bat aprobetxatu behar dugu"

**Jose Mari Bakero** >
Realeko entrenatzailea

Bai, bai, baina "egon hadi lo eta jango duk mehe" dio esaerak eta Realak hobe du lehenbailehen esnatzea eta domekan Celtari irabaztea. Bestela, azken partidua Espanyolen aurka izango da traumatikoa, larregikoa zaleendako.

## iturri onetik

### Pazkoetako astelehenean ospatuko dute koadrilen eguna

Bergarako Mendekoste jaiak ekainaren 2tik 6ra bitartean ospatuko dira aurten. Udalak dagoeneko osatu duen egitarauan ez da aparteko nobedaderik. Dantza latindarren II. ekitaldia jokatuko da zapatuan eta iaz jasotako erantzun bikaina ikusita koadrilen eguna astelehenean ospatuko da. Besteak beste, ekainaren 5ean koadrilen arteko jolasak eta herri bazkaria izango dira San Martin plazan.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Errenta euskaraz

Ohitu egin gara, eta jaregin diogu hainbat esparru gaztelerari, egunerokoan. Duela hogei urte, ez genekien zer zen *oinarri zergagarria*, ezta bere gaztelerazko ordaina ere. Gero, ikasi egin dugu bigarrena, baina bakarrik alde guztietatik hala iritsi zaigulako.

Egoerari buelta emateko ordua da. Elkarbizitza berreraikitzen hasteko tenorean, hizkuntzarena dugu korapilo nagusienetakoa. Bi aukera: edo amore eman, eta euskara esparru txikietara mugatu; edo ahalegin indartsu eta luzeari ekin, euskararentzat egoera simetrikoa erdietsi arte.

Ekitekotan, hasteko behar ditugu urrats samur eta arrakastatsuak: errenta aitorpena euskaraz egitea, adibidez. Laguntza izango duzu, han-hemen. Eta bai, *oinarri zergagarria* zuk uste duzun hori da.

## ai, ene!



### Bulego eramangarria, nonahi egiteko lan

Ordenagailua, altueran erregulatzeko mahai eta aulkia, eta argiak ditu bulegoak. Argindarra dagoen edozein tokitan erabiltzeko.

http://elfurl.com/cpxhi

